



Bigarren ariketa soziala, euskara gehiago erabiltzeko

Gaur hasiko da bigarren Euskaraldia, hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskararen erabilera bultzatzeko ekimena; abenduaren 4ra arte iraungo du / 21



Hemen
garbiketak

Inoiz baino garrantzitsuagoa

**ZURE KONFIANTZAKO
GARBIKETA ENPRESA**

ESKORIATZA
T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

3.000 lagundik gora kutsatu eta 88 hil ditu birusak Debagoienez

Joan den asteko joerari jarraiki, 461 positibo berri zenbatu dituzte azken astean bailaran —aurrekoan baino 14 gutxiago—. Martxotik, 88 pertsona hil dira birusak jota. Arrasaten 13 eta 40 urteko herritarrek deitu dituzte PCR proba egitera, baheketan

Maialen Santos ARRASATE

Azken astean, 461 positibo hauteman dituzte Debagoienez, aurreko astean baino hamalau gutxiago. Azpimarratzekoa da bailarako kasuak 3.000ko langa gainditu dutela asteburuan —3.215 dira dagoeneko—, eta azaroaren 12an egun bakarrean erregistratutako kopururik handiena zenbatu zutela —101 positibo—. Horrez gain, Gipuzkoako oinarritzko birsorkuntza tasa batetik behera kokatu zen asteburuan; hortaz, kutsatutako pertsona batek batez beste ez du beste inor kutsatzen.

Debagoienezko Ospitaleari dagokionez, 27 lagun daude ingresatuta, eguenera arte. Eta Jaur-laritzak emandako datuen arabera, 88 pertsona hil dira bailaran osasun krisia hasi zenetik.

ARRASATEKO BAHEKETA MASIBOA

6.161 ARRASATEAR DEITU DITUZTE PCR PROBA EGITERA

Gaur iluntzera bitarte, 13 eta 40 urte arteko 6.161 arrasatear inguru daude deituta PCR proba

egitera. Eguazten eta eguenean, guztira, 2.569 pertsonak zuten hitzordua hartuta proba egiteko, eta Debagoienezko ESItik azaldu dute orain artean "erantzun ona" ematen ari direla herritarrek.

ZAHARREN EGOITZAK

ESKORIATZAKO JOSE ARANAN 10 POSITIBO HAUTEMAN DITUZTE

Eskoriatzako Jose Arana egoitzan domekaz geroztik hamar pertsona kutsatu dira, guztira. Bestalde, Arrasateko Iturbide egoitzan pertsona batek jarraitzen du birusarekin. Oñatiko San Martin egoitzan joan den asteko egun batean lanean egon zen pertsona batek ere positibo eman zuen. Ez zuen egoiliarrekin kontaktu zuzenik izan, baina prebentzio neurriak areagotu egin dituzte egoitzan. Arrasateko Aita Menni ospitalean, azkenik, martitzenera arte, 37 egoiliar eta 11 langile zeuden kutsatuta. Bertatik azaldu dute bigarren PCRak egiten ari zaizkiela, eta positibo kopurua "jaitsi" egingo dela datozen egunetan.

MASKAREN PREZIO JAITSIERA

BERRERABILGARRIAK EZ DIREN MASKAREN BEZ-A, %21ETIK %4RA

Erabili eta botatzeko diren maskaren prezioak behera egingo du. Apirilean finkatutako prezioa —unitateko 0,96 zentimo— %35 merkatzea adostu du Espainiako Gobernuak. Joan den astean iragarri zuten maskaren prezioa unitateko 0,96tik 0,72ra jaitsiko zutela, eta, asteon, prezioa jaisteaz gain BEZa %21etik %4ra jaitsiko dutela azaldu dute.

JAURLARITZAREN AZKEN NEURRIAK

JANARI ESKAERARIK GABE EDARIAK SALDU AHAL IZANGO DITUZTE


Jaur-laritzatik azaldu dute jate-txeek eta taberneak eramateko kafeak eta alkoholik gabeko edariak saldu ahal izango dituztela aurrerantzean, nahiz eta janari-eskaera batean parte ez izan. Alkoholdun edariak, baina, janari-eskaerarekin soilik saldu ahal izango dituzte.

Bailarako herrien intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

14 EGUNEKO TASA 100.000 biztanleko

- >=500
- 300-499
- 60-299
- < 60



Positibo kasuak

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak 1.000 biztanleko
Arrasate	194	200	1.294	58,66
Bergara	126	125	828	55,19
Oñati	50	83	468	41,22
Aretxabaleta	40	31	277	39,03
Eskoriatza	35	15	141	34,69
Aramaio	7	11	44	29,22
Elgeta	6	2	34	29,85
Antzuola	3	8	128	58,16
Gatzaga	0	0	1	4,00
GUZTIRA	461	475	3.215	49,71

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

LABORATORIUM

Bergarako Udala

HERIOTZARAKO ERROMATAR OHITURAK SORIAKO TIERRAS ALTAS ESKUALDEAN. EUSKARAREN AZTARNAK ANTZINAKO EPIGRAFIAN

HITZALDIAK ETA BISITAK EDUARDO ALFAROREKIN

Eduardo Alfarak, arkeologian doktoreak, erakusketa honen komisarioak, hitzaldiak emango ditu. Parte-hartzaileek hiliarri hauek hobekien ezagutzen dituen ikerlaria entzun ahal izango dute eta ondoren, piezak ikusi:

- Azaroak 21, larunbata, 11:00
- Azaroak 27, ostirala, 18:00
- Abenduak 12, larunbata, 11:00
- Abenduak 18, ostirala, 18:00

Gehieneko edukiera: 15 pertsona. Beharrezkoa da aldeztu aurretik izen-ematea www.laboratorium.eus-en

"Zaintza publikoa" eskatu dute arloko langileek

Greba deitu zuen martitzenerako ELA sindikatuak zaintza sektoreko langileen artean. 'Zaintza publikoa bizitzarako' lelopean, Euskal Herriko hainbat herri eta hiritan egin zituzten mobilizazioak. Arrasaten, hain zuzen, Herriko Plazan batu ziren

Jone Olabarria BERGARA

Seguritasun neurriak mantenduz, laurogei lagun inguru batu ziren bertan, nahiz eta ELAk adierazi zuen greba egunerako Eusko Jaurilaritzak ezarritako zerbitzu minimoek zenbait langileren grebarako eskubidea urratzen zutela.

"Egoera prekarioa"

Deba eta Urola bailaretako arduradun Amagoia Lasagabasterrek adierazi zuenez, "beste behin, gobernuek greba eskubidea zapuztu dute. Sektore hauek guztietan ia %100eko zerbitzu minimoak ezarri dituzte. Zentroren batean ohiko egun batean baino langile gehiago egon daitezke, greba eguna izanda ere".

Zaintza sektoreak barnebiltzen dituen arlo ezberdinetako langileek bizi duten "egoera prekarioa" salatu eta ikusarazi nahi izan zuten, horretarako hainbat langilek euren testigantzen be-

rrri emanda. Maite Arizaga Arrasate eta Aretxabaletako etxez etxeko zaintza zerbitzuko langilea da: "Lan prekarioa da, ez da ia lan finkorik eta baldintzak ez dira batere onak...Zortzi urte daramatzagu hitzarmena negoziatu gabe eta eskatzen duguna lan hau publikoa izatea da".

Arizagak gaineratu zuenez, "bai Udalak bai Aldundiak zaintza lanetarako enpresak azpikontratatzan ditu, egoitzen kasuan eta etxez etxeko zerbitzuari dagokionez". Zerbitzuen hobekuntzarako enpresari eskariak egin dizkioten arren, jakinarazi zuen "oraintxe" dabilzala negoziaketetan.

Langileei aitortza

Greba eguna zaintza lanetan diharduten emakume eta langile guztiei aitortza egiteko ere baliatu zuten: "Aitortza bat egin nahi izan diegu zaintza sektorean lan egiten duten milaka emakumezko, aldarria soziala izan

dadin, eta baita egunen batean ekonomikoa".

Aldarrien artean, "zaintza sistema publiko, kalitatezko eta unibertsal" baten beharra azpimarratu zuten: "Zaintza lanak, denok dakigun bezala, gehien-goan pribatizatu daude, guztion zergekin eta diruarekin pribatizatzen dituzte, esanez horrela



Arrasaten martitzenean egindako elkarretaratzea J.O.

lanak optimizatzen direla. Urteen poderioz, baina, ikusi dugu hori ez dela horrela gertatzen".

Aldarrikapenen artean, "lan baldintzak hobetzea, ratioak

handitzea, egutegiak hobetzea, pribatizatutakoa publiko bihurtzea eta guztiondako zaintza kalitatea hobetzea" aipatu zituen Lasagabasterrek.

Ane Bereziartua eta Beatriz Aldai

Arrasate Bidaiak

Ezohiko egoerara egokituta, etxetik lanean jarraitzen dute Arrasate Bidaiak agentzian

Kontzezino kaleko lokala itxita dagoen arren, telelanaren bitartez zerbitzua eskaintzen jarraitzen dute Arrasate Bidaiak agentzian.

Urteaskoan zehar Arrasate Bidaiak agentziak milaka pertsonaren bidaia eta oporrak kudeatzen lagundu izan du Arrasatetik.

Lokala itxita dago, baina nola ari zarete lanean?

Telelanaren bitartez jarraitzen dugu lanean, etxetik. Agentziaren telefono finkora deituta eskaintzen dugu zerbitzua, mugikorretara desbideratuta baititugu deiak.

Bestelako baliabideak ere martxan dituzue?



Bereziartua eta Aldai.

“ Izandako konfiantza eta pazientzia eskertu nahiko genieke Arrasate Bidaiak-eko bezeroei **”**

Bai; telefonoaz gain, posta elektronikoa eta webgunea ere aktibo mantentzen ditugu une oro, gure bezeroei arretarik onena eta pertsonalizatuena eskaintzeko helburuz. **Pandemia iritsi zenetik egoera nahiko zaila bizi duzue bidaiei sektorean...**

Ziurgabetasuna handia da une honetan gure sektorean. COVID-19aren hedapena saihesteko neurri berriek bidaia egitea galarazi edo zaildu egin duten arren, izandako konfiantza eta pazientzia eskertu nahiko genieke Arrasate Bidaiak-eko bezeroei. Urte hauetan guztietan ere milaka bezero gurturatu dira guregan, Arrasate Bidaiak haien bizitzetako plan eta ametsen partaide eginda.

Elikagaien bilketa handian parte hartzeko aukera asteburuan ere

COVID-19ak eraginda, kanpainara atxikitako saltokietan eskuratu daitezke elikagai bonuak, erosketa egitean

J.O. BERGARA

Azaroaren 16an hasi eta 21era arte egongo da Elikagaien Bankuek urtero antolatzen duten "janari bilketa erraldoian" parte hartzeko aukera aurten. Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren kasuan, 2020koa kanpaina ezohikoa izaten ari da; izan ere, ez da orain arte bezala supermerkatuetan eta saltokietan elikagairik batuko. Horren orde, bonu sistema bat abiarazi dute. Elikagai Bankuko Jose Antonio Agirrebeñak zehaztu duenez, bailarako supermerkatu eta sal-

toki handi guztietan dago bonuak eskuratzeko aukera.

Erosketa egin ostean, kutxatik pasatzerakoan eskuratu ahalko direla azaldu du Agirrebeñak: "Ohiko erosketa egin ostean eskatu ahal dira bonuak kutxan. Bonuetara bideratutako dohaintza hori erosketa-txartelean islatuko da modu horretara". Gipuzkoako Elikagaien Bankuko boluntarioen bat ere saltokietan egongo dela azaldu dute, herritarren batek laguntza behar badu eta zalantza bat izanez gero argitzeko asmoz.



ARRASATE BIDAIAK

ZABALIK

TELEFONO HONETAN

AURKITUKO GAITUZUE: 943 71 25 30



Eskerrik asko une zail hauetan gure ondoan egon zareten guztioi!



1991n, Donostian, Gipuzkoako Gobernu Militarren egoitzan Bergarako intsumisioek egindako elkarretaratzea. 'BERRIGARA' ASTEKARIA

Desobedientzia "arma" gisa erabili, nahitaezko soldadutza desagertzeko

Intsumisioari buruzko Lander Garroren 'Bi urte, lau hilabete eta egun bat' dokumentala Bergaran eta Oñatin eman dute asteon. Mugimenduak indar handia izan zuen 90eko hamarkadan; bertan aritutakoek "pozik" oroitu dituzte lorpenak

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

1990eko hamarkada hasieran babes eta indar handia izan zuen mugimendu intsumisioak; Euskal Herri mailan, eta baita bailaran ere. Soldadutza egin nahi ez zuten gazteek osatzen zuten, euren borondatearen aurka zihoalako, baina gizartearen beste geruza batzuen babesa ere izan zuten. Legez behartuta zeuden zerbitzu militarra egitera, nahi eta nahiez, eta desobedientzia kolektibo eta baketsua egitea erabaki zuten, ondorioak ondorio. Intsumiso hitzak berak ondo adierazten du: sumisiorik eza.

"Hasieran, zerbitzua ez egiteko, objektzio erlijioso edo moralak aurkeztu zituzten gazteek, eta horietako asko onartu egiten zituzten. Baina urteek aurrera egin ahala, objektzio kopurua handituz joan zen, eta epaileen baieztapenak ezeztatu zituzten.

Objektzioen bidea ixten ari zirela ikusita, intsumiso egitea zen aukera bakarra. Esku artean geneukan taktika bakarra zen zerbitzu militarra ez egiteko", azaldu du Bergarako Talde Intsumisoko kide Markos Perezek.

Kartzela zigorrak eta epaiketak
Intsumiso egitea ez zen debalde, ordea. Zerbitzu militarri edo haren ordezkari zerbitzuari uko egiteagatik epaituak izan ziren asko, eta batzuk espetxeratu ere egiten zituzten. Bailarako bi kide egon ziren preso, Iñigo Irasuegi arrasatearra eta

**IÑIGO IRASUEGI
ARRASATEARRA
EUSKAL HERRIKO
LEHEN PRESO
INTSUMISOA IZAN ZEN**

Markos Perez bergararra; Irasuegi Euskal Herriko lehen preso izan zen. "Ulgorren lanean nengoela etorri ziren ni atxilotzera kaleko arrokekin jantzitako Guardia Zibilak, Sineiro epaile frankistaren aginduz. Handik Intxaurrendora, eta handik Coruña-ko epaitegi militarra. Epaitu ostean, Alcalá de Henares-eko kartzela militarrean sartu ninduten, Madrilgo eta Burgosko beste bi presorekin. Gaizki tratatzen gintuztela ikusita, gose greba hasi nuen; hamar egun egin nituen baraurik, eta, azkenean, 40 eguneko espetxealdia eginda, aske utzi ninduten", azaldu du Irasuegi. Handik bi hilabete baino gutxiagora atxilotu zuten Markos Perez, Eskola Politeknikoan ikasten ari zela: "Bakartuta egoten ginen, moldatu gabeko pertsonak ginelako euren dako. Cicatriz taldearen

Inadaptados diskoaren azalean agertzen den pertsonaren antzerkia. Uko egiten genion euren emandako arropak janzteari, eta han barruan jarraitu beharreko hainbat arauri, eta horregatik esaten ziguten moldatu gabeko pertsonak ginelako. Hori dela eta, ordu bakarra edukitzen genuen patiora irteteko, eta nahita jartzen ziguten 14:00-15:00 bitartean, Madrilen udan egiten duen bero jasanezin horrek gogorren jotzen duenean".

Kartzela zapaldu ez zutenek ere izan zituzten hainbat ondorio. "Epaitu ostean, kartzela zigorra ezartzen ziguten, baina epe gutxi zigorrak ziren, ez ziren nahikoa izaten kartzelara sartzeko. Orokorrean, aurrekari penalik ez bazenuen, kartzelara joateaz libratzen zinen. Baina bazeuden beste albo kalte edo zigor batzuk; alor ekonomikoan, batez ere. Intsumiso eginez gero, ezin zenuen beka publikorik jaso ikasketak egiteko, ezin zinen lan eskaintza publikoetara aurkeztu, babes ofizialeko etxeen zozketetan ezin zenuen parte hartu, administrazioek ematen zituzten dirulaguntza publikoetara ezin zinen aurkeztu... zigor ikusezinak ziren, baina eragina zutenak".

Taldeak, herriz herri


Mugimendu intsumisioaren baitan hainbat talde sortu ziren, eta Kakitzat zen garrantzitsuenetako bat. Iñigo Irasuegi bertako kide izan zen eta gogoratzen du Arrasateko Udalean bulego txiki bat muntatu zutela, gerrari uko egin nahi ziotenak intsumiso izendatzeko. Herriz herri ere antolatuta ziren taldeak: Bergaran, BOTA (Bergarako Objeto Talde Antimilitarista); Oñatin, OTIA (Oñatiko Talde Intsumiso A)... Honek azaldu A hori Imanol Biain oñatiarrak: "Korrante askotatik etorritako lagunek osatzen genuen mugimendua: antimilitaristak, abertzaleak, anarkistak, antikapitalistak... Denak A-rekin hasten zirenez, eta talde bateratu eta indartsua eratu nahi genuenez, A hori jarri genuen izenaren bukaeran, denon abizena modukoa zelako".

**KARTZELARA EZ JOAN
ARREN, INTSUMISIOEK
ASKOTARIKO ZIGOR
EKONOMIKOAK
JASOTZEN ZITUZTEN**



IÑIGO IRASUEGI
ARRASATEKO INTSUMISOA

"Espetxeratu egin gintuzten, deliturik ez egin arren: ez ginen inorekin sartu, ez genuen kalterik eragin... Gure erru bakarra zerbitzu militarren aurka egotea zen. Kartzelan gaizki tratatu gintuzten, kikiltzeko edo, baina sartu nintzenean baino antimilitaristago irten nintzen bertatik".



MARKOS PEREZ
BERGARAKO INTSUMISOA

"Ekintza pila egiten genituen: parodiak, txotxongilo taldekoekin elkarlanak... Behin, su eman genien kartilla militarrei Bergarako plazan. Ostean konturatu ginen kartilla horiek erretzea delitu bezala tipifikatzen zela, sei urteko kartzela zigorrekin".



IMANOL BIAIN
OÑATIKO INTSUMISOA

"Oñatiko taldea oso aktiboa izan zen; bereziki, dirua batzeko orduan. Denetarik egiten genuen: kontzertuak, antzerkiak, herri-bazkariak... Behin, Mano Negra taldearen kontzertua antolatuta genuen: 3.000 lagun etorri ziren, eta milioi bat pezeta batu genituen".



INDARKERIA MATXISTAREN

AURREAN EZ ZAITEZ IKUSLE HUTS BATIZAN

ERASO ASKO GURE BEGIEN AURREAN GERTATZEN DIRA.
ZUK ERE BADUZU HAU ALDATZEKO ARDURA.



NOLA JOKATU JAKITEKO INFORMAZIOA:
berdintasuna.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro



ZABALIK

NEREA ZUBIA BLAZQUEZ

Besteak

Harremanak izateko eta dialogatzeko moduek interes berezia piztu didate azkenaldian. Zein zaila zaigun desadostasunean bizitzea eta, aldi berean, zenbat maite ditugun maite trintxerak. Gure galbaheak zein zulo txikiak dituen. Zenbateko maiztasunarekin transitatzen dugun suabe(egi) eta altu(egi) hitz egitearen artean, kortesiatik enfrentamendura, eta zer ezkutatzen den horren atzean. Gure pentsamenduetara lotuta bizi gara eta toki gutxi uzten diogu elkarrekin pentsatu eta eraikitzeari.

Pertsonok badugu inguratzen gaituen oro kategorizatzeko joera bat, hein handi batean, segurtasun beharrari lotua. Eta kontrola galtzeko arriskua sumatzen dugunean, aniztasuna ezabatzen saiatzea da gure lehen erreakzioa; *gureen* kategorian sartzen ez direnen bazterketa edo urruntzea, alegia. Barruan daramagun diktadore txiki

ELKARREKIN JARDUTEARI AUKERA BAT EMANEZ GERO, ERAGINKORTASUNA IRABAZIKO DUGU

hori atera, eta gure ordena ezartzeko boterea erabiltzen dugu; eta horrela, pentsamendu zatikatuan oinarritutako kultura bat elikatzen jarraitzen dugu, lasai ederrean.

Bitartean, gizarteko erronka nagusiak sistemikoak direla inoiz baino ageriagoan dagoen une hauetan, eszenatoki konplexu horri erantzuteko antidoto bila jarraitzen dugu. Jakina da botika magikorik ez dagoena, baina elkarrekin jarduteari aukera bat emanez gero, seguru nago eraginkortasuna irabaziko dugula. Horrek, gauden aldean gaudela –kokatzen gaituztela–, gure jarreretan ez gotortzea dakar, ziurtasuna alde batera uztea eta *besteekin* harremanetan egotearen ondoriozko aukera berrietara irekita egotea. Elkarrekin eraikitzeak orain arte esploratu gabeko bideak aztertu eta esperimentatzeko gonbita egiten digu, arrazoiak izatetik edo ez izatetik haratago. Ez naiz ari norberaren ideiak alde batera utzi edo ukatzeaz, elkarrekiko enpatiatik pentsamendu eta ekintzak gidatzeko sortzen den oinarri berri horretara zabalik egoteaz baizik.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

EITB Focus-en fokukak

JOSEBA BARANDIARAN

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Inkosten fokua galderak dira. Sorpresak argitzen dituzte. Galdetzen dutenagatik beste, isiltzen dutenagatik. Berrikitan, EITB Focusenak harrapatu ninduen, honatx argibideak:

Telebistako zein kanaletan daukazu ETB1? Eta ETB2? Ondorioaren bat ateratzeko moduko galderak badira, bere soilean.

Baita bi erantzunak "ez dakit" izanda ere.

Aurretik, Espainiako eta Nafarroako gobernuen nahiz Jaurilaritzakoen pandemiaren kudeaketa 0tik 10era

epaitzeko galderak. Eta ostean, hara non datorren *Iparraldeko gobernuaren kudeaketa nola baloratzen duzu?* Ein? "Euskal Elkargoarena?", nik; baietz berak.

Ene. Bada, ez nekien Euskal Elkargoak eskumenik zeukanik ere kontu honetan. Galdera tranpa horietako bat izango zela pentsatu nuen. Ez dut erantzunik gogoan.

Eskolara itzulera, zure ustez, non egin da hobeto, eskola publikoetan edo eskola pribatu/kontzertatuetan? Jesus, Maria eta Jose, euskaraz ez dakit eta gatzeleraz, *no sé*.

Nola osa dezake herritar arrunt batek horrelako

galdera baten gaineko pulamentuzko iritzirik?

Zein informazio fidagarri dugu herri txiki nahiz handi, kale zein landa eremu, eskola txiki nahiz handi, hangoen eta hemengoan eskola itzulera baloratzeko? Zer da galdera horrekin benetan jakin nahi dena?

Fokukak foku, EITB Focus honek zer argitu nahi zuen ez nuen lar ulertu.

Galdera naturalagoa zatekeen: *Zein uste duzu ari dela hobeto pandemiaren kontra, osasungintza publikoa edo pribatua?*

Tolosako Asunekin gogoratu nintzen orduan.

Hark bai begi klinikoa. Foku kontua.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzaileak

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetakako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua

BERBAGAI

"Marokoar soldaduek dirua dute jokoan; guk, askatasuna"

GARAZI HACH EMBAREK SAHARARRA ETA EUSKALDUNA

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA
Gertu-gertutik bizi izaten ari da Saharan gertatzen ari dena. **Zerk eragin du urte luzez egon den su-etena haustea?** Marokok. Beti bezala, akordioak hautsi ditu, ez du giza eskubiderik errespetatu, eta ez du mugarik izan nahi duen oro egiteko. NBErekin sinatutako akordioaren arabera, Marokok ezin du errepide bat izan Mauritaniara joateko, baina erabili egiten du. Duela urte batzuk ere berdina gertatu zen Paris-Dakar lasterketarekin. Fronte Polisarioari baimenik eskatu gabe saharar lurak erabili zituzten. Hori guztia salatzeke, saharar zibil batzuk Gergerat izeneko eremura joan ziren eta protesta baketsuak egin zituzten. Marokori ez zaionez gustatzen eurek egindako itsuskeriak nazioartean hedatzea, bada, azaroaren 13an armada eraman zuen bertara eta zibilak atakatu zituen. Sahararrak defendatzeko, Fronte Polisarioak erantzun



Garazi Hach Embarek sahararra eta euskalduna. GARAZI HACH EMBAREK

egin zuen, eta gerra hasi zen, nahiz eta Marokok aitortu ez. **Fronte Polisarioak eraso batzuk egin dituela dio, baina Marokok ez ditu konfirmatu. Zergatik?** Marokok ez du inoiz onartu gatazka politikorik dagoenik;

beraz: ez dago preso politikorik, ez dago gerrarik. Ez dute ezer adierazi su-etena hautsi izanari buruz. Baina, Marokok dioena albo batera utzita, NBEk komunikatu bat igorri du berriki, non arrazoia

ematen dion Fronte Polisarioaren bertsioari. **Zein baliabide ditu Fronte Polisarioak gerrarako?** Daviden eta Goliathen arteko borroka dirudi. Baina marokoar soldaduak diruagatik borrokatzen dira; guk, aldiz, gure lurraldea askatu nahi dugu, eta horrek borrokarako ematen dizun gogoia ez dizu soldata eskas batek ematen. Errefuxiatu kanpamentuetan denok jaso dugu entrenamendu militarra, eta jendea borrokarako gogoz dago. Eta ez dezagun ahaztu Aljeria gure aliatua dela. **Nola eragiten du gerra egoera honek sahararren aldarrian?** Ospakizuna eta poza dira nagusi, hainbeste desiratutako askatasuna lortzeko uea delako. Kanpamentuak hustu egin dira, ahal izan duten guztiak gerrara joan direlako. **Ez gaude ohituta gerra eta poza esaldi berean entzutera...** Hemengo konfort egoeratik ikusita, normala da diozuna. Baina zure herria okupatuta dagoenean, zure herritarrek egunero zanpatzen dituztenean, bake-planean jasotako urratsak betetzen ez direnean, Espainiak emandako hitza betetzen ez duenean... Herri bezala desagerraraztear eta odolustear geunden, eta zerbait egiteko uea zen.

HAU BE BADOGU!

Euskal selekzioaren garaipena Eibarren



Costa Ricari 2-1 irabazi zion selekzioak, astelehenean, eta **#batzengaituelako** traola *trending topic* izan da: **@mikelsanjo6:** "Birminghametik ere selekzioa animatzen ofizialtasunera". **@AritzAduriz11:** "Zorionak Euskal Selekzioa! **#BatzenGaituelako**". **@enekogara:** "Gaur, Euskal Selekzioa, bihar ofizialtasuna".

Gaur abiatu da bigarren Euskaraldia

Sare sozialak **#euskaraldia** traolarekin bete dituzte erabiltzaileek: **@yaskmaansri:** "Nik aurtan lehen aldiz parte hartuko dut Euskaraldian eta **#AhoBizi** izanen naiz. Eta zu?". **@MrAsierAgirre:** "Nahiz eta aurtan Euskaditik at aurkitzen naizen parte hartuko dut Euskaraldian".

Nogen taldearen lan berria hizpide

Talde donostiarrak lan berria kaleratuko du hurrengo astean: **@nogentaldea:** "Under Alt Etxea eraiki dugu Donostian. Disko berria eskuratzeko lehen aukera izango da. Gu bertan egongo gara egunero eta *merch* berria eta Nogen garagardoa ere bai".

Zaintza greba aldarrikatu dute

Traol erabilienean artean egon da asteen **#zaintzagreba:** **@jdiazjauregi:** "Zaintza ezin delako merkantilizatu. Gozatzeak, maitatzeak eta bizitzan laguntzeak sostengatzen gaituelako, gaur zaintza publikoa, unibertsala eta duina izatea aldarrikatuko dugu. Emakumeon borrokez harro **#ZaintzaGreba**".

ITURRI ONETIK

Gabonetara begira, kontzertu solidarioa

Mundukide Fundazioa gobernuz kanpoko erakundeak kontzertu solidarioa egingo du Gabonen aurretik, hasiera batean, abenduaren 24an eskaintzeko. Goiena telebistak parte hartuko du ekitaldi horretan. Lehen grabaketa azaroaren 27an egingo dute, Arrasateko Kulturateko klaustroan. Musika izango da oinarria, eta tartean izango dira Gabon kantak ere. Gonbidatu dituzte Euskal Herri mailako musikari profesionalak, baita nazioartekoak ere, saioan parte hartzeko.

ALBISTE IZAN ZEN



GOIENA

2005-11-12

Protestak Oñatin, gaztetxea bota ostean

Hamabost urte bete dira azaroaren 8an Oñatiko gaztetxea eraitsi zutenetik; Udalaren esanetan, segurtasun neurriak ez zituelako betetzen. Hori dela eta, prentsaurrekoak eta manifestazioa deitu zituen Oñatiko Gazte Asanbladak -azken hau, azaroaren 12an-. Andoni Gartzia alkateak "jarrera faltsua" erakutsi zuela adierazi zuten, eta gaztetxea edukitzeko eskubidea aldarrikatu zuten, manifestazio jendetsua egin.



D2030: IRITZIA

ITZIAR LARRAÑAGA / GOIENAKO KAZETARIA ETA D2030 EKIMENeko KIDEA

Euskara ere, komunikaziorako erronka

Duela pare bat urte ezagutu nuen gaur egun Debagoiena 2030 izena duen egitasmoa, eta, ordutik, komunikazio taldeko kidea naiz. Garai hartan, izen ofizialik ez zeukan, eta izena erabakitzea bera ere erronka bilakatu zen.

2020rako komunikazio plana zehaztu genuenean, ohiko kontzeptuak definitu genituen: helburuak, mezua, publiko objektiboa, kanalak... Eta, horrekin batera, irizpideak ere adostu genituen. Hasieratik garbi izan genuen irizpide bat izan zen euskara lehenetsiko genuela. Paperean ez du zalantza askorik pizten, baina zer da komunikazioan euskara lehenestea?

Hartu dezagun Twitter adibide moduan. Zer egiten dute Debagoieneko enpresa, elkarte eta erakundeek? Euskara hutsean komunikatzen dutenak alde batera utzita, ondorengo aukerak nagusitzen dira – jakin gabe euskara lehenestea helburu duten ala ez-: informazio guztia bi aldiz bota, lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz; txio berean bi hizkuntzak erabili, beti euskaraz hasita; hizkuntza bakoitzerako Twitter kontu bat ireki; mezua zuzentzen zaizen pertsonen arabera hizkuntza bien beharra dagoen ala ez erabaki.


Ziurrenik, kasu horietako askotan, euskara lehenesteko apustua egin nahi izan da, baina aztertu ditzagun. Txio guztiak bi bider botatzen baditugu, gerta litekeena da gehiengoak bata edo bestea ikustea, eta, ondorioz, euskararen lehenespena galdu egingo litzateke. Txio berean bi hizkuntzak erabiltzen baditugu, euskara gainetik jarrita ere, benetan eskaintzen ari garena aukera elebiduna

dela uste dut. Hizkuntza bakoitzerako kanal bat irekitzen badugu, erabiltzaileei gustuko dena jarraitzeko aukera ematen diegu, baina ez nuke esango euskara lehenesten dugunik. Azken aukera interesgarria ikusten dut, mezua helarazi nahi diogunaren arabera hartu hizkuntza erabakia. Baina hori ere paperean erraz ikusten da, eta gero, egunerokoan...

Planteatu dezakegun beste aukera bat kopuru zehatzak definitzea izan daiteke. Demagun Twitterreko txio guztien %80 euskaraz izango direla adosten dugula. Modu horretan euskara lehenesten dugula pentsatu dezakegu. Baina horrela al da? Twitter ez da hasi eta bukatu egiten den nobela bat. Tarteka kontsultatu daitekeen sare sozial bat da, batzuetan arinago eta beste batzuetan sakonago begiratu daitekeena. Baina zaila izango da benetan norbait Debagoiena 2030en profilean sartu, eta goitik behera guztia irakurtzea. Kontuaren jarraitzaile gehienek botatako txio horien lagin bat besterik ez dute ikusiko, eta ikusten duten hori euskaraz bota ez den %20 horretakoa ere izan daiteke.

Twitter adibide bat besterik ez da, baina zalantza berberak errepikatzen dira gainontzeko komunikazio kanaletan ere. Adibidez, martxan jarri berri dugun buletinean posta elektronikoko bidezko mezuak euskara hutsean

PAPEREAN EZ DAGO ZALANTZARIK, BAINA ZER DA EUSKARA LEHENESTEA KOMUNIKAZIOAN?



GOIENA

bidaltzeko hautua egin dugu, baina posta horretan bertan euskara-gaztelania bertsiora joateko aukera ere eskaintzen da. Hau da, lehen hitza beti da euskaraz, baina aukera elebiduna ere badago. Beste adibide bat da 2019ko azaroan egin genuen foroa. Izen-emate formularioan parte-hartzaileei galdetu genien ekitaldia euskaraz jarraitzeko gai ote ziren. Ia guztiek baietz esan zuten, euskaraz ez zekitenei xuxurlaria jarri zitzaizen.

TXIO BEREAN BI HIZKUNTZA ERABILITA, AUKERA ELEBIDUNA ARI GARA ESKAINTZEN

Teknologia, lagun

Euskara lehenetsi eta inor baztertuta sentitu ez dadin, teknologia bidelagun bikaina daukagu. Azken urteetan arrakastaz garatu diren itzultzaile automatikoak dira horren adibide. Google Translate-k eskaintzen zizkigun itzulpen lotsagarrietatik, emaitza benetan txukuna eskaintzen dutenetara egin dugu jauzia: *Batua.eus*, *Itzultzaile neuronala – Euskadi.eus/itzuli–*, *Itzultzailea.eus*, *Lingua*.

EUSKARA LEHENETSI ETA INOR BAZTERTUA SENTITU EZ DADIN, TEKNOLOGIA DA BIDELAGUN BIKAINA

eus/eu/itzultzailea... Testu idatzia irtenbide txukunik. Baina Euskal Herriko teknologia enpresak, komunikabideak eta administrazio publikoak badabiltza arlo horretan ere aurrerapausoak ematen. Eta gaur muga dena laster ez da izango. Horregatik, teknologia garatzen doan heinean, komunikazioak ere eraldatzen joan beharko du.

Debagoiena eskualde zabala da, eta D2030 egitasmoak guztiengana iristeko nahia eta erronka dauka. Hizkuntza handicap moduan ikus dezakegu, gure lana zaildu egiten duelako. Baina gure eskualdea hobeto ezagutzeko parada ere eskaintzen digu. Testatzeko nola lehenetsi dezakegun euskara inor baztertuta sentitu gabe, inor alden du gabe.

Irtenbide orokorrak bilatu baino gehiago, komunikazioa ikuspuntu komunitariotik garatu beharko dugu; Debagoieneko errealitatetik. Erronka globalei erantzun propioak eman nahi dizkiegula azpimarratzen dugu D2030 egitasmotik, eta, nire ustez, komunikazioak ere bide hori jarraitu behar du. Betiere, bidean zehar eraldatzeko gaitasuna izanik.

Bidean zehar ikasten eta probatzen goaz; horregatik, iritzi edota esperientzia ezberdinen berri izatea ere beti izango da aberasgarria: *komunikazioa@debagoiena2030.eus*.

Eskerrik asko
Osakidetzari

IBAN ARANTZABAL
ARANTZABAL ARRIETA FAMILIAREN
IZENEAN
ELGETA

Gehien behar genuenean kalitate handiko zerbitzua topatu dugu. Zorionekoak gu. Eskerrak talde humano guztiari eta, bereziki, Mikel Usandizagari, Jesus Millasi eta Iñaki Peñari. Aitak esan zuen moduan, "holako medikuek medizinak beste osatzen juek".

Egoera zaila da, baina
aurrera egingo dugu
elkarrekin

ITZIAR USANDIZAGA
DUINTASUNA ELKARTEKO KIDEA
BERGARA

Gizarte patriarkalak eman digun rolagatik, jendarteak zapalkuntza matxista onartuta dauka. Azaroaren 25a ikusarazteko aprobetxatzen dugun data da. Indarkeriak ez du adinik, baina adineko emakumeengan bikoiztu egiten dira txarrak. Ezinbestekoa da jabetzea egunero gertatzen diren indarkeria txikiez, indarkeria txiki hauetatik datozelako handiak, eremu guztietan, instituzioetan, egoitzetan, zaintzan, baita egunero familian eta gertukoan artean. Bidegabekeria asko ezin ditugu onartu, bizi guztian horrela izan direla esanez.

Arazo hau atera egin behar da pribatutasunetik publikora, ez dugu ikusi behar norberaren gauza denik, baizik eta sistemaren dela Horrek zapaltzen gaitu. Sistema osoa aldatu beharra dago. Jendarte honen egiturazko arazoa da. Ez litzateke emakumeen aurkako indarkeriarik egongo, ez balego sistema oso bat mikromatxismoen bitartez indarkeria hori sustengatzen duena.

COVID-19ak ezarri digun testuinguruak, neke pandemikoak, okertu egin du adinekoen osasuna eta ongizatea, beldurra areagotu du, bakardadea, nahigabea eta pobrezia. Hau ere indarkeria da. Zahartzaro duina berdintasunean oinarritu behar da, emakumeen eta gizonen arteko bizitza aktiboa eginda, eskubideekin eta adinkeriarik eta indarkeriarik gabekoa. Pertsona zaurgarriek ondo zainduak izateko eskubidea dute aukeratzen duten

tokian –ospitalean, egoitzetan, eguneko zentroetan, etxeko zerbitzuetan eta, nola ez, norberaren etxean–. Baita ere duintasunez hil ahal izateko eskubidea izan behar dute, azkeneko agurrari eta doluari tokia emanez.

Agur eta ohore, Inazio

FERMIN KORKOSTEGI SAIZAR
HERNANI

Hasi banaiz hasi, eguerdian, Inazio Arregi jesuita oñatiararen heriotza dela eta –nire aita zena lez–. Horretan denbora tarte luze samarra eman ostean, hara non Goiena komunikazio taldearekin egin dudana topo! Akabo, honek zuen bideo batera bideratu nau eta. Zer eta Milikua ostatuko Anjel Mari Milikua ezagunari eginikoa. Sekulako poza hartu dut, uda ugari igaro bainuen Arantzazuko Goiko Bentan. Bertan zebiltzan garai hartan

Jorge eta Itziar. Nik 10-12 urte izango nituen orduan, baina 14 apostoluak han zeuden, oraindino, lurrean etzanda. Bost axola niri horrek, jada harrapatu goitik behera ninduten eta.

Ettxera bueltan zatoz,
Josu!

KEPA ARKAUZ ZUBILLAGA
ARRASATE

Uf! Egun gutxi barru aske ikusiko zaitugu, bai, eta pentsatze hutsak barrenak mugitzen dizkigu. Emozio eta sentimendu ugarik zeharkatzen digute gorputza. 1982an utzi zenuen Arrasate, 38 urte jada, erraz esaten da. 1991n atxilotu zintuen polizia frantsesak, Baionan, eta harrezkero bahituta izan zaituzte. 29 urte kartzelan, kartzeletan. Guztira, 14 espetxe eta 27 espetxe-aldaketa. Beldurra ematen du 29 udak, 29 neguk pertsona batengan nola eragin dezaketen irudikatzeak. Urteek baino gehiago, baldintzek, jarrerak, egoerek: atxiloketa, isolamendua, epaiketak, itxialdiak, gose eta egarri grebak, Espainiaratzea, tortura basatiak... Hala ere, zuk honi guztiari irribarrez erantzun diozu, mala ostiaz baina determinazioz, duintasunez, hitz egiteko gogoz, kolektibo batekiko konpromisoz, askapen borrokarekiko arduraz, herri honekiko

zein gertukoekiko maitasunez. Egun gutxi barru aske ikusiko zaitugu, bai, ditudan 36 urteetan inoiz ikusi ez zaitudan bezala. Zure seme Txominek eta Unai 26 urte dituzte, eta beraiek ere ez zaituzte sekula aske ikusi. Kartzeletako hormen artean sortu ziren, zu bertan zintuztela hazi dira eta horrela ezagutu zaituzte orain arte, preso. Abestiak dioen bezala, *zai dago ama, zai aita*. Tamalez, aitaia duela bi urte joan zitzaigun, hor ikusi zintuzten askok azken aldiz. Amama Kristinak, ordea, 95 urte dituen arren, zu ikusteko zain dago, hori da bizitzari heltzeko bere modua. Berarekin batera zain dituzu Mila, Unai, Txomin, Ramon, Olatz, Ander, Itziar, Esther, Jone, Mikel, Ania, Manex, Niko eta familiako guztiak. Baita, urteak joan urteak etorri, astero bisitan hutsik egin ez duten denak. Urri hasieran atxilotu nindutenean, Tres Cantosko kalabozoetan berriez espetxea gertu ikusten nuelarik, neure buruari esaten nion ez nuela onartuko, ez niela utziko 29 urte pasa eta gero zu libre geratuko zinen unea elkarrekin ez ospatzea. Eguna iristear dago, eta batera egoteko aukera izango dugu. Beraz, gozatu dezagun! Gero gerokoak! Goxo etorri etxera, Josu!

Salaketa-gutuna
Eskertza-gutuna
Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna
Aldarrikapen-gutuna
Kexa-gutuna

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA





Arrasateko Iluntz tabernako terraza, hutsik, aste honetan. E.A.

Terrazetako inbertsioak diruz laguntzeko lerroa

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera eginiko inbertsioak lagunduko ditu Udalak. "%25 finantzatu da, gehienez, 2.000 euroko mugarekin enpresa edo aktibitate bakoitza". Terrazen azalera bikoizketa eta ordutegiaren zabalpena mantenduko dira 2021ean

Eneko Azurmendi ARRASATE

Arrasateko Udalak ostalaritza eta bestelako aktibitateek terrazetan egindako inbertsioak laguntzeko dirulaguntza lerroa jarri du abian. "Laguntzak Arrasateko establezimenduei zuzenduta daude, betiere, aktibitatea garatzen den lokalaren kanpoaldean jarritako instalazioak finantzatzeko jomugarekin. Hori horrela, laguntzaren onuradunak izango dira Arrasateko ostalaritza, eta baita ostalaritza aktibitatean zehazki ez daudenak baina lokal kanpoan terraza zerbitzua daukatenak".

Hala, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera eginiko material erosketak edo inbertsioak lagunduko ditu –toldoak, itzalkinak, manparak, altzariak, berogailuak...-. Udalak jakinarazi duenez, gehienez, inbertsioaren %25 finantzatu da, eta enpresa edo aktibitate bakoitzak 2.000 euroko muga izango du. Eskaerak aurkezteko epea abenduaren 21era arte egongo da zabalik.

2021ean, neurriak mantendu

Datorren urtean, pandemia garaian ostalaritza sektoreari begira hartutako hainbat neurri jarraipena emango die Udalak: "Hala nola terrazen bikoizketa eta ordutegien zabalpena mantenduko da". Terrazek espazio bikoitza erabiltzen jarraitu ahal izango dute, "inolako kostu gehigarririk gabe". Bestalde, terrazak irekitzeko ordutegia malgutu egingo dute 2021ean, pandemian onartutako zabalpena mantenduz. Hala, 07:30ean ireki ahal izango dute terraza, zerbitzuak emateko –orain arte, 10:00etan–.

Tasak ez dizkie kobratuko

Udalak gaineratu du azken hiru hilabetearen urtasaren zati

ABENDUAREN 21ERA ARTE IZANGO DUTE OSTALARIEK LAGUNTZA HORIEK ESKATZEKO AUKERA

finkoa ez diela kobratuko; hau da, urria, azaroa eta abendua. Zaborraren tasari dagokionez, azken bi hilabetei dagokien tasa ez die kobratuko –azaroa eta abendua–. Ostalariei eta elkarte gastronomikoei aplikatu ko zaie neurri hori.

Elkarteendako lerroa ere bai

Azkenik, Arrasateko irabazi asmorik gabeko elkarten inbertsioak laguntzeko dirulaguntza berria ere jarri du abian, "pandemiagatik beharrezkoak diren higie-ne neurri bereziak ezartzeko gastu eta inbertsioak finantzatzeko". Hau da, babes ekipo pertsonalak, espazioak higienizatzeko produktu eta ekipo bereziak, eta abar.

Azpitarratu duenez, programa horrek lagunduko ditu 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera eginiko gastu edo inbertsioaren %50, "gehienez jota, 500 euro elkarte bakoitzari".

Abenduaren 15era arte egin daitezke eskaerak, BAZen.

Musakolako igerilekuko beiratea konpontzen hasi dira

Itxita egon den epealdiko abonamenduaren zati proportzionala itzuliko die Udalak erabiltzaileei

E.A. ARRASATE

Urriaren 21ean izandako haizete gogorrek Musakola kiroldegiko igerilekuko beiratea erortzea eragin zuen. Ordutik, dio Udalak, "ahalik eta lasterren" zerbitzua berrezartzeko lanak bideratu ditu: "Perituen azterketa, aseguruaren txostena eta konponketaren zehaztapena".

Behin tramiteak eginda, azaroaren 12an egin zuten Gobernu Batzordeak Musakolako igerilekuko kristalera urgentziaz konpontzea onartu zuen, eta dagoeneko aste honetan hasi dituzte konpontze lanak.

Modu horretan, polikarbonatozko bi plaka jarriko dituzte, kristal bikoitzeko aluminiozko itxiturarekin. Udalak jakinarazi duenez, lan hauek 58.800 euroko aurrekontua dute, BEZik gabe. Hilabeteren buruan lanak amaitzea aurreikusten dute,

ostean ohiko jarduna berreskuratu ahal izateko.

Zati proportzionalaren itzulera

Urriaren 21az geroztik igerilekua itxita egon da. Hori dela eta, denbora tarte horretan herritarrei igerileku-zerbitzua eskaintzeko ahalegina egin duela nabarmendu du Udalak: "Tartean, inguruko herrietako igerilekuak erabiltzea aztertu genuen, baina COVID-19ak eragindako egoeragatik eta ezarritako segurtasun-mugengatik, ezin izan dugu halakorik bideratu".

Horren ondorioz, "erabiltzaileei igerilekua itxita egondako denborak eragindako kaltea arintzeko", epealdi horretako abonamenduaren zati proportzionala itzuliko die Udalak.

Gogoratu behar da 21:30ean ixten dutela kiroldegia, neurri murriztaileak direla eta.

Indarkeria matxista gaitzesteko, elkarretaratzea

Indarkeria Matxistaren Kontra Nazioarteko Egunaren harira, *Bakartzen gaituzten biolentzien aurrean, josi ditzagun sareak!* lelopean bi ekintza antolatu dituzte: batetik, azaroaren 25ean, elkarretaratzea egingo dute Herriko Plazan, 19:00etan, eta, ekitaldian parte hartzeko dei egiteaz gain, beltzez jantzita joateko eskatu diete herritarrei.

Azaroaren 26an, bestalde, *Florencia-Josefina Lamberto* dokumentala eskainiko dute, 18:30ean, Kuturateko areto nagusian, eta dokumentalaren egileekin berbaldia egingo dute ondoren. Azaroaren 27an, 28an eta 29an, bestalde, dokumentala online ikusteko aukera egongo da.

Emakume Txokoaz gain, Arrasateko Bilgune Feminista, Potto-gorriak, Arrasateko Emakumeon Mundu Martxa, Ekin Emakumeak eta Jaiki Gorputz Eremuak aritu dira antolakuntzan.

Sare sozialen eta bideo-jokoen gaineko hitzaldia Kulturaten

Arrasateko Udal Prebentzio Zerbitzuak antolatuta, sare sozialen eta bideo jokoen erabileraren inguruan hausnartzeko hitzaldiak egingo dituzte Kulturateko areto nagusian abenduaren 2an eta 3an, 6 eta 12 urte arteko haurren gurasoei zuzenduta.

"Egun, etxe gehienetan dago mugikor bat edota tableta bat, eta haurrak gero eta gazteago

hasten dira Internet, sare sozialak eta bestelako aplikazio berriak erabiltzen. Sarri, eduki digital hauek era kritikoan baloratzeko gaitasunik gabe kontsumituz eta barneratuz".

Hitzaldi bera euskaraz eta gaztelaniaz egingo dute. Hala, abenduaren 2an izango da gaztelaraz, 18:00etatik 20:00etara; eta 3an, berriz, euskaraz, ordu berean. Izen-ematea hilaren 30a baino lehen egin beharko da, udal webgunean edo 943 25 20 07 telefonora deituta.

Aurrerapausoak ematen segitu gura dute, bidean

Arrasateko Sarek antolatuta, eta Izan Bidea ekimenaren baitan, Txema Matanzas abokatuak hitzaldia egin du asteen Kulturaten. Azken urteetan espetxe politketan egindako aldaketez gain, herriko euskal preso eta deportatuen egoeraz egin du berba

Eneko Azurmendi ARRASATE

Abokatu ikasketak amaitu eta berehala hasi zen Matanzas euskal presoak defendatzen, eta oraindik ere horretan jarraitzen du. Sarek gonbidatuta, Kulturaten izan da asteen, "azken 20

bat urteetan euskal presoek dagoenien egon diren lege aldaketa nagusien" gainean hitz egiten, "aldaketa horiek eragin handia izan dutelako haiengan".

Matanzasek dio aldaketa horien artean azpimarratzekoak direla,

batetik, 1995ean egindako Zigor Kodearen aldaketa, "erredentzioak desagertu zirenekoa", eta, bestetik, 2003an indarrean sartutako 7/2003 Lege Organikoa, "horrek ezarri zituelako, batez ere, euskaldunei begirako baldintza bereziak, oso propio beraiatzat prestatutakoak".

'Parot doktrina'-ren sorrera

Arrasateko euskal preso eta deportatuen egoerak ere izan ditu hizpide. Unai Paroti dagoenez, esaterako, azaldu du "Estatua hasieratik" tematu izan dela "ahalik eta gehien" ordaindu dezan eta horretarako lehen saiakera izan zela gerora *Parot doktrina* izenez ezaguna dena. "2006an, asmatu zioten bigarren delitu bat, ordura arte existitzen ez zena. Horren gakoa da ordura arte ETako kide bat espetxean sartzen zutenean, ETakoa zela eta espetxealdiak irauten zuen bitartean, erakundearekin harremanetan jarri

arren, hori ez zela zigortzen. Soilik zigortu zitekeen berriz ETan sartzea edo ETan kolaboratzea espetxetik atera ostean. Halere, Unai, espetxean zegoela, berriro epaitu zuten, doktrina hori hautsiz, militante iza-teagatik, nonbait, Unai erakundera bidalitako ohar bat aurkitu zutelako. Bigarren militantzia horren ondorioz, 11 urteko kondena ezarri zioten".

Deportatuen egoeraz

Eugenio Barrutiabengoa eta Jose Manuel Pagoaga *Peixoto* deportatuen egoera ere jorratu du. "Itzuli daitezke, bai, baina erabateko ziurgabetasun juridikoan daude deportatuak, ez dakite haien kasuak preskribatuta dauden ala ez".

Ekintzaz betetako asteburua

Izan Bidea ekimenaren baitan, bihar, zapatua, manifestazioa egingo dute, 19:00etan, Seber Altubetik abiatuta, eta domekan Arrasateri bira, 10:30ean Monterondik abiatuta. Astelehenean, azkenik, Monteronen ekitaldia egingo dute, 19:00etan, "biziar-teko zigorrak salatzeko".

Astelehenean utziko dute aske Arkauz

Josu Arkauz euskal preso arrasatearra astelehenean utziko dute aske, ia 30 urte kartzelan egon ostean, haren senideek baieztatu dutenez. "Egun gutxi barru aske ikusiko zaitugu, bai, eta pentsatze hutsak barrenak mugitzen dizkigu. Emozio eta sentimendu ugari zeharkatzen digute gorputza", azaldu du familiak, gutun batean (Ikus 9. orria).

1991ko martxoaren 20an atxilotu zuten Arkauz, Frantzian, eta "ETako komandoen koordinatzaile izateagatik" 115 urteko zigorra ezarri zioten. Frantzian sei urtez preso egon ostean, 1997an Espainiaratu zuten. Duela hilabete, urri erdi inguruan, Murtziatik Valladolidera lekualdatu zuten.



Txema Matanzas abokatuak, eguaztenean, Kulturaten egin zuen hitzaldian. E.A.

Babarruna izango da produktu nagusia baserritarren azokan

Bihar, zapatua, egingo dute, eta hamabost bat ekoizle egongo dira, babarrunaz gain, askotariko produktuekin

E.A. ARRASATE

Babarruna izango da biharko baserritarren azokako produktu nagusia. "Urte arraroa joan da, ekoizpen aldetik ez da urte ona izan, salbuespenak salbuespen. Gainera, aurreratu egin da de-zente eta ez da ohiko ekoizpenik egon, baina bihar egongo da babarrunak erosteko aukera. Dagoeneko aletuta ditugu, eta saltzeko prest", azaldu du Agurtzane Diezek, Debagaraia Landa Garapenerako Elkarteko kideak.

Nabarmendu du Debagoiengan *Tolosako babarruna* izenez eza-

gutzen dena dela nagusi, beltza. "Horrez gain, zuria ere egoten da, eta beste gorrixka bat ere bai, *Arabako pinta* izenez ezagutzen dena. Hiru horiek dira Debagoiengan gehien landatzen direnak", dio Diezek.

Dastatzeko aukera

Zortzi bat kilo babarrun prestatuko dituzte, herritarrek dastatu ahal izateko. "Aurten urte zelebrea izanik, gure azokara etortzen diren baserritarrek babarrun beltza oso gutxi jaso dute, eta ez dugu lortu hori dastatzeko mo-

duan jartzerik. Beraz, hemengo babarrun zuria eta Arabako lautadatik etorritako ekoizle baten Arabako pinta izango dira dastatzeko", azaldu du Nerea Lazpiur udal teknikariak.

Bestalde, Hazi fundazioaren eskutik, 10 otzara zozkatuko dituzte. "Otzaran, aipatutako hiru babarrun motak egongo dira, baita pipermina ere".

Babarrunez gain, askotariko produktuak egongo dira: txorizoa, urdaia, azak, barazkiak, landareak, ogia, haragia, egurrezko tresnak, pastelak, eta abar.

Abenduan ere egongo da azoka

Aurten santamas feriarik ez da egongo, eta, beraz, abenduan ere baserritarren azoka egingo dute. "Ekoizleek baikor ikusi dute aukera hori, batzuen eskaera ere izan da, eta eskertuta daude".

Euskal Herria hobetzeko prest?

Bertakon emakumezkoen kirola, gutxiengoa, egokitua eta inklusiboa babesten dugu, elkarrekin Euskal Herri hobea eraikitzeko.

OROTARIKO ZERBITZUA

100 €- tik / hileko

Arrunta 70€- tik / hileko

Garaia Berrikuntza Gunea
20.500 Arrasate

943 903 450

info@bertako.eus

www.bertako.eus

Saharar herriari babesa berresteko mobilizazioa

Aurreko zapatuan egin moduan, Saharaldeba elkarteak elkarretaratzea deitu du, bigarren, Marokok Mendebaldeko Sahararekiko su-etena urratu izana salatzeke eta "1991tik atzeratu egin den autodeterminazio erreferenduma" gauzatzea eskatzeko

Eneko Azurmendi ARRASATE

Duela hilabete inguru, Saharar Fronte Polisarioko kideek protestak hasi zituzten Guergerateko gune desmilitarizatuan. "Mobilizazio horiek 2001ean Marokok Guergeraten legez kanpoko arrakala ireki zuela salatzen zuten, Nazioarteko Zuzenbidea urratuz. Izan ere, Nazio Batuen oniritzia duen Bake Akordioan (1988) eta Marokoren eta Fronte Polisarioaren arteko akordio militarretan jasotzen den bezala, Marokoko harresi militarrean ezin da pasabiderik ireki", adierazi du Sahara Euskadi mugimenduak.

Marokok protesta haiei indar erasoaldiekin erantzun ziela salatu dute. "Marokoko Erresumak indar militarrek bidali zituen Guergerateko legez kanpoko pasabidearen ekialdera, manifestazioak egiten ari ziren zibil sahararregana. Eraso hark Marokoko harresian zehar liskar batzuk hasi zituen, 29 urteren ondoren berpiztu zen gerra bat deklaratu".

Bigarren elkarretaratzea bihar

Debagoieneko Saharaldeba elkarteak deituta, elkarretaratzea egin zuten aurreko zapatuan, Arizmendiarieta plazan, eta salatu zuten 30 urtean egoera politikoa "geldi" egon ostean Marokok "su-etena bortxatu" zuela. "Hemendik aurrera, sahararrek Marokoren aurkako gerra egingo dute", adierazi zuten.

Herri sahararrekiko eta haren legezko ordezkari den Fronte Polisarioarekiko elkartasuna berresten dutela diote, eta zapatu honetarako beste elkarretaratze bat deitu. Hala, bihar berriz elkartuko dira Arizmendiarieta plazan, 12:00etan. "Saharar herriari babesa berresteko unea da, duela 45 urtetik bere lurraldearen okupazioa eta nazioarteko komunitatearen axolagabekeria jasaten ari baita".



Saharaldeba elkarteak aurreko zapatuan egin zuen elkarretaratzea. HASIER LARREA

ARIZMENDIARIETA PLAZAN EGINGO DUTE ELKARRETARATZEA, BIHAR, ZAPATUA, 12:00ETAN HASITA

Autodeterminazio eskubideaz

Halaber, Espainiako Gobernua-ri zera eskatuko diote: "Afrikar kontinenteko azken lurralde ez-autonoma deskolonizatzeko ardura bere gain hartzea". Horrez gain, beste eskaera bat ere egingo diote: zuzen dezala saharar herriaren autodeterminazio eskubidea aitortzen duen erreferenduma, MINURSOrekin batera (Nazio Batuen misioa Mendebaldeko Saharako erreferendumerako). "Nazio Batuen, erreferendumerako bere misioaren eta nazioarteko gainerako komunitatearen ekintza eza agerian utzi nahi dugu, Marokoren urraketa guztien aurrean".

Gatazka gertutik bizi dute

Haizea Fernandez arrasatearra- ren familiak Mohamed izeneko haur bat ekarri izan du Sahararik. "Ustekabeen harrapatu

ditu honek guztiak. Mohamed, anaia eta ama borroka hasi zen lekuan daude. Ezin izan dut haiekin hitz egin, baina Dagbarekin, arreba nagusiarekin, bai. Ondo daudela esan dit, baina kanpamentura itzuli gura dutela, euren burua arriskuan ikusten dutelako", azaldu du.

Felix Arriaran arrasatearra ere egoera berean dago. "Sekretupean dago informazio guztia eta ez dakigu ezer askorik. Dakiguna da borrokan ari direla. Etxeko nagusia, Fadel, soldadua da eta beti egoten da harresia zaintzen, kanpamentutik ia 1.000 kilometrorra. Anaia nagusia ere, Mahmoud, han egongo da honezkero, soldadu. Gure etxera etorri zen bigarren mutila, Yslem, momentu hauetan gaixo dago eta ez da joan, baina ahal duenean joango da".

Gaineratu du Sahara alboratu egin dutela Nazio Batuek eta nazioartekoak. "40 urte daramatzate basamortuan egoera eskasean bizitzen eta akordioak bete daitezzen aldarrikatzen; horien artean garrantzitsuena, autodeterminazio erreferenduma. Inork ez badu ezer mahai-gaineratzen, gerra ezinbestekoa izango da".



Iazko Jostailu Truke Merkatura, Biteri plazan. TXATXILIPURDI ELKARTEA

Abenduaren 12ko azokarako jostailuak batzen hasi dira jada

Txatxilipurdi aste honetan hasi da jostailuak jasotzen, eta bihar, esaterako, Arimazubi plazan egongo dira

E.A. ARRASATE

Haurren artean trukea sustatzea eta Gabonetara begira kontsumoa murriztea dira ekimenaren helburuak, eta baita jostailuei merzei duten garrantzia ematea ere, Txatxilipurdiko kide Arantza Osororen esanetan. "Haurrek asko ikasten dute jostailuekin".

Azaroaren 25ean eta 27an, Santa Marinako bibliotekan egongo dira jostailuak batzen; hilaren 28an, San Antolin parkean; abenduaren 3an, Herriko Plazan; eta abenduaren 4an eta 5ean, Seber Altuben eta Biterin -denetan, 17:00etatik 18:30era-.

Trukera bideratutako jostailuak egoera onean eta osorik egon beharko dira, eta, horrez gain, indarkeria sustatzen duten eta sexu bereizketa egiten duten jostailuak ez dituzte onartuko.

Azoka abenduaren 12an egingo dute, Biteri plazan, 11:30etik 13:30era.

Ausortu ekimena, udaberrian

Ausortu ekimena ere egitekoak ziren azaroaren 28an eta 29an, Eñaut Elorrieta musikariarekin, baina atzeratzea erabaki dute, udaberri aldera, testuinguruak gehiago lagunduko duelakoan.

GORA ETA BEHERA



HERRITAR BAT

San Josepe harrobi inguruak, zikin

Aurreko zapatu gauean, "San Josepe harrobitik ehun bat metrora", botila festa bat egin zutela eta inguruak zikin utzi zituztela kexatu dira herritar batzuk.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

"Eleberrietan mamira jotzen dut zuzenean"

ANE ODRIOZOLA IDAZLEA

Irakurzaletasunak bultzatuta murgildu zen, 2018an, misteriozko eleberrien idazketan legazpiarra. Arrasateko Biztanleen Arreta Zerbitzuan artatzetik ezagutuko dute askok

Hasier Larrea ARRASATE

La sombra de Gibola misteriozko bigarren eleberria argitaratu berri du Ane Odriozolak, *El secreto de Gibola*-ren bigarren zatia. Espero gabeko arrakastaren aparretan dabil legazpiarra aspalditxo igerian.

Amari promes bat egin zenion, eta baita bete ere.

Bai, noski! Lehenengo eleberria amari opari bat egiteko idatzi nuen, eta, bide batez, neure buuari gai naizela erakusteko. Kaleratu zenean, arrakasta eduki zuen, eta, ondorioz, bigarren bat idatzi dut. Hiru astean hiru edizio kaleratu dira.

Zer kontatzen du lehen eleberriak?

El secreto de Gibola bi denboratan kontatuta dago, lehen istorioa 2010ean eta bigarrena 100 urte atzerago. Lehenengoan, Nerea izeneko donostiar bat Legazpin bere aitonaaren izenean baserri bat dagoela konturatzen da, eta, jakin-minak bultzatuta, ikertzen hasten da. Bigarren istorioak aitonaaren eta haren familiaren benetako pasarteak kontatzen ditu. Amaieran, irakurlea ohartzen da ea Nereak uste duena egia den ala ez.

Eta bigarren eleberriak?

La sombra de Gibola-n, aitonaaren familiaren istorioa hartu eta 25 urteko saltoa ematen dut;



Ane Odriozola, eleberria eskuetan. A.O.

du horretan, eskaerak igo egin baitira ordutik.

Non eskura daitezke liburuok?

Arrasaten, Donde Jon eta Elkar dendetan erosi daitezke, eta Durangoko Azoka birtualean ere eskuratu ahal izango dira.

Biak Circulo Rojo argitaletxearekin plazaratu dituzu.

Bai; autoekoizpenerako argitaletxe bikaina iruditzen zait. Oso gustura aritu naiz beraiekin, azken lan honetan, bereziki, erraz eta bizkor moldatu bainaiz, aurretiko esperientzia lagun.

Saria eman dizute, gainera.

Bai; argitaletxeak sari banaketak egiten ditu urtero, eta *El secreto de Gibola*-k misteriozko eleberririk onenaren saria jaso zuen iaz. Amaia Albesen soineko dotorea jantzita agertu nintzen galan.

Norentzat idazten duzu?

Irakurtzeko ohitura handirik ez dutenengan pentsatu dut idaztean. Samurrak dira biak; deskribapenetara baino gehiago, mamira jotzen dute zuzenean.

Zoriondu al zaitu jendeak?

Loreak eta guzti ekarri dizkidan lantokira. Esker oneko hitz asko jaso ditut, eta horregatik bakarrik merezi du idaztea.

Egongo da hirugarren zatirik, beraz?

Bai; bigarrenaren aurkezpenekin amaitzean berrekingo diot.

Mendi Tourreko film onenak, Amaia antzokian ikusgai

Datorren asteartean, hilak 24, 'Harria herria', 'Nebola' eta 'Cholitas' filmak proiektatuko dira, 19:00etan hasita

H.L. ARRASATE

Besaide Mendizale Elkarteak beste behin ekarriko ditu BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia festibalean proiektatu ziren ikus-entzunezko piezarik esanguratsuena, 2019koak, herriz herri egiten den Mendi Tour emanaldi-sortaren baitan.

Ekitaldia "berez maiatzean egin behar zela" azaldu du Eñaut Iturbek, Besaide MEko lehen-dakariak, eta "Udalarekin egindako elkarlanak" ahalbideratu duela azaroan antolatzea. Herriko mendizale elkarteak aitzindaria izan da mendizaletasuna ardatz duen zine-jaialdi internazionalako film parte-hartzaileak gertuko publikoari eskaintzen, eta horretan jarraitzen du gaur egun.

Pelikulen aukeraketa "Mendi Film festibaleko sustatzaileekin" egiten dutela adierazi du Iturbek.

Aurten ohi baino ordubete lehenago hasiko da emanaldia: "Bi orduko iraupena zorrotz betetzea hobetsi dugu, ikusleak 21:00etan joan daitezten etxera", dio Besaideko lehendakariak. Gauzak horrela, iazko katalogoko bi film labur eta luze bat egongo dira ikusgai datorren asteartean: "Plater nagusia *Cholitas* dokumentala izango da, Boliviako bost emakume indigenen erronka kontatzen duena", aurreratu du Iturbek.

Mendi Tour-eko hurrengo geltokia "maiatzean, ohiko hilabetean", izatea espero duela gehitu du antolatzaileak.

Baltistan Fundazioari, saria

2020ko Mendi Film jaialdia abenduaren 4tik 13ra izango da, eta Aretxabaletako Baltistan Fundazioak *The Walk On Project* saria jasoko du bertan.

Arrasate Musikalek ez du emango Santa Zeziliako kontzertua

Herriko musikari taldeak domeka honetan programatutako emanaldia bertan behera lagatzea erabaki du, egungo osasun-egoera dela eta. Arrasate Musikaleko bandak urtero eskaini ohi du azaroaren 22an musikarien patroia den Santa Zeziliaren omenezko kontzertua San Franzisko elizan, eta aurten ere herritarrei musika-emanaldia

gerturatzeko asmoa zeukan, baina aste honetan bertan behera uzteko erabakia hartu du Arrasate Musikalek.

Era berean, Arrasate Musikaleko orkestrak beste kontzertu bat zeukan antolatuta datorren ostiralerako, baina hura ere suspenditu egingo da, arrazoi berberak tarteko.

Azkenik, herriko musikari elkartetik adierazi dute "denontzat berme nahikoa dagoenean eta egoera hobetzen denean" itzuliko direla oholtzara.

arbolapeta

arrasate

MEG
Garbiketak

DEITU KONPROMISO BARIK

Atariak	Tabernak
Bulegoak	Kristalak
Etxebizitzak	Fatxadak
Elkarte gastronomikoak	Teilatu-hodiak

686 57 67 83 Adolfo • 619 17 32 86 Maria Elena

Siti Siti

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



Aramaioako dira baserri horiek; Otxandio eskolaren ondoan daude. MIREN IBABE

Bostehun urtetik gorako auzia

Jose Mari Velez de Mendizabalek Aramaiok eta Otxandio 'limitado'-aren harira duten auziaz dihardu 'Hots begi danbolinak' blogean. 1457an, otxandiarrei lur zati baten erabilera betirako utzi zien Elvira Leybarrek. Haren jabegoa dago auzitan gaur egun

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Aramaiok eta Otxandio bostehun urte baino gehiago irauten duen auzia dute esku artean. Hala azaldu du Jose Mari Velez de Mendizabalek *Hots begi danbolinak* blogean. *El limitado* da auzia: seiehun hektareara iristen ez den lur eremua da, eta haren jabegoa dago auzitan.

Velez de Mendizabalek dio auziaren sorburua 1457an dagoela: "Elvira Leybarrek, 1448an Arrasaten hildako Aramaioko jauntxoaren alarguna zenak, eta haren seme Juan Alfonso Mujika Butronek dokumentu bat sinatu zuten. Dokumentu haren bitartez, *limitado*-ko lurak Otxandiarrei utzi zizkieten erabilera, betirako. Sekula ez zuten jabetza transmititu; fruituak jasotzeko utzi zieten lur zatia". Seiehun hektareara iristen ez den lur zatiak Abadiñorekin,

Legutiorekin, Otxandioarekin eta Aramaiorekin egiten du muga.

Aramaio Bizkaira?

"Historian zehar ahalegindu izan dira irtenbide ezberdinak bilatzen: XX. mendearen hasie-


ran, esaterako, Gipuzkoako Foru Aldundiak egin zuen epaile lana eta Aramaiori eman zion arrazoia. Gertatzen dena da Bizkaiak ez zuela erabakia onartu", azaldu du Velez de Mendizabalek. Izan ere, bi herrien arteko auzia



Limitado-an dauden mugarriak. 'EL CORREO'

Non kokatzen da 'limitado'-a?

ITURRIA: JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL.



bakarrik ez, bi aldundien artekoa ere bada auzia.

Hots begi danbolinak blogak beste bitxikeria bat ere badakar: Aramaio Bizkaira eroateko ahallegina. *"El anunciador Vitoriano"* egunkariak, 1887an, Aramaio Bizkaira pasatzeaz dihardu; bitxikeria horri buruz gehiago jakin guran, Aramaioko Udaltetaren begiratu nuen. Urte bereko martxoaren 20ko aktan irakur daiteke batzar bat egitekoak zirela Oletan, martxoaren 28an, baina, egia esan, ez dut aipamenik aurkitu batzar hura egin zen edo ez ziurtatzeko", dio Velez de Mendizabalek.

Auziak hainbat buruhauste sortu zizkien garaiko agintariei; izan ere, aramaioarrak kexu ziren *limitado*-koak ez zituztelako zergak ordaintzen, eta, haiek ordaindu ezean, aramaioarrak ere ez zituztela ordainduko mehatxu egin zuten –1887ko uztailaren

lehenean Domingo Uribarrenek alkatetza utzi eta Ildefonso Mondragonek hartu zuen kargua–.

Herriko historia gogoan izatea

Auziari irtenbide zaila ikusten dio Velez de Mendizabalek; hala ere, gaia gogora ekarri nahi izan du, aramaioarrak herriaren historia ezagutu dezaten. Izan ere, Otxandion, irailaren lehenengo aste bukaeran, mugarriak ikusi eta aldarrikapena egiten dute: 1754an hasi zuten ohitura gaurdaino iritsi da. *Basabisitta* egitea du izena eta mugarriak bisitatzen dituzte.

Irtenbidea eman guran

Lierni Altuna alkateak ere konponbide bat nahiko luke; batez ere, han bizi den jendearen erosotasunagatik: *"Limitado*-koek Aramaion bozkatzeko dute, baina hango lurretan zerbait egin nahi izanez gero bi udalei eskatu behar zaie baimena...". Badago nolabaiteko tratua bat: higiezin eta landa-lurren zergak ordaintzeko, errekek egiten du muga: alde batekoek Otxandion ordaintzen dute eta beste batekoek Aramaion. Ea, bada, auziak ez duen beste bostehun urte hartzen.

**1887KO
EGUNKARIETAN,
ARAMAIO BIZKAIRA
PASATZEAZ HITZ
EGITEN ZEN**

Filmetako eszenei ahots propioa jartzearen grazia

Pelikula ezagunen pasarteak umoretik birsortzen adituak dira dagoeneko aramaiorrek, aurten hirugarrenez parte hartuko baitute herri-mailako bikoizketa txapelketan; ikuskizuna datorren ostiralean taularatuko da, kultura etxean

Hasier Larrea ARAMAIO

Aurreko bi edizio arrakastatsuren ostean, bueltan da herri-mailako bikoizketa txapelketa; oraingoan, Aramaioko Euskalrdiaren talde motorraren eskutik. Datorren asteartera arte eman ahalko da izena, udaletxean edo liburutegian, eta taldeak bi, hiru edo lau kidez osatuta egongo dira. Zuzeneko ekitaldia hilaren 27an, ostirala, izango da, kultura etxean, 17:30ean hasita, eta edukiera mugatua egongo da. Ondorioz, txapelketa ikus-teko tokia hartu beharko da aurrez liburutegian.

Lehiaketa hiru adin-tartetan sailkatuko da: 10 eta 12 urte artekoak, 12tik 20ra bitartekoak eta 20tik gorakoak. Taldeetako partaideek ez dute zertan adin-talde berekoak izan, eta nahastuta baleude, kategoria batean edo bestean kokatuko lituzkete.

Apropox Sormen Iturriko Iurgi Etxebarría antzerkigilea arduratu da, beste behin, aramaiorrei lehiaketan parte hartzeko formakuntza eskaintzeaz. Aretxabaletarrak gazteenekin bikoizketa menperatzen ikasteko saioak egin ditu San Martin herri eskolan, eta beste bi adin-multzoei Zoom bidezko ikastaro laburra jasotzeko aukera eskaini die asteen.



2019ko bikoizketa txapelketaren momentu bat. IURGI ETXEBARRIA

Aramaiorrek bikoizketa lehiaketaren eguna heltzeko "irrikaz" egoten direla azpimarratu du Etxebarria: "Ondo pasatzeko eta umorea lantzeko aukera itzela ematen duen ariketa izan ohi da, parte-hartzaileek herri-mailako kontuak sartzen baitituzte testuetan".

Publikoak bat-batekotasuna eskertzen duela ez du zalantzan jartzen antzezleak: "Taldeen aukeratzeko duten eszenaren elkarrikeriketa prestatuta badakarte ere, zuzenekoan sortzen den giroak inprobisaziora jotzeko

atea irekitzen die". Horregatik, dio "ekitaldi herrikoia eta atsegina" dela.

Sariketarako irizpideak

Epaimahaiak ahotsaren sinkronia, testua eta publikoaren erantzuna hartzen ditu kontuan lanak baloratzean. Adin-multzo bakoitzean batez besteko onena lortzen duen taldeak irabazten du saria, beraz: gazteenek Hontza Extrem-era joateko sarrerak, ertainek 75 euroko txartelak eta nagusiek jatetxe batean gastatzeko 80 euroko bonua.



NIRE USTEZ

PERU ABARRATEGI BERTSOLARIA

Badut ezagun bat

Badut ezagun bat, Aramaiokoa, 23 urte inguru izango ditu. Atzo elkartu nintzen berarekin eta pasa den larunbatean egin zituen planak kontatu zizkidan. Mendira joan zen goizean; Orixol tontorrera, zehazki. Musukoa jantzi eta Aramaio edo mugakide dituen herrietatik irten gabe egin zuen ibilbidea, arnasari buelta eman ezinik baina musukoa ahotik kendu gabe. Bazkaldu eta gero, lagunekin geratu zen herriko parkean; nahiz eta taberna zuloa gustatu, ez dira garai onak tabernariei elkarrikeriketa luzeak ematen dizkieten horientzat. Klean alkohola edatea debekatu dutenez, Coca-Cola lata bat hartu eta parkera abiatu zen; a ze disgustua hartu zuen iritsi eta sei lagun zeudela ohartu zenean. Goibel samar, bere lata hartu eta beste mahai batera joan zen, norbait agertuko zen esperoan. Afaltzeko, nahiz eta larunbata izan, etxera, eta sabela ondo bete ostean azken bueltatxoa kaletik. Oraingoan, zorte gehiago izan zuen, bost lagun zituen itxaroten. Hamarrak bost gutxiagotan autoa hartu eta etxera, bakarrik, beste burbuila bateko kiderik gonbidatu gabe. Kondairak dio lehen euskalduna izan zela egun osoan arau bakar bat ere hautsi ez zuena.

'Harira' saioan izango da martitzenean Lierni Altuna alkatea

Azaroaren 24an, martitzena, Lierni Altuna alkateari elkarrikeriketa egingo dio Eneko Azkarate aurkezleak Goiena telebistako *Harira* saioan. Emankizuna 21:30ean eta 23:30ean emitituko da egun berean. Goienaren webgunean ere ikusi ahalko da saio osoa, *Telebista* azpiatalean sartu eta *Harira* saioan klikatuta.

Aramaiorrek galderak eta zalantzak partekatu ahalko dituzte alkatearekin, bi euskarriren bitartez: *berriak@goiena.eus* helbidera idatzita edo 688 69 00 07 telefonora *whatsapp* bat bidalita. Ekarpene horiek datorren asteleheneko 21:00ak aurretik bidali beharko dira.

Arabako bideo-rally lehiaketan parte hartzera deitu dute

ArabaXpress lehiaketa, bertikalean grabatutako bideoen lehen rallya, izango da azaroaren 26tik 28ra bitartean. Helburua da Tik Tok eta Instagram plataformak erabiliz sormena eta irudimena sustatzea.

Interesdunek lehiaketa hasiera-eguneko gauerdira arte izango dute izena emateko aukera, *info@arabaxpress.com* helbidera idatzita. Ikus-entzunezko piezak antolakuntzak emandako gai jakin bat oinarri hartuta egin beharko dira. Gai hori ostegunean bertan, 18:00etan, bi sare sozial horietan jakinaraziko dute antolatzaileek, *@araxpress* kontuaren bidez. Informazio gehiago, Udalaren webgunean.

GOIENA TELEBISTA
UDAZKENEKO
PROGRAMAZIOA



ORAIN ERE,
%100 EMATEN

ARAMAIOZ, LIERNI ALTUNAREKIN

'HARIRA'
AZAROAREN 24AN, MARTITZENEAN, 21.30EAN ETA 23.30EAN
ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA

GALDERA:

BERRIAK@GOIENA.EUS

688 69 00 07

GALDERAK ASTELEHENEKO 21:00AK
BAINO LEHEN BIDALI BEHARKO DIRA



goiena
20 URTE ZUEKIN.



Otalora kalea eta udaletxeko balkoian jarri duten aforatzailea. MIRARI ALTUBE

Ibilgailuen neurgailua jarri dute Otalora kalean

Kale horretatik pasatzen den auto kopurua neurtzeaz gain, haien abiadura ere erregistratuko du, matrikulak irakurri gabe. Herriko beste kale batzuetan ere jarriko dute aurrerago, herriko zirkulazioaren egoera egiteko

Mirari Altube ARETXABALETA

Aforatzaile bat jarriko du Udalak Otalora kalean, erdigunetik pasatzen diren ibilgailuen portaera aztertzeko. Sistema horri esker, trafikoaren ezaugarriak ezagutu ahal izango dira, ibilgailu kopurua eta mota zehaztuz –autoak, kamioiak, motorrak eta bizikletak–, eta baita zirkulazioaren batez besteko abiadura ere. "Udaletxeko balkoian jarri dugu gailua lehenengo probak egiteko", jakinarazi du Unai Elkoro alkateak, eta gaineratu: "Datu asko emango dizkigu. Hala, zirkulazioaren gaineko erabakiak hartu behar ditugunean, datuetan oinarrituta izango dira".

Kopurua eta abiadura neurtu

Neurgailua astelehenetik domekara bitartean egongo da martxan, 24 orduz, trafiko gehien duten egunak eta orduak ere ezagutzeko. Udaletik jakinarazi dute aforatzaileak ez duela matrikula-irakurgailurik; beraz, ez

direla ibilgailuak identifikatzen. Helburua trafikoaren parametroak neurtzeko datuak biltzea dela zehaztu dute.

Lehen neurketa Otalora kalean egin ostean, Udalak aforatzailea beste toki batzuetan jarri gura du. "Abiadura neurtzea ere interesgarria izango da. Kexak izan ditugu horren harira, eta horrela jakingo dugu gehiegizko abiadurarekin gidatzen den edo ez", dio alkateak.

HAPOn prozesu barruan

Udaleko Plangintzako zinegotzi Ion Albizuk azaldu du neurketaren helburua: "Herriko trafikoaren portaeraren argazki orokor bat izatea, kaleetan jasotako datuekin mapa bat egitea".

**ASTELEHENETIK
DOMEKARA
BITARTEAN EGONGO
DA MARTXAN GAILUA,
24 ORDUZ**

Datorren urtean hasiko direla neurketa zehatzak egiten gaineratu du: "Egia da egoera honetan jasoko ditugun datuak zenbatekrainoo fidagarriak diren ez dakigula. Domekan, esaterako, 23:00etatik 05:00etara auto bakarra pasatu zen Otaloratik".

Neurketa hau Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) egiten hasi aurreko prozesuaren barruan sartzen da. Lurzuaren erabilerak arautzeaz gain, hiri-hazkunderaren eredia ezarriko duen udal araudia da HAPO. Lehen pauso moduan, Plan Orokorra diagnostiko faseari ekingo dio, eta, besteak beste, udal-erri barruko mugikortasuna aztertuko dute.

HAPOren lehen fase hori agintaldi honetan bukatzea da asmoa, eta, urtea uste bezalakoa ez izan arren, hasieran ezarritako epeak beteko dituztela uste du Albizuk. Horren barruan dagoen parte-hartze prozesua moldatu egin beharko dutela egoerara gaineratu du.

Herritarrei deia azaroaren 25eko elkarretaratzearekin bat egiteko

Mugimendu Feministak eta Udalak gonbidatu dituzte eguaztenean Herriko Plazan egingo den bilkurara

M.A. ARETXABALETA

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra agertzeko egunean, azaroaren 25ean, elkarretaratzea egingo dute Herriko Plazan (19:00). Herriko Mugimendu Feministak eta Udalak egin dute bat, eta herritarrak ere ekitaldi horretara batzera gonbidatu dituzte.

Udalbatzak, hain zuzen, joan den astean egindako ohiko osoko bilkuran aho batez onartu zuen adierazpen instituzionala, eta hainbat konpromiso hartu zituen horren bitartez.

Pikarraituz-en ekitaldiak

Pikarraituz Asanblada Feministak ere hainbat ekitaldi antolatu ditu. Bihar, zapatua, buruberoki tailerra izango da Durana kalean (16:00), eta eguaztenean, Aretxabaletako neska gazteen elkarretaratzea egingo dute, lehenengo, Mitarte plazan (18:30), eta gero, Herriko Plazara joko dute, bestearekin bat egiteko. "Isilik eta etxean nahi gaituzten honetan, ozen aldarrikatuko dugu normaltasun heteropatriarkalaren aurrean kaleak hartuko ditugula!", adierazi dute.



KARMELE URIBESALGO

Herbarioa, alkateari aurkeztuta

Herrian jasotako hostoekin herbarioa osatu dute Arizmendi ikastolako Basabeazpi guneko 5 urteko neska-mutikoeak, eta hori Unai Elkoro alkateari aurkeztu diote. Herriko 50 bat zuhaitz mota sailkatu dituzte, eta horren berri eman diote 40 bat umek. Gainera, mojen komentuko lorategiko zuhaitzak identifikatu dituzte eta izenak jarri dizkiete txarteltxoetan.

Ro taldearen kontzertua gaur, Euskaraldiaren baitan

Euskaraldiari hasiera emateko, Ro talde azkoitiarraren post-rock doinuak izango dira gaur, egubakoitza, Arkupen (19:00); sarrera 5 euro da. Azaroaren 27an, ostera, Oihana Aranek *Portuak* liburua aurkeztuko du (19:00). Eta abenduaren leian, *Erradikalak ginen* antzezlan eskainiko dute (19:00). Bi horiek ere Arkupen izango dira.



Bonu kanpaina, indartuta, guztiei laguntzeko asmoz

Udalak Gabonetako bonuen kanpaina indartuko du aurten, herriko komertzioen kontsumoa sustatzeko. 1.000 txartel jarriko dira salgai, iaz baino 600 gehiago, eta sistema bera erabiliko da. Urtarrilaren 5era arte gastatzeko aukera izango da

Imanol Beloki ARETXABALETA

Gabonak ate joka dauden hone-tan, Aretxabaletako Udalak Gabonetako bonu kanpaina indartuko du aurten. Hala, 1.000 bonu jarriko dituzte salgai, herriko kontsumoari bultzada emateko asmoz. Iaz baino 600 txartel gehiago izango dira herriko sal-tokietan erabilgarri, eta sistema bera izango da; hau da: herritarrek 20 euro ordainduta, trukean, 30 euroko bonua jasoko dute, dendetan gastatzeko. Txartelak Arkupe kultura etxean jarriko dituzte salgai datorren astean.

Ondorio ekonomikoak arintzeko

Berrikuntza gisa, aurten txartelak herriko establezimendu guztietan kontsumitu ahal izango dira, eta ez soilik Aretxarte elkarteko bazkide diren negozioetan. Horrela, Udalak Aretxabaletako merkatari eta ostalari guztiei lagundu nahi die, ile-apaindegiei, estetika zentroei eta herritarrei zerbitzuak ematen dizkieten beste negozioei.

Guztira, kanpaina honetarako 10.000 euro bideratuko ditu Aretxabaletako Udalak, jarduera ekonomikoa sustatu eta suspertzeko eta COVID-19aren krisiak eragindako ondorio ekonomikoak arintzen laguntzeko. Eta, bonu guztiak salduz gero, 30.000 euro



Aretxabaletako Durana kalea iluntzean. IMANOL BELOKI

izango direla zirkulazioan adierazi dute udal ordezkariak.

Komertzio guztietan erabilgarri

Azaroaren 30eko astean ipiniko dituzte salgai bonuak, Arkupe kultura etxean, eta Gabonak amaitu arte gastatu ahal izango dira. Hain zuzen ere, urtarrilaren 5era arte. 16 urte gorakoei zuzenduta dagoen egitasmoa da, eta bonu bat pertsonako erosi ahal izango da.

Horrekin batera, Udaletik jakinarazi gura izan dute kanpaina honetan ez direla sartzen

farmaziak eta tabakoa eta loteria saltzen dituzten herriko establezimenduak. Horrenbestez, horietan ezingo da bonurik erabili.

Neguko azoka abenduaren 19an

Bestalde, neguko azokari eutsi egingo diote, baina egun bakar batera mugatuta, abenduaren 19an. Lekuz aldatuko da, eta, Herriko Plazan izan beharrean, postuak Durana eta Mitarte kaleetan jarriko dituzte herriko artisau, ekoizle eta merkatari aretxabaletarrek.

Bertako paisaien irudikapen landuak Mujikaren erakusketan

Bederatzi koadroz osatutako erakusketa azaroaren 30era arte egongo da ikusgai Arkupe kultura etxean

I.B. ARETXABALETA

Gurutze Mujika aretxabaletarrak pintura erakusketa jarri du ikusgai Arkupe kultura etxean. Bederatzi koadroz osatzen dute erakusketa, eta, olio mihise gaineko teknika erabilita, paisaia ederrak irudikatu ditu; gehienak, inguruetakoak. Erakusketa azaroaren 30era arte egongo da ikusgai.



Gurutze Mujika margotzen. GURUTZE MUJIKA

Inguruko paisaiak

"Erakusketa programatu gabekoa izan da, baina gustura geratu naiz. Jarri ditudan lan gehienak formatu handikoak dira, eta paisaien irudikapenak dira egin ditudanak. Udazkena asko marrazten dut, eta, beraz, udazken koloredunak eta elurtutakoak dira bertan ikus daitezkeen lan gehienak. Urbiako bide bat, Degurixa, Urkulu ingurutik Hiruatx ikusten dela..."

Astegunetan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara eta zapatuetan 11:00etatik 13:00etara bitartean egongo da aukera Gurutze Mujikaren erakusketa ikusteko Arkupen. Domeketan eta jaiegunetan, berriz, itxita egongo da.


Giza katea egingo dute Portasoldik Herriko Plazaraino

Bihar, zapatua, giza katea egingo du Aretxabaletako Sarek, Izan Bidea ekimenaren baitan. 18:30ean hasita, Portasolgo autobus geltokitik irten eta Herriko Plazarainoko bidea egingo dute bertan batzen direnek.

Presoen aferan konponbide bat lortzeko asmotan egin du giza katerako deialdia Aretxabaletako Sarek. Besteak beste,

salbuespen legedia bertan behe-ra uztea eskatuko dute.

Sareko kideek azpimarratu dutenez, osasun neurriak "zorrotz" beteko dituzte katea egingeko, eta, dena behar bezala bermatzeko, 15-20 boluntario inguru ariko direla lanean adierazi dute. Hori horrela, giza katea hiru zutabetan joango dela jakinarazi dute, eta parte hartzaileen artean bi metroko distantzia mantenduko dutela gaineratu, parte-hartzaileei lasaitasun mezua helarazteko asmoz.



Odontologia estetikoa
Endodontzia
Implantologia

Ortodontzia
PADI zerbitzua
Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55

Jendaurrean jarri eta gutxira, guztiak salduta

Eskoriatza Bizirik kanpainak arrakasta itzela izan du. Izan ere, hirugarren fasean, 1.000 bonu atera, eta bost egunean saldu dituzte guztiak. Hala, orain artekoak aztertu eta aurrera begirakoetan pentsatzeko ordua dela adierazi dute udal ordezkariak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatza Bizirik kontsumo bonuen kanpainaren hirugarren faseko 1.000 bonuak bost egunean saldu dira. Eskoriatzako Udalak jakinarazi du "arrakasta handia" izan duela egitasmoak, eta, orain, gehien saldu diren komertzioen azterketa egingo duela, feedbacka jasotzeko, aurrera begira "kanpaina eraginkorragoa" egiteko helburuarekin.

Ostalaritzako establezimendu, fisioterapia edo osteopatia zentro, ile-apaindegi edo estetika zentro eta janari denda batzuetan eta liburu denda erabili ahal izan dira bonuak. Hain zuzen ere, bonuak hartzen dituzten komertzio edo zerbitzuetako establezimenduek bonuak hartzen dituztela identifikatzeko kartela izan dute jarrita, eta "oso pozik" daude izan duen harrerarekin.

Emailtzak aztertzeako ordua

Azaroan, hirugarren faseko bonu urdinen salmenta martxan jarri berri, bi egunean 590 bonu saldu zirela adierazi du Udalak, eta, orokorrean, komertzio guztietan izan dutela harrera beroa adierazi du Antonio Regaño zinegotziak: "Carmen mertzerian, Oreka bizikleta denda eta harategi eta ile-apaindegi



Ibarraundi museoko atean, bonuak bukatu diren oharra jarrita. IMANOL BELOKI

BONU KANPAINAREN HIRUGARREN FASEKO BONU URDIN GUZTIAK BOST EGUNEAN SALDU DIRA

guztietan izan dute, batez ere, harrera oso ona. Orain, balorazioa egingo dugu, eta aurrera begirakoak planteatu. Honekin batera, herritarrei jakinarazi gura diegu bonu guztiak saldu direla, eta komeni da

abisatzea, Ibarraundira bonu bila ari delako joaten".

Gabonetako apaingarriak

Bestetik, Gabonetako apainketa lehiaketa antolatuta du Udalak. Tailerra 6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago; bi egunetan egingo da, azaroaren 24an eta 26an, 17:00etatik 18:00etara bat eta 18:15etik 19:15era bigarrena. Tortolis ludotekakoak arduratuko dira tailerraz, eta, hain zuzen, birziklatutako materialarekin apaingarriak egiten arituko dira.

Hondakinak jaso, garraiatu eta deuseztatzeko tasa, %95 jaitsita

Ezohiko bilkuran bi puntuak aho batez onartu arren, EH Bilduk dirulaguntza gehiagoren beharra aldarrikatu zuen

I.B. ESKORIATZA

Ezohiko osoko bilkura telematikoa egin dute Eskoriatzako udalbatzako kideek, eta bi puntu onartu dituzte, aho batez. Hiri hondakin solidoak jaso, garraiatu eta deuseztatzeko Mankomunitateko zerbitzuaren tasa arautzen duen ordenantza fiskala aldatzea, batetik. Eta Bizigune programaren kudeaketa Suradesaren esku uzteko erabakiaren indarraldia luzatzea, bestetik.

Hiri hondakinen gaineko puntuari dagokionez, EH Bilduko Eluska Irazu bozeramaileak adierazi zuen ondo iruditzen zaiela %95eko jaitsiera aplikatzea, baina laguntza gehiago ere eskatu zituen, bide batez: "Momentu honetan egoera latzena beraiek ari dira pasatzen sektore ekonomikoei dagokienez. Hala ere, dirulaguntza ekonomiko guztiak onak dira, baina uste dugu gehia-

go ere onartu beharko genituzkeela urtea amaitu aurretik, ostean, epe motz edo ertainera begira..." gauzak aldatzen ari direla azpimarratuta.

Honen aurrean, Josu Ezkurdia EAJko bozeramaileak bere harridura erakutsi zuen: "Ematen du Bildu beste herri batean bizi dela. Azaro bukaeran dirulaguntzak martxan jartzea ez zai gu serioa iruditzen, non duela bost hilabete martxan jarri genituen kopuru handiekin. Eta, dirulaguntza programak zabalik egonda, orain hau eskatzea ez da serioa. Gainera, ez zarete batzordeetara etortzen, ez duzue proposamenik egiten, zenbatekoa, norentzat, ez duzue kalkulatu diru hori daukagun ala ez... Benetan, nahi baduzue, egin proposamenak, ondo aztertu, lan egin, eta aurkeztu proposamen zehatzak..."


Udalak kiroldegian dauden 18 garaje plaza alokatuko ditu

Manuel Muñoz kiroldegi azpian dauden garajeak errentan esleitzeko prozesua jarri du martxan Eskoriatzako Udalak. Guztira, 18 garaje plaza alokatuko ditu, eta kontratuaren iraupena bost urtetakoa izango da.

Esleipenaren baldintzak jakinarazteaz batera –Eskoriatzako udal webgunean ikusgai–, aurkeztu beharreko agiriak zeintzuk


diren jarri du Eskoriatzako Udalak jendaurrean. Eta, horrekin batera, esleipendunek bete beharko dituzten baldintza zehatzak ere zeintzuk diren ezarri dituzte.

Eskaerak aurkezteko azken eguna azaroaren 27a izango da, eta eskaerak udaletxean aurkeztu beharko dira. 09:30etik 14:30era bitarteko ordutegian, 943 71 44 07 telefono zenbakira deituta, udaletxera, edo, 650 49 51 65 zenbakira *whatsapp*-a bidalita.



JAVI ALTUNA
ALTUNA ANAIK HARATEGIA

"Pozik gaude bonuekin. Beharrezkoa da halakoak egitea herritarrek mugitzeko, eta beraiek, gu bezala, gustura aritu direla esango nuke".



ARANTXA RUIZ
CARMEN MERTZERIA

"Denbora da bonuek hain ondo ez zutela funtzionatzen. Urtean hainbat kanpaina egitea oso ondo legoke, dena hain jarraian barik, baina oso pozik gaude".



ITZIAR OYARZABAL
KIMU ILE-APAINDEGIA

"Gurean asko erabili dira. Bezera asko hemendik pasa ostean berriz etorri izan dira bonuak erabiltzera. Iniziatiba oso ona izan da".



Geratu gabe, saskibaloia praktikatzen gogoz

'Aresko Non Stop' Gabonetako saskibaloia antolatu du Eskoriatza Kirol Elkarteak abenduaren 28rako, 29rako, 30erako eta 31rako. Astelehenetik zabalik dago izen-ematea, eta plazak mugatuak izango direla adierazi dute antolatzaileek

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gabonetako *Aresko Non Stop* campusa abenduaren 28an, 29an, 30ean eta 31n izango da Eskoriatza Kiroldegia eta Aretxabaletan (Ibarra kiroldegia). Prezioa 90 eurokoa izango da, plaza mugatuekin, eta izen-ematea zabalik dago astelehena ezker, azaroaren 27ra bitartean.

Amateur eta 'skills' taldeak

Bi multzotan banatuko da saskibaloia campusa. Batetik, amateurrena, (2008-2012) Ibarra kiroldegian gauzatuko dena. 09:00etatik 11:00ak arte saskibaloia hastapenak eta psikomotrizitatea landuko dute. 11:30etik 12:45era bitartean, banakako teknika. Eta 12:45etik 13:15era, saskibaloia oinarritzeko arauen hitzaldia izango dute, Gipuzkoako Saskibaloia Federazioaren epaile federatu batek emandakoa izango dena.

Bestetik, *skills* taldea izango da. Kadete eta gazte mailetakoa (2007) arituko direnak. Manuel Muñoz kiroldegian gauzatuko dute campusa, eta honako hau landuko dute: 09:00etatik 11:00ak arte, espazioen okupazioa erasoan –*spacing*– eta 11:30etik 13:15ak arte, berriz, banakako teknika.



Aresko taldeko gaztetxo bat baloia jokatzen. GOIENA

Campusa Aresko taldeak zuzenduko du, baina beste klub batzuetako entrenatzaileen laguntza ere izango dutela adierazi dute Eskoriatza Kirol Elkartearen ordezkariak.

Aurretiko izen-ematea

Campusean parte hartu gura dutenek mezu bat bidali behar dute Aresko.saskibaloia@gmail.com helbide elektronikora, informazio honekin: jokalariei izen eta abizenak, helbidea, jaioteguna, kontaktua, campuserako kamiseta eta praktikatzen

arropa neurriak, eta ordainketaren %40ko ordainagiria –kontzeptuan jarri beharrekoa jokalariei izen-abizenak eta *Aresko campusa* izango da–. 2095 5038 45 1064158784 (Kutxabank) kontuan sartu behar da dirua.

Izen-ematea, abenduaren 7tik 20ra bitartean egingo da, eta Aresko.saskibaloia@gmail.com helbidera ordainketaren gainerako %60aren ordainagiria bidali behar da. COVID-19a dela eta, ordainketaren %75 itzuliko zaiela parte-hartzaileei adierazi du antolakuntzak.

Autodefentsa feminista tailerra izango da azaroaren 28an

Ikastaroan izena eman nahi duten herritarrek Gizarte Zerbitzuetara deitu edo idatzi behar dute

I.B. ESKORIATZA

Hilaren 28an, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara bitartean izango da autodefentsa feminista tailerra, kultura etxean. Izen-ematea zabalik dago, eta, horretarako, gizartezerbitzuak@ekoriatza.eus helbidera idatzi edo 943 71 31 36 telefono zenbakira deitu behar da.

Hainbat helburu izango ditu ikastaroak: emakumeek indarkeriarekiko dituzten bizipenak konpartitzea eta biltzea, espe-

rientzia partekatuz; elkar entzuteko, elkarrekin biltzeko eta emozio ezberdinei buruz lasai hitz egiteko tarteak eta espazio eskaintza; indarkeria egoerak, eraso ezberdinen identifikazioa eta indarkeriaren definizioa taldean lantzea; eta autodefentsaz aritzea eta autodefentsaz ulertzen dena bateratu eta eraso aurre egiteko estrategiak lantzea.

Horrekin batera, manta edo esterila eramatea gomendatu dute antolatzaileek.

LEINTZ GATZAGA | 19



Leintz Gatzagako Gatz Museoaren informazio-gunea. IMANOL BELOKI

Gatz Museoari dagozkion ardurak, lizitazioa irekita

Hamar urtetarako kontratuaren informazio teknikoa eta kudeaketa baldintzak udal webgunean daude ikusgai

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Gatzagako turismo bulegoa, Gatz Museoaren kudeaketa eta gatz produkzioa eta bere komertzializazioa esleitzeko lizitazioa ireki du Leintz Gatzagako Udalak.

Joan den egunean irekita, eskatzaileek zenbait baldintza bete behar dituzte lehiaketara aurkezteko, eta abenduaren 22ra arte egongo da epea irekita. Hala, 10 urterako kontratua da, jendaurrean ireki berri dena, eta xehetasun guztiak LeintzGatzaga.eus udal webgunean ikusgai daude.

Errasti eta Ramila, eskertuta

Jon Errasti eta Libe Ramila izan dira urte eta erdi Gatz Museoaren lanaren ardura izan dutenak, eta bizi izan dutenarekin eskertuak agertu dira: "Urtebeterako etorri ginen, eta gero, beste sei hilabete luzatu ziguten. Hala, eskerrak eman nahi genizkieke guran konfiantza izan duten herritar guztiei, eta, Gatzitzen elkartearen kide guztiei. Eman diguten laguntza izugarria izan da, eta, agertu duten lanerako prestutasuna ere txalotzekoa izan da", adierazi du Jon Errastik, Gatz Museoaren arduradunak.

Aparkaleku plazen kontzesioen zerrenda jendaurrean dago

Azaroaren 23a izango da erreklamazioak aurkezteko azken eguna, eta zozketa abenduaren 15ean egingo da

I.B. LEINTZ GATZAGA

Irailaren 24an egindako ohiko osoko bilkuran, udal pilotalekuaren azpian dauden udal titularitateko garajeak 2021-2022 eperako kontzesioan uzteko deialdia egin zuten udalbatzako kideek, eta azaroaren 12an, Eugenio Otsoa Leintz Gatzagako alkateak aparkaleku plaza horien kontzesioak onartu eta baztertutakoaren zerrenda behin behinako izaerarekin onartu zuen, guztira, 17 herritarrek eskaera eginda –udal webgunean ikusgai daude–.

Hala ere, onartu eta baztertutakoaren zerrenda Udalaren iragarki taulan jendaurrean jarri zuten azaroaren 13an, eta, orduan, erreklamazioak aurkezteko aukera dago, azaroaren 23a bitartean.

Ezarritako epealdi horretan erreklamazioak aurkezteko ez bada, behin-behineko zerrenda automatikoki behin betiko zerrenda bilakatuko da. Hala, garaje plaza zenbakia emateko abenduaren 15ean 12:00etan egingo dutela zozketa jakinarazi dute.

"Energia bide berriak aztertzen ari gara"

BEÑARDO KORTABARRIA ANTZUOLAKO ALKATEA

2021eko aurrekontuak "ziurgabetasun izaera" duela dio Antzuolako alkateak; hala ere, inbertsioak egingo dira, eta Olarango kultura etxeko obra 2021ean abiaraziko da

Maidar Arregi ANTZUOLA

Bigarren agintaldia du Beñardo Kortabarria, eta koronabirusaz, ur-kolektoreaz eta 2021eko aurrekontuez jardun du *Harira*-n. **Gogor jo du COVID-19ak herrian.**

Bai; martxoan suabe hasi zen, baina, bat-batean, jakin gabeko arrazoia medio, urriko lehen hastean goraka hasi zen. Orain, beheraka datorrela dirudi. Dena den, herri txikia izanda, intzidentzia gorabeherak oso handiak dira; arazoa mundu mailakoa da eta ikuspegi horri begiratu behar zaio.

Jaurlaritzarekin harremanetan zaudete?

Daukagun harremana ez da ofiziala; lagun baten bitartez baheketen berri izan dut; beharra dugunean jo dut berarengana. Osasun Sailaren eta udalen arteko loturarik ez dago; egoera honetan zuzenean berba egiteko norbaiten falta sumatu izan dut. Dekretu bateko aginduak betetzea eta kontingentzia planak



Beñardo Kortabarria *Harira* saioan martitzenean. MAIDAR ARREGI

gauzatzea gure esku egon dira, eta osasun irizpideen falta sumatu dut.

Ostalaritzaren sektoreari nola lagundu dio Udalak?

Antzuolan zortzi taberna-jatetxe eta bi okindegi-kafetegi daude.

Harremanetan krisia hasi zenetik gaude. Konfinamendutik irteten ginenean, ostalaritza eta merkatariendako 15.000 euro inguruko dirulaguntza bideratu genuen; bi hilabete itxita egon denak 800 bat euro jaso ditu,

adibidez. Terrazen espazioa handitu egin genuen eta terrazazergarik ez dugu kobratu. Pandemian jarraitzen dugu, eta laguntzen jarraituko dugu.

Nola eragin dio Udalari pandemiak?

Maila pertsonalean, jende askori eragin dio. Udal karguetan gaudenondako unerik okerrenera da, zalantzarik gabe. Uholdeena gogorra izan zen, baina kalteak konpondu genituen. Pandemiak, ordea, bestelako pisua dakar, eta erabakiak hartzea ez da erraza. Eta finantza arloari dagokionez, %15 gutxiago jasoko dugu Aldunditik, 260.000 euro inguru gutxiago. Hala, proiektu batzuk, Olarangoa, esaterako, ezin izan dira egin. Errekalde duintzeko parte-hartze bidezko proiektua ere ezin izan da gauzatu; ezta jolasguneen ingurukoa ere. Dena den, jolasguneen azterketa abiarazteko asmoa dugu. Bestetik, esan behar da pertsonal gastuetan murrizketa izan dugula: idazkari eta Kultura teknikari postuen gabeziak lagundu digu urtea ekonomikoki nahiko orekatua izaten.

Aurten, zein inbertsio egin dituzue?

Eztalako futbol zelaiko aldagelen obra eginda dago, eta abenduaren 19an inauguratuko da. Artxiboaren zati bat berrantolatatu egin dugu. Baserrietara ura eramateko lanak egin ditugu, eskolako patioa estali egin dugu... Orain, udazken eta neguari begira, bagabiltza kultura agenda bat prestatzen ere.

Ur-zikinen kolektorea egingo da?

Antzuola lehena izan zen ur-zikinen azpiegitura egiten; 78koa da lehen proiektua. Hala, ur-zikinen eroateko hoditeria-lanak Arizti baserri osteraino egin ziren. 40 urte baino gehiagoren ostean, oraindik horrela jarraitzen dugu. Beti entzun dugu Bergarako bidegorriarekin batera egingo zirela lanak. Bidegorria zati batean eginda dago; baita kolektorearen lanak ere. Kolektoreari bi zati falta zaizkio. Arizti inguruko 300 metroak eta Galartzako zubitik Bergarako etxeetarako konexioa falta dira. Bi zatiak elkarrekin egingo dituzte. Ariztikoz zatiko proiektua ikusita daukat, baina dena batera egitea gura dute. Ura Agentziarekin harremanetan gaude, eta espero dut egingo dela.

2021eko aurrekontua gertu?

Ziurgabetasun izaera duten aurrekontuak dira; baina 2.650.000 euroren bueltan ibiliko gara. Olarango kultura etxearen obra egingo dugu. Energiaren arloan, aztertzen gabiltza ea posible den bestelako energia bideak edukitzea Antzuolak. Kulturgintza-ren gainean ere badugu erronka potoloa orain, eta helduko diogu.

"PANDEMIAN GAUDE, ETA OSTALARIEI ETA MERKATARIEI LAGUNTZEN JARRAITU DUGU"

Indarkeria matxistaren aurrean indarrak batu dituzte herritarrek

Aurten, elkarlanean jardun dute Euskaraldiaren batzordeak eta Andramanuelak emakume taldeak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Indarrak batuta, indarkeria matxistari aurre egingo diote antzuolarrek aurten ere. Hala, azaroaren 25erako, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurka-ko Egunerako, elkarretaratzean parte hartzeko dei egin du Andramanuelak emakume taldeak. Elkarretaratzea 19:00etan Herriko Plazan izango da.

Aurtengoa, ordea, berezia da, eta Euskaraldiaren olatuaren indarrarekin dator egitaraua. Hala, bihar, *Hankaz gora* umeendako ipuin kontaketa saioa izan-

go da ikusgai, Errekalde auzoko plazatxoan, 16:00etan. Hilaren 27an, *Bernarda albaren etxea* antzezlan eskainiko dute, Torresoroan; eta hilaren 28an, berriz, umeendako Apika taldearen ipuin kontaketa saioa, Beheko auzoan, 16:00etan. Abenduaren 3an, Euskaraldia ardatz duen bakarriketa saioaz gozatzeko aukera izango da.

Txapak liburutegian jaso daitetze eta ekintzetarako sarrerak aurrez erreserbatu behar dira, liburutegian edo *Labureus/SarrerakAntzuola* helbidean.

OHARRAK

Argazki herrikoia

Presoak etxeratze aldarrikapena: gaur, 19:00etan, elkarretaratzea; bihar, argazki herrikoia, 18:30ean, Zurrategin.

Elkarretaratzea

Sahara aske! lelopean elkarretaratzea bihar, 12:00etan, Herriko Plazan.

Loteria

Landatxopek mahaia jarriko du gaur goizean, 13:00ak bitartean, plazan, Gabonetako loteria saltzeko asmoz.

Lanpostu-deialdia

Peoi eta garbiketa-lanak egiteko bi langile kontratatzeko lanposturako eskaera egiteko azken eguna.



ANTZUOLAKO UDALA

2020ko azaroaren 11n, Alkatetza Dekretuz, 3.2 egikaritze-unitateko Birlartzelatzeko Proiektua hasieran onartzea erabaki zen.

Honako akordio hauen arabera:

LEHENENGOA. Onartu, hasiera batean, Ortuza Promociones SL enpresak aurkeztutako 3.2 egikaritze-unitateko Birlartzelazio Proiektuaren espedientea.


BIGARRENA. Aurkeztutako espedientea jendaurrean jartzea hogei eguneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 43. eta 48. artikuluek xedatutakoarekin bat etorriz.

HIRUGARRENA. Zatiketa eta erakuntza lizentziak ematea debekatuta dago, birziklatze eragiketari dagokionez administrazio prozedura behin betikoa izan arte.

LAUGARRENA. Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, prentsan eta Antzuolako Udalen webgunean argitaratzea.

Antzuolan, 2020ko azaroaren 13an
Beñardo Kortabarria Olabarria alkatea.

EUSKARALDIA



'Ahobizi'-ak eta 'belarriprest'-ak, gertu

Euskaraldiaren bigarren ariketa soziala, gaurtik abenduaren 4ra bitartean

Hizkuntza ohiturak aldatzeko hamabostaldia martxan da gaurtik

Gaur hasi eta abenduaren 4ra arte iraungo du Euskaraldiaren bigarren edizioak, eta 9.594 debagoiendarrek eman dute izena dagoeneko ariketan. Zailtasunak zailtasun, batzordekideek ariketa "ahalik eta ondoen" egitera animatu dituzte herritarrak

Maialen Santos ARRASATE

Gaur hasi eta datorren abenduaren 4ra arte iraungo du Euskaraldiaren bigarren edizioak. Izen-emate epea azaroaren 24ra arte luzatu duten arren, atzora arteko datuen arabera, Euskal Herri osoko 147.000 lagunek hartuko dute parte ariketa sozialean: horietako %79 *ahobizi* izango da, eta %21 *belarriprest*. Orain arte izena eman dutenen %63 emakumezkoa da, eta parte-hartzaileen %27 lehen aldiz arituko da ariketa sozialean.

Debagoienera etorrita, 596 entitatek edo entitatetako egoitzek eman dute izena eta 1.450 lagunetik gora arituko dira ariguneetan. Guztira, zehazki, 9.594 debagoiendarrek hartuko dute parte ariketa sozialaren bigarren edizioan –atzora arteko datuen arabera–. Parte-hartzaile gehienek *ahobizi* rola aukeratu dute; hain zuzen, 7.964k orain artean. *Belarriprest*-ak, ostera, gutxiago izango dira: 1.630.

Aurreko edizioarekin alderatuta aurtengo izena eman dutenen

profila aldatu egin dela adierazi du Bergarako Euskaraldiko koordinatzaile Asier Kortabarrak. "Alde batetik, 16 edo 17 urte bete berri dituzten gazteak animatu dira aurtengoan, baina, bestetik, badago osasun krisiak kezkatuta Euskaraldiari lehen-tasuna eman ez dionik ere", zehaztu du. Lehen edizioan parte hartzeko "gogoz" geratu ziren askok ere eman dute izena aurtengoan: "Bigarren edizioa den heinean, jendeak dagoeneko eza-gutzen duelako".

Arigune asko, bertan behera

Bailarako herrietako batzordekideek aitortu dute duela bi urteko edizioarekin alderatuta "desberdina" izango dela honako hau, eta parte-hartzeak "behera" egin duela herri guztietan, "osasun krisiaren eraginez".

Entitateen parte-hartzea izan da bigarren edizioa honetako nobedade nagusia, eta, horrekin batera, ariguneen identifikazioa; euskaraz lasai egiteko guneena, alegia. COVID-19aren pandemiaren harira hartutako neurri murriztaileek, baina, arigune asko bertan behera geratzea eragin dute. Itxita dauden ostalaritza establezimenduetan, esaterako, ezingo dute ariketa soziala aurrera eramanez.

Aramaioko Euskaraldiko koordinatzaile Rosa Mondragonek adierazi du "pena" izango dela entitateetako askok parte hartu ezin izatea, herri horretan, entitateak "animoeekin" azaldu zirelako izena emateko orduan. Hala eta guztiz ere, gogora ekarri gura izan du entitateetako ordezkariak norbanako gisa jardun ahalko dutela Euskaraldian. Bergarako kasuan, Asier

Kortabarria koordinatzaileak entitateen inplikazioari balioa eman gura izan dio: "Hasieran, kostatu egin zitzaigun martxan jartzea, lan handia zutelako euren etorkizuna zehazten. Hala ere, egia da enpresetan mugitu egin direla; arigune mordoa sortu dituzte eta lanean ari dira".

Ikusgarritasun txikiagoa

Aurtengo edizioaren "ikusgarritasuna" ere txikiagoa izan dela uste du Oñatiko koordinatzaile Xabier Zabaletak, koronabirusari lotuta: "Lehen edizioan ekitaldi eta aurkezpen gehiago egin genituen; orain, koronabirusaren ondorioz, gutxiago aterara gara kalera". Kortabarrak gaineratu du ezin izan dutela antolatu ekitaldi handirik, "ezta txiki eta xumerik ere". Hala eta guztiz ere, azken egunetan "dezen-te" aterara dira kalera herrietako batzordeak.

Batzordekideek ere, zailtasunak

Bailarako herrietako batzordekideak "buru-belarri" aritu dira lanean azken hilabete hauetan. Elgetako batzordekide Larraitz Zeberio aitortu du hasieratik

CITROËN C5 AIRCROSS HYBRID HIBRIDO ENTXUFAGARRIA

**SILENT
URBAN
VEHICLE**

55 KM-ko AUTONOMIA*
%100 MODU ELEKTRIKOAN
KARGA AZELERATUA
2 ORDU BAINO GUTXIAGOTAN

*Autonomia aldatu egin daiteke erabilera-baldintza errealean arabera



CHAPIME TAILERRAK
Debagoieneko Citroën kontzesionario ofiziala



Bergara
metagra
México Group

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN



Jaurilaritzako eta Euskaraldiko ordezkariak, Seminarixoko ekitaldian. XABI URZELAI

sortu zutela herrian Euskaraldiko taldea, gerora bilerak egiteko zailtasunak izan badituzte ere: "Online egin behar izan ditugu bilerak. Eta hori beste dinamika bat da, gehiago kostatzen dena". Bergarako koordinatzaileak adierazi du "jendearengana hurbiltzea" zailagoa egin zaiela: "Ezin dugu nahi bezala gerturatu jendearengana, eta, beraz, Internet eta komunikabideak izan ditugu horiengana iristeko". Aurrez aurrekoak murrizteak "nolabaiteko galera" dakarrela uste du.

Prozesu luzearen emaitza

Aspaldi hasitako prozesua izan da ariketa sozialarena. Entitateen txanda izan zen lehendabizi; eurek eman zuten izena Euskaraldian. Norbanakoek izena emateko epea ireki zuten gero, irailean Bergarako Seminarixoa aretoan egindako ekitaldi nazionalan. Jaurilaritzako ordezkariak eta Euskaraldiko antolatzaileak izan ziren ekitaldi hartan. Euskaltzaleen Topaguneko presidente Kike Amonarrirek Euskaraldiaren "beharra" azpimarratu zuen: "Askok pen-

"ENPRESAK MUGITU EGIN DIRA: ARIGUNEAK SORTU DITUZTE ETA LANEAN ARI DIRA"

ASIER KORTABARRIA, BERGARA

"PENA IZANGO DA ENTITATEETAKO ASKOK PARTE HARTU EZIN IZATEA"

ROSA MONDRAGON, ARAMAIO

"IKUSGARRITASUNA TXIKIAGOA IZAN DA, GUTXIAGO ATERA GARA-ETA KALERA"

XABIER ZABALETA, OÑATI

"AHALEGINA EGIN BEHAR DA OHITURAK ALDATZEKO, PREMIA BADAGO ETA"

LARRAIZ ZEBERIO, ELGETA

tsatuko dute ez dela garai egokia Euskaraldia egiteko, baina batzuentzat inoiz ez da euskarari bultzada emateko une egokia". Euskaraldiaren koordinatzaile nagusi Arrate Illarok bigarren edizioako helburuak azaldu zituen: "Hasi genuen bideari jarraipena eman gurako genioke, rolak hobeto ezagututa eta kide berriak erakarrita".

Esbertzak ere bai

Izena eman duten entitateak zoriondu ditu Arrasateko Euskaraldiko batzordeak: "Arrasaten Euskaraldia antolatzen ari garenek eskerrak eman nahi dizkiegu publikoki". Azaldu dute duela bi urte "itzela" egin zutela arrasatearrek: "Garai zailak bizi ditugun arren, gaurtik aurrera beste jauzi erraldoi bat egingo dugu".

Debagoieneko batzordekideek ere ariketa soziala ahalik eta ondoen egitera animatu dituzte herritarrek. "Ahalegina egin behar dugu hizkuntza ohiturak aldatzeko, premia badagoelako eta ikusi delako aurreko edizio-ko ariketak eragina izan zuela", azpimarratu du Zeberio.

Euskaraldiaren izen-emate datuak

	Ariguneak	'Ahobizi'-ak	'Belarriprest'-ak
Arrasate	550	2.326	588
Bergara	400	2.306	455
Oñati	119	1.313	192
Aretxabaleta	208	933	150
Eskoriatza	105	366	122
Antzuola	36	315	37
Aramaio	20	182	36
Elgeta	19	173	27
Leintz Gatzaga	10	50	23
Debagoiena	1.467	7.964	1.630

OHARRA: EGUENERA ARTEKO DATUAK.

ITURRIA: EUSKARALDIKO HERRITAKO BATZORDEAK

Goizper Group

Elkarlanean garatzen

Gure aktiborik garrantzitsuena pertsonak dira. Ingurune sozialarekin konpromisoa eta gure jatorriak mantentzea dira gure balioak. Garapen profesional eta sozialak dira Goizperko proiektu guztien helburu nagusiak.

Industria

Bioteknologia

Ihizntadura

EUSKARALDIA

www.goizper.com

Tel. 943 786 000

Zailtasunei nork bere modura egin die aurre

2020ak konturik garrantzitsuenetan arreta jartzera behartu ditu norbanakoak, gainontzeko gaiak bigarren plano batean utzita. Antolatzaileen esanetan, "jendeak Euskaraldiaz ahazteko arrazoiak izan ditu, eta jokabide bikaina erakutsi du, hala ere"

"Poliki hasi zen izen-ematea, baina azken egunetan indartu egin da"

ASIER KORTABARRIA BERGARAKO KOORDINATZAILEA

Errusiar mendiaren metafora erabili du Kortabariak Euskaraldiaren antolaketa prozesua deskribatzeko. Etxetik jardun behar izan zuten momentuetan batzordeen lana eten ez izana goraipatu du bergararrak, entitateekin modu telematikoan egindako harremana positiboki baloratuta. Oztopoen inguruan, aurtengo



A.K.

dinamika "nahi beste" azaldu ez izanak ikusgarritasunean galera ekarri duela adierazi du gazteak, baina "jendeak eman duen azken kolpea ona" izan dela deritzo. Ostalaritzaren itxierak "arigune garrantzitsu asko" utziko omen ditu ezerezean, nahiz eta "zailtasun handiekin aurrera egin ahal izateak hurrengo edizioari begira oinarri sendoak" jarriko dituen.


Ariketan zehar ekitaldiren bat egitea gustatuko litzaiekeela aurreratu du, iragarpenak azken unera arte utziko dituzten arren, "bertan beherakoak ekiditeko".

"Hasieratik aritu gara modu apalean, keinu txikiak eginez"

ROSA MONDRAGON ARAMAIOKO KOORDINATZAILEA

Itxialdian zehar hasierako plangintza alde batera utzi eta bestelako lanketa egin zutela adierazi du Aramaioko Udaleko Euskara teknikari eta Euskaraldiko dinamizatzaileak: "Martxoan bilerak bertan behera utzi behar izan genituenenez, herritarrentzako euskarazko baliabideak jarri genituen udal webgunean; kulturarekin lotutako materiala, esaterako. Errezeta eta argazki lehiaketa ere abiatu genuen konfinamenduak iraun zuen bitartean".

Lan egiteko mugek "lehenetasunetan zentratzea" behartu omen zituzten Aramaion. Ondorioz, herritarrekin harreman zuzena duten entitateengana jo zuten aurrena; tabernari eta dendariengana, besteak beste. Elkargune asko itxita egongo



R.M.

direla eta, "alternatibak" pentsatu behar direla uste du Mondragonek: "Jokoz kanpo geratu diren ariguneetan bereizgarriak jartzea ideia ona da, haiek ere presente daudela gogoratzeko".

Eskolako ikasleen artean ere txapak banatu dituzte, "baina ez *ahobizi* edo *belarriprest* txapak, neska-mutil guztiak zaku berean sartzen dituzten txapa propioak baizik".

Herriko komunikazio modu guztiak euskalduntzea da erronka, aramaioarraren ustez.

ikerlan

MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE



Mondragon Unibertsitatea
arigune eta harnasgune

Euskarari leiho berriak zabaltzeko prest
GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN



EUSKARALDIA

www.mondragon.edu



M.A.

"Pauso gehienak irailetik hona eman eta poliki lan egitea erabaki dugu"

MARI CARMEN ARRIETA ESKORIATZAKO KOORDINATZAILEA

Euskaraldiaren antolakuntzari tira egitea "asko" kostatu zaiela onartu du Eskoriatzako Udaleko Euskara teknikariak. Entitateek egoera txarra bizi izan duten garaian horrelako dinamika bat aurkeztera errespetu eta tentu handiz joan direla azpimarratu du: "Itxaroten egon gara, guk sustatu beharrean, eskatu

digutenari erantzutera mugatzea hobetsi dugulako".

Irailetik aurrera "ahoz ahokoak eta sare sozialek" mobilizatu omen dituzte eskoriatzarrak, eta interesa erakutsi izana bakarrik "sekulakoa" dela ondorioztatu du. Euren lokala arigune eskaini duten tabernei keinuren bat egitea ez du baztertzeko

Eskoriatzan bi edizioetan Euskaraldia dinamizatzeko ardura hartu duen langileak.

Egitarrari dagokionez, ariketa sozialari ongietorria Onintza Enbeitaren *Non gelditzen gara gu?* izeneko hitzaldiak egingo dio gaur. "Komunikatzaile bizkaitarrak euskara, feminismoa eta COVID-19a jorratuko ditu hitzaldian, azaroaren 25eko eguna aintzat hartuta", aipatu du Arrietak. Euskararen Egunean Euskaraldiko parte-hartzaileen sentipenak batuko dituen bideo bat plazaratuko dutela aurreratu du, "baita egun batetik bestera" antolatuko duten ekintzen bat ere.

Hausnarketa sakona egin du Eskoriatzako koordinatzaileak aurten helarazi nahi izan den mezua gainean: "Baikortasunean oinarritu da aurtengo kanpaina, eta sarri pentsatu izan dut ea jendeak ez ote gaituen anormaltzat hartuko. Erantzuna kontrakoa izan da, inplikazio aparta erakutsi dute euskararen alde".

"Kantitateari baino gehiago, kalitateari ematen diogu garrantzia"

JOKIN ETXEBARRIA ARRASATEKO KOORDINATZAILEA

Kazetaria ogibidez, urte hasierako animoak "sendo" zeudela gogoratu du Etxebarriak, baita poliki-poliki jendearen inplikazioa "gutxitu" egin zela ere. Hori horrela, Arrasateko batzordeak itxialdia "sukaldeko lanak" egiteko aprobetxatu zuela adierazi du, uztailetik aurrerako lanei "ondo" heltzeko asmoz: "Kalera atera ginenean, zailtasunekin egin genuen topo, ekintza indartsuak egiteko aukerarik ez izateak ikusgarritasuna galarazi zizulako, herritarrei begirako harreman zuzenean galerak ekarri".

luz zerrendatutako helburuen artean, bigarren edizioan lehen edizioko parte-hartze kopurua handiagotzea aipatu zuen lantaldeak, baina aurten,



H.L.

eragozpenen jakitun, "egunerokotasunean pentsatzera bakarrik" eraman du egoerak. Kalitatea mantentzea, ordea, ez du alboratzen: "Entitateetako ariguneak abendutik aurrera finkatzea oso albiste pozgarria litzateke guretzat; hau da, gune horietako langileek euskararekiko konpromisoa izaten jarraitzea".

Azpilaldeetako boluntarioek entitateak aurrez ezagutzea "garrantzitsutzat" jo du, ariguneak sortzeko orduan.

efizientzia energetikoa

INGENIARITZA PROIEKTUAK eta OBRAK

GU ERE EUSKARAREKIN BAT!

355 EGUN

EUSKARALDIA

www.ekitermik.com

Berrikuntza da gure hizkuntza. Euskara gure bidea.

ERREKA

erreka.com

EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

ERREKA SARBIDE AUTOMATIKOAK | FINKAPEN SOLUZIOAK | PLASTIKOAK

Hasier Larrea ARRASATE

Euskalgintzaren inguruko mila saltsatan aritua, amore ematetik urrun, espiritu nekaezina dauka Kike Amonarrirek. Euskaraldia osatzen duten oinarriko bi zutabeak, herrigintza eta euskal erakundeak, ondo baino hobeto ezagutzen ditu; hortaz, zaila da ariketa sozialaren xehetasunak berak baino hobeto azalduko dituenik aurkitzea.

Hasteko, goazen sustraietara. Non-dik dator Euskaraldia?

Aurrekariak bi dira: bata, Lutxo Egiaren performancea, non gizartean une oro euskaraz bizitzeko hautua egiten zuen; eta bestea, Pirritx eta Porrotzek Lasarten egindako dinamika, zeinetan *ahobizi* eta *belarriprest* rolak agertu ziren lehen aldiz.

Ariketa horiek oso interesgarriak iruditu zitzaizkion Euskaltzaleen Topaguneari; hainbeste, ezen Euskal Herrira zabaltzeko formatu bat diseinatzea erabaki zuela. Europa osoan antzeko ekimenik ez dagoela esango nuke. **Zein da Topagunearen zeregina Euskaraldian?**

Bultzatzaile nagusietako bat da, Hizkuntza Politikako Sailbu-

"Euskaraldiak on egiten du, ariketa ireki eta alaia delako"

KIKE AMONARRIZ EUSKALTZALEEN TOPAGUNEKO PRESIDENTEA

Aurtengo edizioa gidatzeaz arduratu den pilotuetako bat da Tolosako komunikatzailea. "Baikor" errepasatu ditu Euskaraldia batzen dituen gaiak, bere betiko argitasunarekin

ruordetzarekin batera. Bi erakundeek parte hartzen baitute antolaketan. Baina hori da balio handienetako bat: elkarlana ardazten duen egitasmo praktikoa dela Euskaraldia, eta

ez bakarrik aldeotasuna adierazten duen kanpaina bat. **Ze zailtasunekin egin duzue topo?** COVID-19ak erabat aldatu du urte hasieran lan egiteko geneu-

kan perspektiba. Herrietako batzorde asko inaktibo egon ziren itxialdian, borondatezko pertsonen osatzen zutelako. Ondorioz, egiturazko batzordeetan bakarrik egin zen aurrera. Ari-

guneetako izen-ematea ere atzeratu egin zen. Hala ere, 2018an baino herri gehiagok hartuko dute parte aurten, eta sekulakoa da hori. Zailtasunak zailtasun, 25.000 arigune sortu dira Euskal Herrian. Jendearen konpromisoak adierazten du euskaraz bizitzeko erabakia hartu dugula eta hizkuntza ohituretan aurrera egiteko ilusioa daukagula.

Prestatu al duzue ekingintza potolorik? Komunikabideen bitartez egiten ari garen plangintza komunikatibo bat da prestatu duguna, Euskaraldiak ihes egiten baitie ekingintza potoloei. Euskal Herrian ohituta gaude festa kutsuko ekitaldietara, baina ez genuen hori nahi, hau beste gauza bat da: norberak maila pertsonalean eta ariguneetan egiten duen ariketa soziala.

Arigunearen kontzeptua da aurtengo berritasuna, ez al da hala? Bai, hala da. Euskaraldia diseinatu zenean, lehen urratsa per-

sonalean eta ariguneetan egiten duen ariketa soziala.

Bai, hala da. Euskaraldia diseinatu zenean, lehen urratsa per-



UDALAITZ S.L.
Gipuzkoa etorbidea 36
20500 Arrasate








Zutaz arduratzen gara

EUSKARALDIA

Tel.: 943 71 18 70 | Faxa: 943 71 18 71 | udalaitz@otola.org | www.udalaitz-arrasate.com



UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Euskaraldiarekin bat!



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
arroztegia@ugarte-arroztegia.com




Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

tsonengana zuzentzea izan zen, eta bigarrena, orain gauzatzen ari garena, era guztietako entitateetara jotzea. Garrantzitsua zen taldeak ere inplikatzeko, inertziak gaztelera edo frantse- sa egiten den tokietan eragiteko: lanean, elkarteetan, komertzioetan... Nahiz eta euskaraz egin ahal izan, sarri beste hizkuntza batera jotzen baita halako tokietan. Ariguneek zalantza hori aktibatzeak aukera ematen dute, bertako partaideek hizkuntza ohiturez hausnar dezaten.

Zergatik dira *belarriprest*-ak hain garrantzitsuak?

Belarriprest-ek ate asko zabaltzen dizkiote euskarari. Alde batetik, gure ohiko harreman esparruetatik kanpo euskaraz egitea bermatzen digute. Bestetik, ulertzeko eta hitz egiteko gai den jendea euskarara hurbiltzera motibatzen dute. *Belarriprest*-ak zera adierazten digu: "Agiar, ez dizut euskaraz erantzungo, baina zuk niri egidazu euskaraz". **Eta zergatik banatzen dira txapak?** Superbotereak dituztelako. Txapek modu progresiboan oztopo ugari gainditzeko modua ematen diote pertsonari. Izan ere, jendeak



Kike Amonarri. JONE AMONARRIZ

euskara ez erabiltzearen arrazoiak askotarikoak dira: ondo ez dakiela, lotsa ematen diola, ez dela seguru sentitzen, ohitura falta duela... Txapek erakutsi digute egun jakin batzuetan masiboki gauzatutako rolak

eguneroko bizimoduan txertatzen joaten direla.

Baina Euskaraldia amaitzen denean, txapa soinetik erantzi behar da.

Hori da. Izan ere, hein handi batean, ekintza mugatua izateak eman zion arrakasta 2018ko edi-

zioari. Jardunaldian zehar barneratutako rolak egonkortzea da ariketaren ostean gainditu behar dugun hurrengo erronka, euskara urteko 365 egunetara zabaldu dezagun.

Helburu soziala ez ezik, helburu ekonomikoa ere badu Euskaraldiak.

Bai; kamisetak eta banderatzokak, besteak beste, bi arrazoiengatik saltzen ditugu: Euskaraldia bideratzeko zailtasunak dituzten herriak sostengatzeko eta euskalgintzan sortzen diren proiektu berritzaileak aurrera ateratzen laguntzeko. Balkoietan ikusiko diren banderatzoket funtzio garrantzitsua beteko dute, euskararen presentzia kalean baino gehiago etxeetan egongo delako. **Aurten ere ikerketa soziolinguistikoa egingo du Klusterrak, ezta?**

Bai; gero eta ohikoagoa da euskalgintzan: zerbait praktikan jarri, eta gero ikertu. Esperientzia hau erabat berria denez, inportantea da ikerketak egitea, ondoren esperientziari egokitzapenak eranstea. Nekez aurkitzen ditugu gurea bezalako kasuak hemendik kanpo.

Ze ondorio atera ziren 2018ko Euskaralдитik?

Ikerketa hark erakutsi zigun, batetik, jende askok uste zuena baino euskaldun gehiago dagoe- la, eta, bestetik, jendeak euska- ra uste baino kopuru murrizta- goan erabiltzen duela. Hizkuntza ohituren aldaketei helduta, konturatu ginen kasu batzuetan zaila zela aldaketa hori gertatzea. Euskaraldia hasi aurretik eta bukatu bitartean, erabilera ika- ragarri handitu zen, eta pozga- rriagoa dena, handik hiru hila- betera euskara gehiago egiten zuten ariketako parte hartzaileek. Horregatik da garrantzitsua Euskaraldia sistematikoki egitea, hobekuntza horiek areagotzeko. **Orokorrean, balorazio positiboa izan zuen?**

Bai, guztiz. Jendeak ikusi zuen jarduera ireki, alai eta praktikoa zela, eta funtzionatzen zuela.

Zerbait gehiago esan nahi baduzu, zurea da hitza.

Nahiz eta aurreko edizioan izena eman, berriz ere apuntatu behar dela gogoratu nahi diot jendeari. Eta kaleko presentzia murriztagoa izango denez, izena eman dutenek, mesedez, anima dezatela euren inguruko jendea Euskaraldian parte hartzera.

Lortu 400€!

EUSKARALDIArekin

Azaroaren 13tik abenduaren 3ra bitartean...



Bilatu ahalik eta erakusleiko gehien dragoi eta Euskaraldiaren logoarekin eta bidali argazkiak  688734149 zenbakira.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA

TURISMO, MERKATUETZA
ETA KONSUMO GARA



GOBIERNO VASCO

SERVICIO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



Bidane Txopitea eta Josetxo Muniategi, Bergaran, Soralue enpresan. E.A.

"Gehiago erabil dezakegu euskara"

"Duela bi urte, Euskaldia hasi aurretik, gure Euskaldi propioa egin genuen Soralue kooperatiban, barne esperimentu moduan, euskara indartzeko. Oso harrera ona izan zuen, eta aurten, orduko lanketa aprobetxatu gura izan dugu. Eragile sare bat sortu dugu, hoguei bat lagunekoa, eta gainontzekoak animatu ditugu ekimenarekin bat egitera. Barne ariguneak izango ditugu, gehienbat, eta xedea izango da hizkuntza ohiturak aldatzea. Izan ere, euskara ezagutza maila handia dugu eta erabilera ere nahiko handia, baina handiagoa izan daiteke. Euskara planarekin urteak daramatzagu lanean eta apurka-apurka bagoaz pausoak ematen. Plan horretan, euskararen ezagutza handitzea ere badaukagu jasota, baina, kasu konkretu honetan, helburu nagusia ohiturak aldatzea izango da. Gure enpresan, %80 inguruk ulertzen dute euskara".

Entitateak batuko zaizkie norbanakoei, ariketarako

Eneko Azurmendi ARRASATE

Gaur, egubakoitza, abiatu den ariketa sozialaren berrikuntza nagusietako bat entitateek sortu dituzten ariguneak dira. Hala, mota guztietako entitateek har-

tu ahal izango dute parte aurtengo Euskaraldian: erakunde publikoek, gizarte eragileek, enpresek, kooperatibek, kultur eta kirol elkarteek, eta abarrek. Ariguneei dagokienez, euskaraz

aritzeko guneak izango dira, eta euskaraz hitz egiteko aukera bermatuko dute une oro, izan entitate barruan edo izan entitateak herritarrekin duen harremanean. Modu horretan,

"Talde euskalduna lortu gura dugu"

"Gizarte eragile guztiok bultzatu beharko genuke gure hizkuntza. Gu zazpi partaide gara, eta gehienetan euskaraz hitz egiten dugu, nahiz eta batzuetan gaztelerarako joera eduki. Bi pertsona kili-kolo dabilta euskararekin, baina asko ari dira saiatzen, izugarria da egiten duten lana. Helburua izango da talde euskalduna lortzea, eta jendearekin euskaraz egitea".



Eskoriatzako feminista taldeko hainbat ordezkari. ESKORIATZAKO FEMINISTA TALDEA



Agirrebidea 2, Bergara (Gipuzkoa)
Info@maltuna.eus
943 89 92 70 - 943 89 92 71



EUSKARALDIA

GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN

UGARTE

Eraikuntzak

> HORMIGOIZKO ETA EGURREZKO EGITURAK

> IGELTSEROTZA

> ZAHARBERRITZEAK

> PROMOZIOAK



943 78 05 54
663 97 31 64

OÑATI

www.cnes-ugarte.com



barne eta kanpo ariguneak izango dituzte entitateek. Lehenak entitate baten baitan ohiko dinamika duten eta kide guztiek gutxienez euskara ulertzen duten taldeak dira eta bigarrenak, al-diz, entitatean herritarrekiko harreman-espazioetan dauden pertsonak osatzen dute, "une oro *belarriprest* edo *ahobizi* bat egongo dela bermatzen bada".

Guztien inplikazioa beharko da Entitateak ariketa sozialera baztearen helburu nagusia, Eus-

kaltzaleen Topagunearen esanetan, entitate horien harremanetan euskararen erabilera handitzea da. Hori dela eta, "parte hartzeko, zuzendaritzaren eta entitateko gainontzeko kideen inplikazioa beharko dira".

631 entitatek eman dute izena

Debagoieneko datuei dagokionez, 631 entitate izan dira ariketa sozialean izena eman dutenak, eta 1.200 arigune baino gehiago sortu dituzte, guztira. Izen-ema-teak herriz herri aztertuta, An-

tzuolan 36 entitatek eman dute izena eta beste horrenbeste arigune izango dituzte; Aramaion, 20 entitate eta 20 arigune; Aretxabaletan, 71 entitate eta 208 arigune; Arrasaten, 155 entitate eta 550 arigune baino gehiago; Bergaran, 219 entitate eta 400 bat arigune; Elgetan, 19 entitate eta beste horrenbeste arigune; Eskoriatzan, 31 entitate eta 105 arigune; Leintz Gatzagan, zazpi entitate eta hamar arigune inguru; eta Oñatin, 38 entitate eta 119 arigune.



Aloña Mendiko futbol saileko ordezkariak, Azkoagain futbol zelaian. E.A.

"Ulertzen ez duenari, lagunduko diot"

"Traskilon-en euskaraz zein gaztelaniaz hitz egiten duten bezeroak ditut, baina, normalean, Arrasateko eta inguruko bezeroek euskaraz hitz egiten didate. Gaurtik aurrera ere, dendara etorriko direnei lehen hitza euskaraz egingo diet; ahal dudan guztietan, hala jarraituko dut. Euskaraz ulertzen ez duenari, bestalde, lagundu egingo diot euskararekin".



Ainara Jorge, Arrasateko Traskilon dendako arduraduna. E.A.

"Joera txikiak aldatu gura ditugu"

"Batxordeak gonbita egin zigun, Aloña Mendi elkarte moduan, Euskardiari atxikimendua adierazi eta arigunea sortzeko, eta onartu egin genuen. Egia da gure eguneroko funtzionamendua euskaraz dela ia %100ean, baina, batzuetan, gaztelaniarako joera txiki bat ere badaukagu bileretan. Hori dela eta, erabaki genuen ariguneen kontzeptua aproposa izan zitekeela zuzendaritza batzordean euskara are eta gehiago erabiltzeko, ziztada moduan. Hasiera batean, zuzendaritza taldeak eta koordinatzaileek osatuko dute gure arigunea, baina sail osora zabaldu dugu ekimenarekin bat egiteko aukera, *ahobizi* eta *belarriprest* moduan izena emanda. Ahozkotasunaz gain, paisaia linguistikoari dagokionez, esaterako, badaukagu zer hobetu, kartelak, aktak edo bestelakoak euskaraz egin ahal izateko aurrerantzean".

Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan.

Izan
Ahobizi!

Izan
Belarriprest!

Ariketa egin

Ariguneak
babestu

Hizkuntza-
ohiturak
astindu

Euskaldunarekin
euskaraz



Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

EUSKARALDIA

Eskoriatzako campusa

Dorleta auzoa, z/g
20540 Eskoriatza

Aretxabaletako campusa

Otalora 31
20555 Aretxabaleta

943 71 41 57

harrera.juluhezi@mondragon.edu

www.mondragon.edu



AINHOA BARANDIARAN
'BELARRIPREST'-A
LEINTZ GATZAGA

"Belarriprest arituko naiz aurten, lankideekin euskaraz moldatzeko zailtasunengatik. Euskal hiztuna naizen arren, lanean bakarrarekin dut aukera euskaraz aritzeko, besteek ez dute ulertzen; beraz, hori da arrazoia. Joan den edizioan, *ahobizi* rola aukeratu nuen, eta laneko arrazoi hori kontuan hartuta aldatzea erabaki dut, beste barik. Horrekin batera, azpimarratu nahiko nuke Leintz Gatzagan jendea gogoz ikusten dudala Euskaraldiari begira".

Rola erabakita, parte hartzeko arrazoi ugari

Euskaraldirako 'ahobizi'-a edo 'belarriprest'-a izanda, erronka ezberdinak jarri dizkio nork bere buruari




BEÑAT ILLARRAMENDI
'AHOBIZI'-A
ESKORIATZA

"Iaz, *belarriprest* rola aukeratu nuen, *ahobizi* aukeratuz gero euskaraz dakiten guztiekin konprometitzen zarelako euskaraz egitera. Eta iaz, uste nuen ez nuela lortuko, hainbat lagunekin gazteleraz egiteko ohitura dudalako. Aurten, baina, *ahobizi* rola aukeratu dut, aldatzeko gogoz nagoelako, eta ariketak irauten duen denbora-tartean euskaraz egitea da asmoa. Uste dut lortuko dudala".



GARAZI FERNANDEZ
'AHOBIZI'-A
ARETXABALETAKO

"Aurten, lehenengo aldia izango da Euskaraldian parte hartuko dudana, joan den urtean adinarengatik ezin izan nuelako. *Ahobizi* rola aukeratu dut, nire egunerokotasunean euskaraz egiten dudalako guztia, klasean zein etxean. Ilusio handia egiten dit ariketa honetan parte hartzeak, eta gogoz nago. Lagunartean, gazteleraz zerbait esaten didatenean hizkuntzaz aldatu izan dut, eta nire helburua ohitura hori aldatzea izango da hamabost egun hauetan".



JOSE ARANA
'BELARRIPREST'-A
ARRASATE

"Ariketa sozial polita iruditzen zait Euskaraldia. Duela bi urte ere *belarriprest*-a izan nintzen, euskaraz adierazteko gaitasun handirik ez dudana arren, ia guztia ulertzeko gai naizelako. Era honetan, euskaldunei euskaraz hitz egiteko aukera ematen diedala uste dut, eta, zailtasunak izaten ditudan arren, gustura aritzen naiz. Beraz, aurten ere parte hartuko dut, eta gogoz nago. Hala, euskara praktikatzeko hizkuntza ohiturari buelta bat emateko".

LANA
Elkarrekin euskararen alde
www.lana.eu

EUSKARALDIA
GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN

EROSKI
ARRASATE
Musakola z/g ARRASATE,
Tel.: 943 71 10 30



NEREA CARMONA
'AHOBIZI'-A
OÑATI

"Etxekoekin gaztelaniaz hitz egiten dudana arren, txikitatik euskaraz bizi eta harremandu izan naiz; euskara da nire ama hizkuntza eta horrela sentitzen dut. Hala ere, inkontzienteki eta inertzia hutsagatik badin bada ere, momentu puntual batzuetan gaztelaniera jotzeko joera dudala ohartu naiz: lagunartean, ezezagun batekin elkartzean... Eta Euskaraldiak hizkuntza ohitura horien inguruan hausnartzeko eta aldatzeko bultzadatzoa emango didala uste dut".



FATIMA PEREIRA
'AHOBIZI'-A
BERGARA

"Ahobizi rola hartu dut Euskaraldian parte hartzeko. Euskarako eskoletan ari naiz, ikasten, eta hamabost eguneko ariketa oso ondo etorriko zait mintzapraktikarako. Jendearekin erlazionatzeko, gehiago praktikatzeko, eta euskaraz bizitzeko erronka moduan hartu dut *ahobizi* rola. Beraz, ez dakit nola egingo dudana, baina saiatuko naiz, horretarako eman dut izena, eta lehenengo hitza euskaraz egiteko apustua egin nahi izan dut".



EUGENIA RETOLA
'BELARRIPREST'-A
ANTZUOLA

"*Ahobizi* izatera iritsi nahiko nuke, baina, oraingoz, *belarriprest* moduan arituko naiz, duela bi urte moduan. Jendeak niri euskaraz egitea nahi dut, ulertzen baitut. Hala ere, saiatzen ari naiz, eta hori egunerokotasunean egiten dudana da. Ulertzen dut euskara, egunero ari naiz kalean hitz egiten, ikasten, eta, Euskaraldiko ariketan bereziki saiatuko garen arren, aurrera begira ere euskaraz jardutea da nire asmoa".



OLGA FERNANDEZ
'BELARRIPREST'-A
ELGETA

"*Belarriprest* rola aukeratu dut aurtengo Euskaraldiari begira. Aurreko edizioan ere hala aritu nintzen, eta, esperientzia ederra izan zenez, oraingoz ere animatu naiz parte hartzera. Dagoeneko jaso dut txapa, eta prest nago ariketarako. Izan ere, euskaltegian euskara ikasten ari naiz, eta Mintzalagunetan ere asko ikasten dut. Euskaraz moldatzen naizen arren, ariketa ederra dela uste dut".



AINARA INUNTZIAGA
'BELARRIPREST'-A
ARAMAIO

"Aurten *belarriprest* moduan eman dut izena Euskaraldian. Joan den edizioan, *ahobizi* izan nintzen, baina konturatu naiz *ahobizi* urte guztian naizela. Izan ere, familian, lagunekin eta lanean ere euskara asko erabiltzen dut. Aurten, baina, nire rola aldatzea erabaki dut. Nire pazientzia guztiarekin, euskaraz justu ari diren horiei entzuteko eta laguntzeko prest nagoela adierazi nahi diet *belarriprest* moduan. Intentzioa hori da, ea zer gertatzen den..."

Etxean, lanean, kalean...bizi euskaraz!



ARRASATEKO UDALA

ALKIDEBA

SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU

MAKINERIA ALOKAIRUA
ERAIKUNTZARAKO ETA
INDUSTRIARAKO

alkideba@alkideba.net

NILFISK-en
banatzaile
ofiziala



Saskibaloi taldearen babeslea



Máizaga - Sorluze errepidea.
Tel.: 943 75 15 54 • Sorluze (Gipuzkoa)

Goitondo industriagunea, 3. pabillioia
Tel.: 943 17 13 62 • Mallabia (Bizkaia)

Hizkuntzaren erabileran eragitea, Euskaraldiaren jarraipenean ere helburu

Euskaraldiaren lehen edizioak ekarri zuenaren gainean gogoeta egin dute bailarako zenbait herritako euskara teknikariek eta euskara elkarteetako kideek



2018an egindako Euskaraldian, herritarrek Bergaran. GOIENA

Jone Olabarria ARRASATE

Euskaraldia: 11 egun euskaraz. Hala aurkeztu zuten duela bi urte orduan ariketa berri bat zen ekimena. 2018ko azaroaren 23an hasi eta abenduaren 3ra arte, Euskararen Nazioarteko Egunarekin bat eginda, iraun zuen "herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea" helburu zuen ekimen hark.

18 urtetik gorako herritarrei zuzenduta, 220.000 lagunek eman zuten izena lehen Euskaraldian, *belarriprest* eta *ahobizi* rolen

artean aukera eginda. Orduko datuak aztertuta, izena eman zutenen %73 *ahobizi* modura jarduteko batu ziren ekimenara, eta %27k *belarriprest* modura parte hartu zuen. Partaideen %36k 18 eta 35 urte artean zitu zuten eta %62 emakumezkoak izan ziren.

Esku hartzea, "laburra"

2018an egindako lehen ariketa- ren osteko azterketaren txosten-aren arabera, hizkuntza ohi- turak astintzearen zeregina "aski ongi" bete zuen Euskaraldiak

hamaika egunean zehar; hala dio EHUko Pello Jauregik eta Soziolinguistika Klusterreko Uxoa Anduagak egindako txos- tenak. Dena den, aitortzen dute hizkuntza jokaera berriek "den- bora eta errepikapena" behar izaten dutela barneratuak izate-ko, eta Euskaraldiaren esku- hartzea "oso laburra" izan zela.

Azterketa hark erakutsitako-aren arabera, Euskaraldia abia- tzeko unean kideen bi herenek -%66,5- euskara ulertzen zuten ezagunekin euskaraz jarduteko joera zuten. Hamaika egunen

ostean "aldaketa handia" gerta- tu zela zehazten du txostenak, eta euskaraz zekiten ezagunen "gehiengoari edo guztiei" eus- karaz egiten zietenak hasieran baino askoz gehiago ziren: %86,6.

Parte-hartze handiena, hemen

Debagoienean, 13.200 pertsonak hartu zuten parte 2018ko Eus- karaldian; hau da, 16 urtez go- rako biztanleen %25ek. Eta nabarmentzekoa da Debagoiena izan zela biztanleriaren propor- tzioan parte hartze maila han- diena izan zuen eskualdea.

Normalizaziorako gakoa

Euskararen normalizazioaren ikuspuntutik, 2018ko Euskaral- diak "argi" utzi zuen, Bergarako Udaleko Euskara teknikari Es- tepan Plazaolaren ustez, gakoa erabilera dela: "Erabilerarik gabe, alferrik dira gainontzekoak. Gai- tasuna erabiliaz indartzen da".

Kontzientzia hartzea ere eka- rri zuela aitortu du Plazaolak: "Milaka lagunek euren hizkun- tza ohiturez gogoeta egin zuten eta konturatu ziren uste zutena baino jende gehiagok dakiela euskaraz eta erabiltzen zutena

Bazenekien?

Umeak elkarriketan parte hartzen daudenetan, helduen euskararen erabilera Antzuolan %77koa da.
Umerik tartean ez dagoenean, helduen euskararen erabilera Antzuolan %51koa da.

(2016ko datuak)

ANTZUOLAKO UDALA

AZK

Komunikazio estrategikoarekin indartu zure marka EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

#KomunikazioaGertu

www.azk.eus



Arrasatear talde bat, duela bi urte, Euskaraldiarekin bat eginda. GOIENA

baino gehiago erabiltzeko aukera zutela".

Aretxabaletako Loramendi elkarteko Eñaut Zubizarretaren esanetan ere, "euskararen gaia berriz ere mahaiaren zentroan jartzea lortu zuen". "Inklusibotasun puntu bat" ere eman zio-la azaldu du, lehen edizio hark "hizkuntzarekin lotuta zeuden zenbait aurreiritzi apurtzea" lortu zuela. Oñatiko Udaleko Euskara teknikari Xabier Zabaletak soziolinguistikako zenbait kontzeptu gizarteratu zituela azaldu du: "Lehen hitza euskaraz

egitearen garrantzia, edo solaskideak euskaraz ulertzen badu euskaraz egin dezakegula, nahiz eta berak gazteleraz erantzun".

Erabilera, ezinbestekoa

Euskararen erabilerari dago-kionez, aitortu dute ez dela erraza aurrera edo atzera egin den jakitea. Arrasateko AED elkarteko Itxaro Artolak azaldu duenez, "denbora gehiago" beharko da Euskaraldiak erabilera datuetan eraginik izan duen jakiteko: "Ariketaren ondoren egingadako ikerketaren arabera, ez

ziren gutxi izan, batez ere, *be-larriprest* rola izan zutenen artean, ariketari esker euskara erabiltzen hasteko edo gehiago erabiltzeko jauzia eman zutenak. Aitzitik, hizkuntza gaitasun altua geneukanok ez omen ditugu hainbeste aldatu gure ohiturak. Eta horrek ematen du zer pentsatua".

Plazaolaren esanetan, aurreko hamarkadetak gorabidea moteldu egin da: "Kezkagarria da. Oso momentu garrantzitsuan gaude: edo normalizaziozko bide sendo bati ekiten diogu edo arrisku handia dugu atzera egiteko".

Zabaletak dioenez, ikuspuntuaren arabera da: "Oñatiren kasuan, azken ikerketek diote urtez urte gora doala euskara kaleko erabileran; etxeetan, ordea, beherakada egon da". Hala ere, orokorrean, erabilera "au-

**"AURRERA EGIN ETA
BESTE HIZKUNTZEN
PAREAN JARTZEKO,
HALAKO BESTE MILA
EKIMEN BEHAR DIRA"**

rrera egiten" ari dela azaldu du, nahiz eta "hainbat arlotan alarma piztuta izan behar den".

Euskaraldia, "beharrezkoa"

Zubizarretak dio gazteen artean erabileran dagoela arazoa, eta, hortaz, "modu ezin hobea" dela hamaika egun horien bueltan kolektiboa aktibatzeko. Era berean, jende helduaren artean "tabu eta aurreiritzi asko" alde batera uzteko eta behinola izan zuten grina berpizteko tresna izan daitekeela azaldu du.

Plazaolak eta Zabaletak ere beharrezko ikusten dute ekimena. Oñatiko Euskara teknikariaren kasuan, adibidez, "euskararen ekosistema nahiko hauskorra" dela dio, eta pandemiak hizkuntzak bizi duen egoera bistaratu duela azaldu du: "Mezuak lehenengo gaztelania hutsean jaso ditugu, eta ostean etorri dira, etorri badi-ra, euskarazkoak".

Gaur egun 16 urterekin eskolatik irteten diren debagoiendarrren %95ek euskaraz maila batean badakitela azaldu du Plazaolak: "Gaitasun hori erabilerarekin uztartzen ez badu,

ordea, gaitasuna bera murrizten joango zaio eta, ondorioz, erabili ere nekezago egingo du". Arrazoi horregatik, erabilera sustatzeko eta euskaraz egiteko ohitura indartzeko ekimenak bultzatzearen garrantzia azpimarratu du.

Era berean, Itxaro Artolak gogorarazi du Euskaraldia ez zela sortu "kanpaina bat" izateko, "lan-ildo iraunkorra" izateko baizik: "Euskara ulertzeko gai ere ez direnak euskarara erakartzea ere bada erronka; hau da, ezagutza unibertsalerako bidea zabaltzea. Horretarako ere balio beharko luke".

"Beste mila behar"

"Euskarak aurrera egin eta beste hizkuntzen parean jarri" nahi badu, Euskaraldia "eta halako beste mila" ekimen beharko direla aitortu du Zabaletak. Era berean, Euskaraldiak markatzen duen norabidea "oso interesgarria" dela azaldu du Plazaolak, baina euskarak "beste mila behar" dituela gogorarazi du: kultur kontsumoarekin lotuak, hedabideekin eta teknologiarekin, esparru sozioekonomikoan...

Gualbi asesores

**ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA**

ABOKATUAK

KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!

Euskadi etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48
onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com



Asier Kortabarria *Moto* eta Aitzol Perez de San Roman, Bergarako eta Oiarzungo arduradunak, hurrenez hurren. EUSKARALDIA

Hikaldia dator, hitanoari atxikimendua agertzeko

Hitanoaren erabilera bultzatzea helburu, 'ahobizi' edo 'belarriprest' txaparen ondoan 'h' hizkidun pegatina daroatenek hika berba egin edo entzun nahi dutela agertuko dute; Bergaran eta Oiarzunen abiatu dute, esperientzia pilotu modura: "Ze eingo jonau/juau?"

Jokin Bereziartua BERGARA

Gaur hasi eta abenduaren 4ra bitartean egingo den Euskaraldiaren bigarren ariketa sozial erraldoiaren barruan egongo da beste ariketa txikiago bezain esanguratsu bat: Hikaldia. Esperientzia pilotua izango da, Euskal Herri osoan Oiarzun eta Bergaran egingo dena.

Euskaraldian jantziko den txaparen gainean *h* txiki bat duen pegatina bat itsatsi beharko dute Hikaldian parte hartuko duten *ahobizi*-ek eta *belarriprest*-ek. Hitanoarekiko atxikimendua adieraziko dute horrela.

Gonbidapena da, ez betebeharra

Hala ere, zehaztu dute ez dela Euskaraldiko rolari zuzenean lotuta egongo. Hika aritzeko edo entzuteko gogoia dutela erakutsiko dute pegatina daroatenek; ez du esan nahi hika aritu beharko dutenik. "Honekin adieraziko dugu hika berba egiteko edota entzuteko gogoia dugula, gonbidapen bat izango da. *Ahobizi*-ek ez dute hika berba egiteko konpromisorik hartuko. Pegatina hau daroanak bere gaitasunaren arabera eta egoe-

raren arabera erabakiko du hika egin edo ez". Bergarako eta Oiarzungo Euskaraldirako arduradun Asier Kortabarria *Moto*-k eta Aitzol Perez de San Romanek diote norberaren esku egongo dela hitanoak dituen "arau sozialak" errespetatzea edo malguak izatea: "Hori bai, betiere, solaskidea ados badago; bestela, neutroan ariko gara, errespetatuz". Hau da, ulermena beti ziurtatu behar dela gogorarazi dute, eta, solaskidearentzat zaila baldin bada hika ulertzea, neutroa pasatzeko eskatu dute.

Esperientzia pilotua da

Hikaldian parte hartu nahi dutenek galdetegi erraz bat bete beharko dute, eta, Euskaraldiko txapa jasotzearekin batera, pegatina txikia ere jasoko dute. Iniziatiba honekin, hitanoaren erabilerrari bultzada ematea da helburu nagusia, eta, esandako moduan, esperientzia pilotua da. Euskaraldiraekin batera Hikaldia ere amaitzen denean, balorazioa egingo dute, aurrera begirako urratsak zehazteko. "Ze eingo jonau/juau?, Ze ingo ñeu/yeu?", galdegin dute.





Euskaraldia

Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan



4.800

Langile
Euskal Herrian

11

Hizkuntzen
kudeaketa

%65

Euskara hutsezko
komunikazio kanalean



122 ARIGUNE

Lanerako aukera berriak sortzen

FAGOR
FAGOR ARRASATE

FAGOR
FAGOR AUTOMATION

FAGOR
Fagor Electrónica

FAGOR
FAGOR INDUSTRIAL

COPRECI

fagoredertalde

**MONDRAGON
ASSEMBLY**

galbaian
intellectual property

AGENDA

EGUBAKOITZA 20

ARETXABALETA

19:00 RO taldearen kontzertua, Arkupen.

BERGARA

19:00 Xabi Solanoren kontzertua, Seminarixoan.

ESKORIATZA

19:00 Onintza Enbeitaren *Non gelditu gara* hitzaldia, Zaldibar antzokian.

ZAPATUA 21

ANTZUOLA

16:00 *Hankaz gora* ipuin kontaketa, Errekaldeko plazan.

ARRASATE

17:00 *Euskardialdia bertan da!* Itxaropena, Musakola, Erdiko kalea.

DOMEKA 22

ARRASATE

19:00 *Kutsidazu bidea, Ixabel* musikala, Amaia antzokian.

ASTELEHENA 23

ARETXABALETA

14:45 *Kantatzen duen herri bat* mahai ingurua, *streaming* bidez, Arizmendi ikastolaren Youtubeko kanalean. Nogenen parte hartzearekin, eta Gorka Etxabek zuzenduta.

EGUAZTENA 25

ARRASATE

10:00etan eta 18:00etan Mintzodromoa, Seber Altube plazan.



Ahobizi eta Belarriprest, duela bi urteko edizioan, Elgetan. LARRAITZ ZEBERIO

EGUBAKOITZA 27

ARAMAIO

17:30 III. bikoizketa lehiaketa, kultura etxean.

ARETXABALETA

19:00 Oihana Aranaren *Portuak* liburuaren aurkezpena, Arkupen.

ZAPATUA 28

ANTZUOLA

16:00 Apika taldearen ipuin kontaketa, Beheko auzoko plazan.

BERGARA

19:00 *Birritan bortxatua* antzezlan, Seminarixoan.

OÑATI

19:00 Xabier Artiedaren *Txor-txor* bakarriketa saioa, Santa Ana antzokian.

DOMEKA 29

BERGARA

19:00 Irratsaio berezia Txapa irratan, herritarren esperientziak. FMko 97.20.

MARTITZENA 1

ARRASATE

18:30 *Euskalgintzaren erronkak IKT eta aisialdi birtualean* hitzaldia, Kulturaren eta *streaming* bidez.

BERGARA

18:30 Bingo herrikoia, online, Jardunen eskutik.

ARETXABALETA

19:00 *Erradikalak ginen* antzezlan, Arkupen.

EGUENA 3

ARRASATE

Egun osoan zehar Bizipenen arigunea, Euskara plazan.

ANTZUOLA

19:00 Beatriz Egizabalen bakarriketa, Torresoroan.

BERGARA

19:00 *Hezurbeltzak* emanaldia, Seminarixoan.

OÑATI

12:00 eta 19:00 *Ez dok ero* antzezlan, Santa Ana antzokian. Egurdiko emanaldia, ikasleentzat; iluntzekoa, herritar guztientzat.

gehiago, gehiagorekin, gehiagotan

ai arizmendi ikastola
Konfiantzaren pedagogia®

Ametsak Betetzeko Danpelako!

EUSKARALDIA

Kutxabank **EUSKARALDIA**rekin

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

kutxabank **k**

Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak helburu

Emakumeen kontrako indarkeria matxista modu bateratuan salatzeko eguna izango da eguaztena, azaroaren 25a. Puntu morea da ikur nagusia, eta, udal eraikinetan ez ezik, herriko komertzioetan, enpresetan zein etxeetan ikusgai egotea da helburua

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Arazo estrukturala da eta, gehienetan, ezkutuan gelditzen da. Horregatik, lehen lerrora ekarri eta emakumeen kontrako indarkeria matxista gaitzesteko ikur nagusia den puntu moreari ikusgarritasun berezia eman gura dio, aurten, Gizarte Ongizate Sailak. "Urtero moduan, puntu morea egongo da udaletxeko balkoian, eta, bestalde, ikur hori daramaten telazko 460 poltsa banatuko ditu Udalak astelehenetik aurrera", azaldu du Gizarte teknikari Naiara Unamunok. "Ideia da etxebizitza bakoitzera gutxienez bat heltzea, eta agortu bitartean banatuko dira, bai udaletxean bai herriko komertzioetan".

Puntu moreak banatuko dituzte, baita ere, herriko komertzioetan zein enpresetan. "Pegatinak dira, kristalezko leihotetan edo ateetan jartzeko. Herriko tabernetara ere eramango ditugu, zabaldutakoan".



Puntu moredu poltsa bat; astelehenetik aurrera banatuko ditu Udalak. L.Z.L.

Elkarretaratzea ere deituta dago eguaztenerako. Plazan izango da, 19:30ean.

Telefono zerbitzuak, 24 orduz
Arrisku egoeran dauden emakumeek jakin behar dute 112

zenbakira deitu dezaketela. 900 84 01 11 telefono zenbakia ere zabalik dago 24 orduz. Profesionalek erantzuten dute, eta konfidentzialtasun eta anonimotasun osoa bermatu. Udal zerbitzuak ere arreta emateko daude.



Adela eta Martirio Bernarda Albaren etxean antzezlan. NAITA PRODUKZIOAK

Mundu itxi, sakon eta itogarria

La casa de Bernarda Alba obra oinarri hartuta sortua da domekan, 18:30ean, Espaloian izango den antzezlan. Umore ukituak ditu, baina hainbat emakumek oraindik ere bizi duten mundu itxi, sakon eta itogarria irudikatu nahi du. Sarrera doan da, erreserbarekin.

Formakuntza saio bereziak eskolan

Herri Eskolan ere aintzat hartuko dute Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna, eta ordu eta erdiko formakuntza saioa antolatu dute LH-5eko eta LH-6ko ikasleen gurasoendako. Azaroaren 25ean izango da, 17:30ean. *Ez heririk ez printzesarik* programaren barruan kokatzen da tailerra, eta hainbat gai jorratuko dituzte bertan: genero-identitateen eraikuntza eta sozializazio prozesua, mitoen zein mezuen transmisioa eta betikotzea, aniztasunean oinarritutako hezkuntza... Hala, genero erreferenteen eta ereduaren alternatibak landuko dituzte. Matiz elkarteke hezitzaile batek gidatuko du saioa. LH-5eko eta LH-6ko ikasleek ere jaso dute gaiaren inguruko formakuntza; izan ere, aurretik programa bereko bina orduko hiru saio egingo dituzte.



NIRE USTEZ

PATXI BASAURI ELKORO

Ferixa Nagusiko lehen bultzatzaileak

Joan berri zaigu Joxe Arantzabal *Etxebarri*. Miguel Ojanguren *Agarre* eta Gregorio Romanelli ere aspaldi ez dela agurtu genituen. Gogoan dut *Etxebarri* eta *Agarre* Ferixa biziberritu behar zela eta nola etorri ziren udaletxera. Prest zeuden lanerako. Babesa eskatzen zuten. Ganadua, makineria, barazki eta artisau postuak, burdindegiko postuak... Dena zegoen antolatzeko. Romanelli berehala batu zen eta lan handia egin zuen han eta hemen Ferixa ezagutzera emateko. Elgetako Ferixa 1981ean berreskuratu zen. Bailara mailako kategoriakoa, arrakasta itzela izan zuen. Hurrengo urtean, probintzia mailako kategoria hartu zuen, eta 1.500 auto zenbatu genituen. Lau edo bost mila pertsona. Egundokoa. Herria ere asko inplikatu zen. Dirua behar zen, eta herritarrek egon ziren Elgetako sarrera guztietan dirua kobratzen. Jatetxeek eta elkarteek ere lan handia egin zuten bisitari horiei guztiei zerbitzu egokia emateko. Ferixak eman ditu ezagutzera Elgetako jaiak. Nire ustez, lehen bultzatzaileei aitortza zor diegu, eta garrantzitsua litzateke gaur egungoek herriaren babesa jasotzea.

GORA ETA BEHERA



JOSE RAMON SARASUA

Autoen pneumatiko pila basoan botata

"Hau dago Partaititik Elgeta aldera doan baso batean. Orain dela urte asko ikusteke nengoen halakorik", salatu du Jose Ramon Sarasuak. Jokabide negargarria, zalantzarik gabe.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

OHARRAK

Euskaraldia martxan

Ahobizi zein *belarriprest* txapak soinean, gaur ekin diote ariketari Elgetan ere. 173 *ahobizi* eta 27 *belarriprest* dira, oraingoz, baina izen-ematea hilaren 24ra arte luzatu dute *Euskaraldia.eus* atarian. Euskaraldiari buruzko argibide gehiagorako, jo zenbaki honetako erdialdeko gehigarri berezira.

Izan Bidea: argazkia

Izan Bidea ekimenaren baitan, Sarek argazkia ateratzera deitu ditu elgetarrak. Domekan 12:00etan abiatuko da taldea plazatik, eta argazkia 12:30ean aterako dute. Eskatu dute maskarak eta banderatzok eramateko.



Kiroldegi berritua barrutik, rokodromotik aterata; kantxa berrirako egurra hurrengo astean helduko da. ARGAZKIAK: JOKIN BEREZIARTUA

Martxa onean doaz lanak, baina birusak erabakiko du kiroldegia noiz ireki

Labegaraietako kiroldegia berritzeko lanak urtaril erdialderako amaitzea espero dute, baina pandemiak zehaztuko du noiz eta nola erabili ahalko den; irisgarritasuna bermatu dute, aldagela berriak egin, rokodromoa bikoiztu eta taberna berritu, besteak beste

Jokin Bereziartua BERGARA

Labegaraietako kiroldegia eta ingurua oso gune erabilia da bergararentzat eta horregatik aspalditik da lehentasunezkoa Udalarendako 1980ko hamarkadatik apenas interbentziorik izan ez duen eraikina eraberritzea.

Lehen faseko lanak burutu ziren, eraikin zaharraren ondoan berri bat altxatu eta bertan aldagela berriak eta Beti Busti elkartearendako biltegia egokitzeko. 2020ko maiatzean ekin zioten bigarren faseari, kiroldegia barrutik eraberritzeko. Alkatearen arabera, lanak oso ondo doaz, oraingoz: "Espero dugu urtaril erdialderako lanak bukatuta egotea eta hilabete horretan bertan kiroldegi berritua erabilgarri izatea. Badakigu jakin, hala ere, egoera sanitario honek kirolaren esparrua ere guztiz baldintzatu duela, eta ez dakigu

ze erabilera eman ahalko diogun". Pandemiaren bilakaeraren arabera modu bateko edo besteko erabilera izango du kiroldegi berrituak urtariletik aurrera.

Proiektua Diputazioaren dirulaguntza bati lotuta dagoenez, lanek epe-muga bat dute, Udalak pandemiagatik luzapen txiki bat eskatu duen arren. "Dirulaguntza horiek 2020ko amaiera ezartzen zuten epe-muga moduan, eta epe hori betetzen saiatu gara une oro. Hala ere, COVID-19ak ekar zitzakeen atzerapenengatik luzapen txiki bat eskatu genion Diputazioari, eta otsailera arte-

"URTARRILEAN OBRA BUKATUTA EGOTEA NAHI DUGU, MARJINA GEHIAGO IZAN ARREN"

GORKA ARTOLA, ALKATEA

ko marjina badaukagu", dio Artolak. Diputazioaren Kirol Saitetik 590.000 euroko dirulaguntza jaso du Udalak eta Ondare Saitetik, ezin da-eta ahaztu eraikina ondare industrial dela, ia 3.000 euro. Aurrekontu osoa 2.600.000 euro ingurukoa da, eta bigarren fasean Artzamendi enpresa ari da lanean.

Irisgarritasuna eta aldagelak

Egin diren askotariko lanen artean nabarmentzekoa da lehen ez zegoen irisgarritasuna bermatuko dela orain, arrapalak eta igogailua jarrita. Bestetik, eskalatzeko espazioa itxi eta bikoiztu egin da; harmaila berriak jarriko dira aldamenetan; berogailua egongo da eserlekuak dauden eremuetan; auzotarrendako lokal bat egokitu dute; eta taberna erabat berritu dute. Eta, altxatu den eraikin berriari es-



Gorka Artola, Juanjo Azula, Leticia Alvarez eta Iñaki Ugarteburu, kiroldegiaren atarian.



Rokodromoa itxi egin dute —eskalatzaileen eskaera nagusia—, eta espazioa bikoiztu.



Eraikin berriko pasilloa, eraikin zaharrari lotuta; bertan joango dira aldagela guztiak.

ker, aldagela eta komun gehiago izango dira erabilgarri. Zehazki esateko, hiru aldagela bikoitz egongo dira, horietako bat egokituta; bi komun; eta epaileen-dako bakarrik izango den aldagela bat ere bai. Eta, esandako moduan, Beti Bustikoez piraguak gorde ahal izateko biltegi altu bat ere izango dute.

Hori bai, kantxa izango da kiroldegiko instalazio garrantzitsuenak, eta laster helduko da egurra zoru berria jartzeko: "Zoruan aurreikusi gabeko lan batzuk egin dira, isolamendua, ziurtatzeko eta hori egin dago.

"HIRU ASTE BEHARKO DIRA KANTXA JARRI AHAL IZATEKO; EA DENA ONDO DOAN..."

IÑAKI UGARTEBURU, KIROL TEKNIKARIA

Hurrengo astean helduko da kantxarako egurra, eta aurreikusten da hiru astean kantxa berria gertu egongo dela. Garbi dago kiroldegi honetako instalazio garrantzitsuenak dela; ea dena ondo iristen den", dio Kirol teknikari Iñaki Ugarteburuk.

Pandemiak beharrak txikitu ditu

Lanek iraun artean Labegaraietako erabiltzaileak beste herri batzuetara bideratzeko beharra nabarmen txikitu du pandemiak, Ugarteburuk azaldu duenez: "Inguruko herriekin berba egin da genuen haien instalazioak erabiltzeko Gabonak bitartean, entrenamendu zein partiduetarako. Baina pandemiak nabarmen txikitu du gure kirol klubaren beharra; zoritxarrez, geldi daude kirol federatua eta eskola-kirola. Alde horretatik, gauzak erraztu dizkigu pandemiak".

Sortu: "Diru publikoa herritarrontzat izan behar da"

Jaurlaritzak krisia nola kudeatu duen salatu dute: "Zerbitzu publikoak oso egoera kaskarrean daude"

J.B. BERGARA

Sortuk, LABek eta Ernaik kalea irtetea erabaki dute, aldarrikapen orokor batekin: "Diru publikoa, herritarrontzat izan behar da. Egoera jasanezina da". Duela bi aste buru egindako giza kateari auto karabana eta "ekintza koloretzua" batu zitzaizkion joan den asteburuan, eta iragarri dute datozen egunotan herriko pentsiodunek eta mugimendu feministak antolatutako dituzten mobilizazioekin bat egiten dutela.

Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa kritikatu du Sortuk: "Zerbitzu publikoak eta sozialak oso egoera kaskarrean daude: ospitaleak eta Bergarako anbulatorioa gainezka daude, langile faltagatik; ikastetxeak nekez ari dira lanean, langile faltagatik, eta ratioak handiegiak dira; Jaurlaritzaren konpetentzia diren komertzio eta, bereziki, ostalariak egoera larrian daude, itxita eta ia laguntzak jaso gabe; pentsiodunek miseriazko pentsioekin jarraitzen dute eta langabezia estruktural bilakatu da ehunka bergararentzat; eta Europako dirulaguntzak irabaziak pilatzen ari diren multinazionalak eta AHTrak bideratzea proposatu dute".

Izan Bidea: asteburu osorako ekimen sorta, euskal presoan alde

Gaur, elkarretaratzea egingo dute, San Martin plazan (19:30). Bihar, Ibon Muñoa preso ohiak *Gure ama-lur feminista* liburua aurkeztuko du, kartzela zaharrean (18:30); edukiera mugatua denez, aurretik izena ematea komeni da, ibonliburua@gmail.com helbidean. Domekan, San Martzialeko buelta egingo dute, autobus geltokitik irtenda (10:30).



Bedelkar elkarteko eta Udaleko ordezkariak, bonu berrien kanpaina iragartzeko agerraldian, Bidekurutzetan. JOKIN BEREZIARTUA

Bonu berriak martxan, abenduaren 31ra arte

Udazkeneko eta neguko erosketa bonuen kanpaina martxan jarri du Udalak, 120.000 euroko inbertsioa eginda, eta 16 urtetik gorako bergarar bakoitzak gehienez 200 euro gastatu ahal izango ditu; 'Bonoak.eus' webgunean egin daitezke eskaerak dagoeneko

Jokin Bereziartua BERGARA

16 urtetik gorako bergararrekin zuzendutako erosketa-bonuen kanpaina berria martxan dago eta abenduaren 31ra arte edo Udalak bideratu dituen 120.000 euroak bukatu arte iraungo du. *Bonoak.eus* aplikazioa izango da udazken eta neguko kanpainaren oinarria, eta bertan eman beharko dute izena erabiltzaileek eta merkatariak; modu digitalean ez ezik, fisikoki ere eskuratu ahal izango dira oraingoan bonuak, establezimenduetan.

Pandemia hasieran martxan jarri zen kanpaina, bonu guztietan aplikatzen zen deskontu bera; oraingoetan, ordean, ez. Produktuaren edo zerbitzuaren

arabera, %20ko edo %5eko deskontuak daude. %20ko deskontua izango dute elikagaiak ez diren produktuek; jatetxeek, taberneak eta ostatuek; eta ile-apaindegi, estetika zentro edota konponketetarako zerbitzu pertsonalek. Eta %5eko deskontua aplikatuko da, adibidez, osasunarekin lotutako zerbitzuetan, hezkuntza ez-arautuan eta elikagaien salmentan.

Eta, horrez gainera, aurreko kanpainarekiko beste aldaketa bat ere badago: modu digitalean ez ezik, fisikoki ere eskuratu ahal izango dira oraingoan erosketa-bonuak; hain zuzen ere, bertan parte hartzen duten establezimenduetan.

200 euro gehienez pertsonako

Erosketa-bonuak erabili ahal izateko, Bergaran erroldatuta egotea eta 16 urte baino gehiago izatea derrigorrezko baldintzak dira. Eta lehen kanpainan *Kuttuna.org* plataforma izan bazen protagonista, bigarren kanpaina honek *Bonoak.eus* webgunea izango du oinarri. Webgune horretan zuzenean edota kanpainara atxikitako establezimenduen bitartez hartu ahal da parte. Honako hauek dira egin beharreko urratsak: *Bonoak.eus* webgunean alta eman, erosketa egingo den establezimendua aukeratu eta bonuaren zenbatekoa aukeratu eta erosi. Herriar bakoitzak gehienez 200 euro

baliatu ahalko ditu bonuetarako; hau da, lau lagunez osatutako 16 urtetik gorako familia batean gehienez 800 euro gastatu ahalko dira bonuetan.

Bonua erositakoan, PDF formatuko fitxategi bat deskargatu ahal izango da webgunetik. Fitxategi hori eroslearen posta elektronikora ere bidaliko da, eta *Bonoak.eus*-eko erabiltzaile kontuan eskuragarri izango da, 2020ko abenduaren 31ra arte. Bonuen erosketa ordainketa-atari baten bidez egingo da. Horrek eragiten duen kostua bere gain hartuko du Udalak.

Gabonetako kanpaina, "airean"

Merkatariek biziki eskertzen dute, pandemiak eragindako krisiari hobeto aurre egiteko "ezinbesteko" tresna bihurtu direlako bonuak: "Bigarren kanpaina ere oso begi onez hartzen dugu tokiko merkatariok, igartzen da Udalak benetako apustua egiten duela bertako komertzioaren alde garai zail hauetan. Dendak ez ditugu itxi behar izan; ostalarien egoera beste bat da, baina edozein laguntza oso ondo dator", adierazi du Bedelkarko presidente Maitane Azkaratek.

Kuttuna.org plataformaren bidez funtzionatu zuen lehen kanpainak oso harrera ona izan zuen eta bigarren honetan ere bera gertatzea espero dute Udalak zein merkatariak. "Lehen kanpaina itxita geunden garaian heldu zen eta oso lagungarria izan zen berriro ireki ahal izan genuenean salmentak berpizteko; bultzada oso ona izan zen", dio Azkaratek. Udazkena eta negua, Gabonak tarteko, oso garai indartsua izan ohi zen pandemia aurretik: "Gabonetako kanpaina nolakoa izango ez dakigu, dena dago airean".



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



Ostalarietako batzuk lrala kalean atera dute talde argazkia asteen, biharko manifestaziorako dei egiteko. BERGARAKO OSTALARIAK

"Kriminalizatuak" sentitu direlako, manifestaziora

Bergarako ostalariak protestan irtengo dira bihar, zapatua, San Martin plazatik (18:00); Jaurilaritzak azaroaren 7an ateak berriro ere ixtera behartu ostean, "egoera dramatiko" bizi dutela adierazi dute: "Nork ordainduko du bigarren itxiera hau? Ostalariok berriro?"

Jokin Bereziartua BERGARA

Azaroaren 7an ateak itxi behar izan zituzten berriro, COVID-19aren kutsatze datuek okerre- egin eta Jaurilaritzak behartuta. Eta ordutik "amesgaiztoa" bizi dute. Pandemiaren hasierako itxialdiak "min handia" egin bazien, bigarren honek "egoera dramatikoan" utzi ditu Bergarako ostalariak. Egoeraren zailtasuna ikusita, herriko ostalari guztiek –edo gehienak, behintzat– batzea erabaki dute, batasunak indar handiagoa emango diela sinistuta, eta manifestazioa deitu dute biharko, azaroak 21, San Martin plazatik irtenda (18:00). Aurreratu dute banatzaileen kamioiren bat ere batuko dela protestara, itxierak tabernariei ez ezik banatzaileei ere zuzenean eragiten dielako, besteak beste.

"Sektore kriminalizatua gara"

Manifestazioa deitzeko hainbat arrazoi dituztela adierazi dute eta herritarrei ere eskatu diete

protestara batzeko. Besteak beste, sektore kriminalizatua izan direla sentitzen dute, eta ez daude gertu hori onartzeko: "Ez dugu onartzen ostalaritzaren aurka abiatu duten kriminalizazio kanpaina, alarma egoeran ezarritako arau guztiguztiak errespetatu eta bermatu direlako".

Bergarako kasuan, diotenez, ez dago frogatuta agerraldirik izan denik taberna edo jatetxeren baten: "Ze datu edo informazio dago ostalaritza guztiz ixteko? Itxierara kondenatu duten sektore bakarra izan da ostalaritzarena. Bigarren mailako sektorea garena ulertu behar dugu? Nork ordainduko du bigarren itxiera hau? Ostalariok,

HERRITARRAK ERE DEITU DITUZTE BIHAR EGINGO DUTEN MANIFESTAZIOAN PARTE HARTZERA

beste behin ere?", galdegin dute. Eta beste galdera bat ere badute agintariei zuzendutakoa: "Agintariei urte luzez bete zaie ahoa Euskal Herriko ostalaritzaren maila eta erakargarritasuna mundu mailako onenetakoa dela esanez, lan eta dedikazio askokin lortutako fruitua dela. Non dago euren laguntza gehien behar ditugunean?".

Udal Gobernuarekin batzarrak

Bergarako ostalariak orain gutxi hasi dira modu antolatuan elkartzen, eta dagoeneko egin dituzte pare bat bilera Udal Gobernuako ordezkariekin; oraingoz, bilerok elkar entzuteko baliatu izan dituzte, bereziki, eta asmoa dute elkartzen jarraitzeko. Udalak ez dizkie zergak eta terrazen tasak kobratuko bigarren itxialdi honetan ere, eta, plan integralaren aurkezpenean adierazi zuten, Gobernuaztertzen ari da ze beste laguntza eskaini: "Badakigu sektore oso garrantzitsua dela Bergararentzat".

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Gorla "tamalgarri", asteburua pasa ostean

Asteburu ostean zikin zegoen Gorla: "Gaztetan zaborra etxeratu egin behar dela ez genuen denok ikasi... Gorlako zakar gune horri beste kudeaketa bat eman behar zaio, tamalgarria da".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Etxe barruan ospatuko du Santa Zezilia eguna Musika Eskolak

Ohiko kalejirarik eta txokolate-janik ezean, eskolan bertan antolatu dituzte jarduerak, pegatina berezi bat eta guzti

J.B. BERGARA

Azaroaren 22an ospatuko da, mundu osoan, Santa Zezilia eguna, musikarien zaindaria. Urtero zita garrantzitsua izaten da Bergarako Musika Eskolarentzat, eta pandemia aurreko garaiko klasikoak ziren kalejira eta txokolate-jana. Baina aurten ezin dute ohi moduan ospatu, COVID-19ak Santa Zeziliarako asmoak ere jarri dizkie hankaz gora. Aurten erabaki dute ospakizunak ikasle taldeka eta klase ezberdinetan egitea: "Ez diogu musikarien eguna ospatzeari

utziko". Hainbat jarduera egingo dituzte eskolan bertan, eta ekintzekin hasi ziren. Azaldu dutenez, kontuan hartuta ezin direla ikasle guztiak egun berean elkartu, ospakizunak aste osoan zehar izango dira, klase eta musika taldeen barruan.

'Ezerk ez gaitu isilaraziko'

Ikasle guztien artean Santa Zezilia egunerako Valen Moñuxek propio diseinatutako pegatinak banatuko dituzte, *Ni musikaria naiz. Ezerk ez gaitu isilaraziko* leloarekin.

OHARRAK

Bisitak euskararen aztarnen erakusketara

Heriotzarako erromatar ohiturak Soriako Tierras Altas eskualdean. Euskararen aztarnak antzinako epigrafian izeneko erakusketara abenduaren 20ra arte dago Laboratoriumen. Bisita gidatuak egingo dira Eduardo Alfaro arkeologoarekin: azaroaren 21ean (11:00) eta 27an (18:00) eta abenduaren 12an (11:00) eta 18an (18:00).

Pol-Polen Mendi Astea, azaroaren 23tik 26ra

Hilaren 23an, hitzaldia izango dute bulegoan (19:00), Tetxus Barandiaranen eskutik: *Eskalada jasangarria Gipuzkoan*. Hilaren 24an, Alex Txikonek *Naked Mountain* filma aurkeztuko du Seminarixoa (18:30). Eta hilaren 25ean, ikastaroa izango dute bulegoan (19:00), mendiko segurtasunaren gainean.

"Garapenerako laguntzen forma du kolonialismoak"

CECILIA THEMME EMAKUME MIGRATU ETA ARRAZIALIZATUEN SAREKO KIDEA
Emakumeen Mundu Martxaren V. ediziotik tiraka, Martxantere antolatutako hitzaldiek hainbat gai landuko dituzte azarotik martxora bitartean. Gaurkoa izango da lehena

Jone Olabarria BERGARA

Migrazioen kudeaketa Europa gotorlekuan izeneko hitzaldia eskainiko du gaur kartzela zaharrean, Cecilia Themmek (Lima, 1967), Emakume Migratu eta Arrazializatuena Euskal Herriko Sareko kidea.

2016an sortu zenuten Euskal herriko emakume arrazializatu eta migratuen sarea; zer helbururekin abiatu zenuten?

Kolektibo ez misto bat gara, Euskal Herrian bizi diren emakume arrazializatu eta migratuek soilik osatzen duguna, Euskal Herrian bizi dugun egoeraz hausnartzeko asmoz. Proposamenaren gure arbasoen ondarearekin jarraitzea da; hau da, arrazakeriaren, kolonizazioaren eta pairatzen dugun ordena patriarkalaren aurka borrokatuko den feminismoa eraikitzen joatea. **Kolonialismoa pairatzen duten emakumeen ahotsa entzutearen garrantzia azpimarratu izan duzue...** Beharrezkoa ikusten genuen gure artean sareak sortzea, gure kontuez hitz egitea, guri eragiten digutenez, sistema kolonial, arrazista, kapitalista eta heteropatriarkalaren baitan beste gorputz batzuek bizi dituztenen bestelakoak direlako. Baita gure narratiba propioak guk geuk eraikitzeko beharra ere, bitar-



Cecilia Themme, emakume migratu eta arrazializatuena sareko kidea. GOIENA

tekaririk gabe. Adibidez, emakume migratuek hitz egin behar badugu, gu geu izatea hitza eta protagonismoa hartzen dugunak, eztabaidatzea eta argudio horiek guztiak jartzea mahai gainean. **Gaurko hitzaldira etorrita, zergatik Europa gotorlekua?**

Europa, iparraldeko herrialde asko moduan, itxita dago, migratzeko eskubidea batzuentzat bakarrik utziz, eta ez guztientzat, hala, giza eskubideak urratuz. Kolonialismoak indarrean jarraitzen du; lehen, itsasontziak erabiltzen ziren, eta, orain, modernitate, nazioarteko enpresak

eta garapenerako laguntzen forma du. Mugak altxatzen dira pertsonentzat, baina ez lehengai eta merkantzentzat. Etengabeko harrapaketa eta pobretze horrek sortzen ditu migrazioak. Diskurtso hegemonikoaren atzean ordena sozial bat dago, arrazazkoa. Estraktibismo horrek milaka pertsona migratzera behartzen ditu; asko migratu nahi ez duten pertsonak izaten dira, euren burua horretara behartuta ikusten dutenak. Gorputz batzuk horrela ere heriotzara kondenatuta daude; nekropolitikari esker, heriotzaren

Itaiaren eta Martxanteren deia

Bizitza biolentoen aurrean gaitasun sozialak antolatu lelopean, hitzaldia eta mobilizazioa antolatu ditu Itaiak, azaroaren 25ean izango den Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Egunaren baitan. Hala, *Indarkeria matxistari aurre egiteko antolakuntzaren beharra* hitzaldia izango da Bergarako kartzela zaharrean domekan, azaroak 22, 17:30ean. Era berean, mobilizazioa deitu dute azaroaren 25erako, 18:00etan, Bergarako Fraiskozuri plazan –monolito parean–.

Gaurko antolatutako hitzaldiaz gain, Martxantere kale ekintza antolatu dute eguaztenerako, azaroak 25. Azaldu dutenez, herritarrek mobilizatzea da asmoa: "Indarkeria matxistaren askotariko erro eta aurpegiei aurre egiteko ezinbestekoak ditugu plazak, herritarrek mobilizatu eta gogoeta sustatzea". Azken urteetan azaroaren 25aren bueltan kale-ekintza "irudimentsu eta performatiboak" egiten aritu direla gogorarazi dute, eta herritarrek parte-hartzea eta gogoeta egitera animatu dituzte: "Akelarreak, antzerkiak, keimada, kalejira, istorio kontaketa, performanceak... Aurten ere izango dugu zer entzun, zer ikusi, zer pentsatu eta zer aldarrikatu". Segurtasun baldintzetara moldatzeko, ikus-entzuteko kale-ekintza egingo dute, distantziak mantenduz. 19:00etan plazan elkartzea dei egin dute.

politika horiek hainbat pertsona hiltzera kondenatzen dituzte. Horren adibide da egun dugun hobi komun handienetako bat, Mediterraneo. Hala, Europa gotorlekua pertsonentzat itxita egotea, eta ez merkataritzarako indarrean dagoen sistema kolonialaren ondorioz ulertu behar da egungo testuinguruan.

Zer dakar Europako estatuentzat itxiera horrek?

Espainiako Estatuaren kasuan, esaterako, migrazio-politikaren kontrola industria handi bilakatu da. Por Causa fundazioaren datuen arabera, 2014tik 2019ra bitartean Espainiako Gobernuak 1.600 kontratu publiko baino gehiagoren bidez 164 milioi euro esleitu zizkien migrazioa kontrolatzeko enpresei; gehienak lehiaketa publiko gabe esleituak, gainera.

Nola egin aurre diskurtso hegemoniko eta kolonialismo horri?

Pertsona arrazializatu eta migratuak askotarikoak gara gure borroketan; hortaz, askotariko erresistentziak sortzen dira, narratiba bera bezala. Nire kolektiboaren kasuan, gauzak dekolonialitatearen paradigmatik ikusteak zentzua ematen dio gertatzen den guztiari, baita errealitatea lerro jarraitu gisa ez ulertzeak. Guretzat leerroak zirkularrak dira, nondik gatozen eta norantz goazen finkatuz.

"2014-2019 TARTEAN ESPAINIAK 164 MILIOI EURO BIDERATU ZITUEN MIGRAZIOA KONTROLATZERA"

Xabi Solanok 'Bi' kontzertua eskainiko du gaur Seminarixuan

Kontzertuko sarrera guztiak agortuta iritsiko da Solano bere azken lanarekin, kantu berriak eta bertsioak batuz

J.O. BERGARA

Sarrerak agortuta, Xabi Solano Maiza trikitilari eta musikariak emanaldia eskainiko du gaur Bergarako Seminarixuan, 19:00etan. Plaza-gizona izateaz gain, Etzakit, Esne Beltza, Fer-

min Muguruza, The Solanos eta beste hainbat proiektutan ibilitakoa da Solano, baina, oraingoan, *Bi* bakarkako bigarren lanarekin dator, 2019. urtean argitaratua. Bi CDk osatzen dute lana, lehenak hamahiru abesti

berri ditu eta bigarrenak, hamar bertsio. Trikitia berreskuratuta, bere kantu kuttunak bertsionatu eta erritmo desberdinak landuta, konposizio berriak ere lantzen ditu bere lanean.

Emanaldia martxoan egiteko zen Solano Bergaran, baina pandemiak eraginda azarora atzeratu behar izan zuten kontzertua. Sarrerak agortu dituen kontzertuan segurtasun neurriak mantentzeko, edukiera mugatua egongo da eta maskara jantzita eraman beharko da une oro.



Xabi Solano Maiza bere bigarren bakarkako lanarekin izango da Bergaran. GOIENA

Udal laguntzak izango dituzte ostalariek

Udal Gobernuak asteko batzordean aztertu behar zituen ostalariekin martitzenean izandako bileran jasotako beharrei erantzuteko laguntzak. EAJko udal taldeak uste du "egoeraren erabilera politiko alderdikoia" ari dela egiten EH Bilduko udal taldea

Oihana Elortza OÑATI

Zapatuan *Diru publikoa herriarentzat leloarekin* egindako manifestazioan herriko hainbat eragilek eta norbanakok hartu zuen parte; herriko ostalariak ziren horietako asko. Hori dela eta, EH Bilduko udal taldeak azaldu du ez dabilela entzregor: "Erdigunean jarria dugu herri-tarrek larunbatean emandako mandatua. Pertsona guztiak babesteko eta batzuek bizi duten egoera gogorra ahal beste leuntzeko konpromisoa hartzen dugu".

Martitzenean bilera egin zuten udal ordezkariak herriko ostalariekin, Santa Ana aretoan, eta atzoko, eguena, batzordean landu behar zituen Udal Gobernuak bilera hartan ostalariei laguntzeko hartutako ideiak.

Bost bat laguntza

Izaro Elorza eta Xabier Igartua udal ordezkariak izan ziren Udalaren eta ostalarien arteko bileran, "euren kezak zuzenean jasotzeko eta laguntza zertan behar duten jakiteko, zer laguntza mota eskertuko luketen jakiteko", Sozioekonomiako batzordeburu Xabier Igartuak azaldu duenez. Haiekin hitz egin ostean eta "babesa adierazita", laguntza hauek ematea aztertu behar zuten atzo, eguena, Udal Gobernuko batzordean: tabernak itxia dauden denbora tarteari dagokion hondakinen eta terrazen tasak itzultzea; Gipuzkoako Urak agentziarekin ere egon hark berdina egin dezan; diru lerro bat jartzeko lanak egin negozioa itxita duen denboran aurrera egiteko arazo ekonomikoak dituen ostalariari laguntzeko; herriko ostatu eta dendetan erabiltzeko martxan dagoen bonuen kanpainan aldaketa bat egitea, ostalaritzan gastatzekoek epe luzeagoa izan dezaten –egun, abenduaren 31 aurretik erabili behar dira bonuak, baina laster adieraziko dute ostalaritzan gas-



Plazako taberna batean terrazako mahaia eta aulkiak pilatuta. O.E.

LAGUNTZEKO PREST DAUDELA ADIERAZI DUTE UDALBATZA OSATZEN DUTEN BI ALDERDIEK

tatzeko bonuak noiz arte erabili daitezkeen; dendetan erabiltzekoen epea hasierako bera izango da. Eta hirigintza arauak malgutzea ere aztertu behar zuten, egoerak irauten duen bitartean neguan terrazak jartzeko zailtasunei aurre egin eta lagungarriak izango zaizkien elementuak jartzeko; hau da, karpak edo estalkiak jartzeko, adibidez. "Hau puntuala izango litzateke, soilik egoera honi erantzuteko", Igartuak zehaztu duenez.

Ostalaritza ixteko neurria Jaurlaritzatik etorri den moduan laguntzek ere handik etorri behar dutela uste du Udal Gobernuak, baina pandemia hasi zenetik izan duela argi "inor alboan utzi gabe" egin behar dela aurrera eta argi ikusten duela herriarrei erantzukizuna eta konpromisoa eskatzen zaien neurri berean, euren zereginak behar moduan

bete beharra dutela erakundeek. "Gu gure zatia –eta geure eskumenekoa ez dena– egiten gabil-tza. Beste batzuek ere hala egitea eskatzen dugu".

EAJren haserrea

EAJko udal taldearen ustez, Udal Gobernuak gezurra esaten du Jaurlaritzak edo Aldundiak ezer egiten ez dutela esatean. Diote "pandemiak ekarritako egoera hain lazarri honen erabilera politiko alderdikoia" egiten ari dela EH Bildu, "batere eskrupulurik gabe, gainera". Jeltzaleek bidalitako prentsa oharrean salatu dute "EH Bilduk lehen agerraldian itxiera osoaren alde" egiten zuela "eta orain, bigarren agerraldian, neurri murriztaileak hartu direnean", ez dituztela babesten. "Hipokrisia eta erabilera politiko baztertu eta elkarlanerako momentua da, ez da batere koherentea egun batean gauza bat eskatzea eta hurrengoan kontrakoa, interese alderdikoiak gizartearen beharren gainetik jarrita", gaineratu dute. "Elkartasuna, babesa eta konpromisoa" adierazi diete "bereziki sufritzen ari direnei".

Larreratze baldintzak eman ditu Udalak, eta zigorra gogorarazi

Dirulaguntza eskatzen dutenek ganadua larreratzen dutela egiaztatzeko ikuskaritzak egin ahal izango dituzte

O.E. OÑATI

Datorren urteko udaberrian euren ganadua Aloña eta Artia aldean larreratzeko asmoa duten herriarrendako oharra prestatu du Udalak, baldintzak zeintzuk diren azaltzeko eta bete beharrekoak direla gogorarazteko.

Animaliak larreratzeko, esaterako, mendietara zenbat buru eramango dituzten jakinarazi beharko dio herriarrendak Udalarri. Ondo identifikatu beharko dituzte, eta hazteriarri edo sarnari, *tricomonas bovina* eta *karbunko* deritzen gaitzei aurre egin ahal izateko neurriak hartu dituztela egiaztatu. Horren ziurtagiria albaitari batek sinatu beharko du eta abelburuak mendira eramane baino aurreko hilabeteko epean egindakoa izan beharko du. Eskakerak, baina, orain egin behar dira; abenduaren 18a da azken eguna.



Ardiak Aloñan. GOIENA

Bestalde, zenbait ganaduzale kexatu egin dira jabe batzuek, ganadua ez larreratu arren, eskaera betetzen dutela nekazaritza ingurumenaren laguntzak jasotzeko. Hori zigortu egin daitekeela jaso du oharra, eta ikuskaritzak egin daitezkeela.

Inazio Arregi hil da astean

Loiolako Herri Irratiaren sortzaile eta Vaticano Irratiko albistegietako zuzendari izana, 89 urterekin hil zen, astelehenean, Loiolan, Inazio Arregi (Oñati, 1931-2020) jesuita. Irrati eta telebista publikoak abian jartzeko proiektuan izan zen. Vaticanoan eman zituen urte asko, eta, behin erretiroa hartuta, Bilbon egin ditu azken urteak, Jesuiten Deustuko egoitzan.




GOIENA

Domekan, Sahararen askatasuna aldarrikatuko dute

Sahara hurra. Sahara askatu lelopean, Sahara askearen aldeko elkarretaratzea egingo dute domeka eguerdian, 12:30ean, Foruen plazan. Herrian bizi diren sahararrek parte hartuko dute, besteak beste, eta amaieran, norbaitek hitza hartuko du egoera zein den, eurek nola ulertzen duten eta nola erantzun gura duten azaltzeko.

Presoen alde egingo dute martxa, bihar, Korrika eredu hartuta

Korrika eredu hartuta, hiru kilometroko herri barruko zirkuitu bati itzulie emango diote bihar, 12:00etan, plazatik abiatuta. Gezi bat izango da lekukoa, eta, ibilaldiko puntu ezberdinetan eskutik eskura pasako da. Gura duten moduan egingo dute ibilbidea; azken metroak, oinez. Lekukoaren mezua irakurriko dute amaieran plazan.



Sensibilizazio kanpainako kartela jartzen Eroski bidaia agentziako langilea, kale Barrian. GOIENA

Indarkeria matxistaren aurkako kanpaina, kalean

Azaroaren 25ari begira Udalak jarri duen kanpaina da, indarkeria matxistaren inguruan herritarrek kontzientziatzeko. Urtea bukatu bitartean, aurten herrian egon diren indarkeria kasuak aztertuko ditu Udalak, Ertzaintzarekin eta osasun zentroarekin

Oihana Elortza OÑATI

Indarkeria matxistaren aurtean, elkarrekin leloa duen sensibilizazio kanpaina abiatu du aste honetan Udalak, datorren azaroaren 25ari lotuta; Jabetze Eskolan ere landuko dute indarkeriaren gaia. Datorren astean egingo den azaroko ohiko osoko bilkuran, bestalde, gaiari lotutako adierazpen instituzional bateratua onartzeko asmoa du udalbatzak.

Hamar indarkeria kasu Oñatin

Aurten, 2020an, urtariletik hona, indarkeria jasan duten herriko hamar emakume artatu dituzte Udaleko Gizarte Zerbitzuetan. Berdintasuneko udal teknikariak azaldu duenez, baina, baliteke beste batzuek Ertzaintzara deitu izana salaketa jartzeko, edo osasun zentrori. Orain, beste eragile horiekin elkartuko dira udal ordezkariak, eta aurten jaso dituzten datuak, egoerak, partekatu eta aztertuko dituzte, ondorioak atera eta hemendik

aurrera eskaintzen jarraituko duten atentzioa osatzeko eta hobetzeko. Zer tendentzia egon den, neurri zuzentzaileak jarri behar diren eta bestelako puntu batzuk landuko dituzte, eta diagnosi batean jaso. Asmoa da diagnosi hori urtearen amaierarako bukatuta egotea. Urtarrilean sinatu zuten Oñatiko Udalak, Osakidetzak eta Barne Sailak indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko protokoloa, eta alde horietako ordezkariak batuko dira orain, aurtengo indarkeria kasuen egoerak aztertzeko.

Azterketa horrek ea konfinamenduan indarkeria kasuak areagotu egin diren ere jasoko du. Lehendik egoera hori jasaten

HERRIKO ZERBITZUETAN ETA DENDETAN JARRI DITUZTE KANPAINAKO KARTELAK

zuten emakume askorendako ez da toki segurua izan etxea konfinamenduan, Berdintasun teknikariak adierazi duenez, eta kasu horiek ere arretaz aztertuko dituzte.

Manifestazioa

Sare feministak eta Udalak elkarrekin osatu dute azken urteetan azaroaren 25ari lotuta antolatutako ekintzen egitaraua. Aurten ere saiatu dira, urrian jarri ziren alde biak harremanetan, baina, egoerak behartuta, zaila egin zaie ezer zehatza antolatzeko elkarrekin. Udalak sensibilizazio kanpaina abiatu du eta sare feministak manifestazioa egiteko asmoa du. Eguenean, azaroak 24, manifestaziorako kartelak eta pankartak egiteko elkartuko dira, gartzetxean, 18:00etatik aurrera. Manifestazioa zein ordutan izango den eta zein ibilbide izango duen oraindik zehaztu gabe dute. Domekan dute hurrengo bilera, eta orduan erabakiko dute.



Hondakinak jasotzeko zakarrontziak San Lorentzo auzoan. O.E.

Hondakinak lurrera ez botatzeko sensibilizazio astea dator

Euren ideiak eman ahal izango dituzte herritarrek, eta hilaren 28rako hainbat ekintza daude antolatuta

O.E. OÑATI

Hondakinen prebentziorako Europako astearekin bat eginez, Hondakinen Astea izango da hurrengo Oñatin, hondakinak murriztea helburu, gaiaren inguruan herritarrek sensibilizatzeko. Aurrekontu parte-hartzaileetan, lurrera hondakinak ez botatzeko kanpaina egitea eskatu zuten herritarrek, eta aste honekin lotu du Udalak eskari hori.

Batetik, hondakinen arazoaren gaineko ideiak jaso gura ditu Udalak herritarrengandik; udal webgunera bidali ahal izango

dituzte, hilaren 21etik 29ra. Hilaren 28an, berriz, informazio puntua jarriko dute plazan, Agenda 2030 egitasmoak jasotzen dituen helburuak azaltzeko, eta haur zein nerabeendako ekintzak egingo dituzte. "Eguerdian umee-kin tailerra egingo dugu, karakterizatutako kartelak herrian jarri eta bitartean lurrean ikusten dugun zaborra jasoko dugu. Arratsaldean, ginkana bat egingo dugu nerabeekin", azaldu du Ingurugiro zinegotziak, Asier Iraetak. Ekintzetan parte hartzen dutenen artean kotoizko poltsak banatuko dituzte.



NIRE USTEZ

XABIER GESALAGA

Zaporeak... inspirazio iturri

06:30ean jaiki, komunetik pasadatxoa, kafeak *tan-tan-tan* [...] sukaldean, goiz usaina, gozo, epel. Irratia piztu eta... Pandemia, hildakoak, kontagio tasa... Baina kristo honen erdian, irribarretxoa eragin dit notiziak; Cadena Ser Radio San Sebastianek urtero banatzen duen "gauzak egiteko beste modu bat" entzuleen saria Zaporeak GKE donostiarrarentzat da.

Zaporeak Intxaurrendoko Elkarte Gastronomikoan sortu zen, 2015ean, pertsona errefuxiatuak Greziako irletara etengabe iristen hasi zirenean. Europaren utzikeria ikusi, eta zerbait egin behar zela pentsatu eta sinistu zuten. Zazpi kideko taldetxoak bideari ekin zion. Pandemiak ez ditu gelditu, ezta Greziako Gobernuak inposatutako muturreko neurri ankerrek ere. Nostalgiaz gogoratzen dudan Zaporeak-en sukaldeak espezia usainez eta lapikoek jariatzen duten lurrunez estaltzen ditu egunero Moria zaharretik 4 kilometrora dauden olibadiak. Edan dezagun eredugarri diren iturrietatik. Zazpi zorok sortutako ekimen bati esker, Lesbosen konfinatuta dauden 1.900 pertsona errefuxiatuk otordu duina izango dute gaur.

Ziklo-kros gose izanda ere, probarik ez aurten

Oñatiko ziklo-kros probarik ez dute antolatu aurten, eta txirrindulari talderik ere ez dute aurkeztuko. Bizkaiko Federazioak lasterketa guztiak bertan behera utzi ditu, eta, beraz, lokatzetan aritzeko aukera gutxi izango dute ziklo-kros gogoz daudenek

Maialen Santos OÑATI

Abenduan egin ohi dute urtero Oñatiko ziklo-kros proba, baina aurten lasterketarik antolatuko ez dutela eman du aditzera Aloña Mendiko txirrindularitza sailak. Bertako kide Ruper Arkauzek azaldu du azken urteetan lasterketa antolatu edo ez "zalan-tzan" egon direla, baina "aurtengo egoera" ikusita lehen momentutik izan dutela argi erabakia. "Lan handia eskatzen du antolatzeak, eta, hori gutxi balitz, ikuslerik gabe egin behar-ko genuke", aitortu du.

Herriko txirrindulariak "laguntzeko" hasi ziren lasterketa antolatzen: "Garai hartan, Gipuzkoan halako proba gutxi zeuden, eta gure neska-mutikoei parte hartzeko aukera eman gura genien". Halere, gauzak "aldatu" egin dira, eta egun proba gehiago antolatzen dituzte.

Gazteak, ziklo-kros "gose"

Herrian probarik antolatu ez arren, Oñatiko ziklo-kroseko txirrindulari taldea aurkezteko asmoa bazuten Aloña Mendikoei: "Urtero egiten dugu taldearen aurkezpena, eta ondoren, luntxa. Aurten, baina, hori ere ezingo dugu egin". Aurkezpena publikorik gabe egitea ere baloratu zuen klubak, baina ideia hori ere ezerezean geratu zen.

Bizkaiko probak, bertan behera

Bizkaian egiten dira ziklo-kros proba gehienak, baina bertako Federazioak berriki iragarri du udazken eta neguko lasterketak bertan behera utzi dituela. Hori horrela, Gipuzkoan edota hortik kanpo aritzeko aukera soilik geratu zaie txirrindulariei. "Legazpiko ziklo-krosa abendura atzeratu zuten, baina, ziurrenik, ez dute egingo", adierazi du. Hori horrela, gaur-gaurkoz, proba bakarra egingo da: Ormaiztegin urtarri hasieran dira ziklo-krosa egitekoak.



Oñatiko IX. ziklo-kros proba, 2018an. GOIENA

Egoera ikusita, taldeko txirrindulariak "penaz" daudela azaldu du, lokatz artean aritzeko "gosez" daudelako asko.

Datorren denboraldiari buruz galdetuta, azaldu du "lanean hasita" daudela klubean. Besteak

beste, eskola mailako gaztetxoekin nola antolatuko diren pentsatzen ari dira dagoeneko. "Helburua da koronabirusaren gaineko neurriak malgutu bezain azkar martxan hastea, zezenak harrapatu ez gaitzan", dio.

"Ilusioz hartzen dut mailaz igotzea"

UNAI CUEVA
TXIRRINDULARIA

Ulma-Aloña Mendin aritu ostean, junior mailatik afizionatu mailara salto egingo du Cuevak, Eulen taldearekin. **Nola hartu duzu maila igoera?** Pozik eta ilusioz nago. Aldaketa nabarmena izango da: distantzia luzeagoak, jende gehiagorekin lehiatu beharra... **Zein izango duzu erronka?** Lehenengo, lasterketak nola doazen ikusi, eta, batez ere, ikastea. Behin hori eginda,



OIHANA ELORZA

lehiatzea eta taldeari ahal bezain beste laguntzea. **Zertan ari zara orain?** Atsedean hartzen. Hala ere, datozen egunetan hasiko ditut entrenamenduak. **Ziklo-krosean arituko zara?** Egia esan, ez dakit. Asko bertan behera geratu dira, baina probaren bat egongo balitz ez nuke baztertuko. **Eta noiz estreinatuko zara Eulen taldearekin?** Pandemiak uzten digunean.

Beste era batera, baina aurten ere ospatuko dute Santa Zezilia

Musika eskolako ikasleak musika jolasak egiten ari dira eta musika bandak bi pieza eskainiko ditu domekan

Oihana Elorza OÑATI

Santa Zezilia eguna ospatzeko modua ere ezberdina izango da aurten. Hala ere, keinu bat egingo diote herriko musika ikasleek eta bandako musikariek euren zaindariari. Musika bandak bi pieza joko dituzte plazan, domekan, 13:00 inguruan. Azkenaldian entseguak egin ezinda dabilta bandako kideak, eta ezin kontzerturik eskaini; kalejirarik ere ez, baina musikarien zaindariaren egunean bere pieza, *Santa Zezilia martxa*, joko dute. Baita beste kantu bat ere.

Jose de Azpiazu musika eskolakoendako ere bestelakoa izango da aurtengoa. Ez dute emanaldirik egingo kalean, ezta txokolate-janik ere. Baina musika jolasak ari dira egiten gelaletan, eta opil bana ere hartuko dute ikasleek. "Sasoi honetan kultura astea ospatzen dute San Martin egoitzan, eta beti joan gara hara. Aurten, baina, ezin. Hortaz, Lengoia Musika Eskolako ikasleekin grabatutako bideo bat bidaliko diegu egoiliarrei". azaldu du musika eskolako irakasle Arantzazu Bikuñak.

'Txor-txor' bakarrikzeta saioa, datorren zapatuan

Azaroaren 28an, zapatua, *Txor-txor* bakarrikzeta saioa eskainiko du Xabier Artieda aktoreak, 19:00etan, Santa Ana antzokian. Euskaraldiko egitarauaren barruan, euskaldunek eguneroko egoeretan dituzten harremanei buruzko gogoeta izango du ardatz, umorearen ikuspegitik. Sarrerak doan dira: udal webgunean edota Txokolateixan har daitezke.

Azaroan zehar eskola kirolik ez dute martxan jarriko

Oñatiko eskola kirolek azaldu dute 6 eta 16 urte bitartekoei bideratutako kirol jarduerak guztiak bertan behera geratu direla, eta, hori horrela, eskola kirola ere ez dela egongo azaroan. "Hala eta guztiz ere, jaso ditugun izen-ematekin taldeak osatuta daude jada, eta baimentzen dutenean guztia prest dugu haste-ko", zehaztu dute.



SANTI MENDIOLA

Mendiolaren argazkia, saritua

El Diario Vasco-k 2021eko egutegirako antolatu duen lehiaketako lehen saria irabazi du Santi Mendiola oñatiarraren argazkiak, eta, beraz, egutegian azalduko da Zumaian ateratako argazkia. Aitortu du "pozik" hartu duela berria. Goienaren kolaboratzailea da Mendiola, eta *Puntua* aldizkariak ere argitaratu izan ditu bere argazkiak.

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN



DEBAGOIENA OSOAN!



Euskaraldi onl
Bideoa ikusteko,
eskaneatu QR kode
hau telefonoarekin.

goiena
20 URTE ZUEKIN.



Neska-mutilak, Ibarra kiroldegiko instalazioetan eskola-kirola praktikatzen. OINATZ AGIRRE

Eskola-kirola itzultzea eskatu dute eragileek

Leintz Eskola Kirolak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio azaroaren 6ko dekretua atzera bota eta "Katalunian egiten ari diren moduan" hezkuntza-zentroetako kirol-jarduerak baimentzeko. Debekuek segurtasuna "okertu" egin dutela adierazi du LEKek

Hasier Larrea ARRASATE

Gorabehera handiko asteak bizi izan dituzte ikasturtea hasi zenetik hona 6 eta 16 urte arteko eskola-kirola sustatzen diharduten euskal eragileek. Abuztu amaieran zer egingo zuten ez jakitetik hezkuntza zentroetan kirol ekintzak segurtasunez garatu ahal izateko protokoloa diseinatzeraz pasatu ziren irailean.

Neska-mutilen gurasoeekin batu ziren ondoren, hartutako neurrien nondik norakoak azaltzeko, eta, Oinatz Agirre Leintz Eskola Kiroleko koordinatzailearen arabera, "oso harrera positiboa" eduki zuten osasun-neurriak bermatzeko hartutako irizpideek.

Gauzak horrela, irail erdialdean ireki zuten Leintz bailaran eskola-kirolean apuntatzeko izen-

ematea, eta urrian, ikastetxeetan errealtate berrira egokitutako kirol-ekintzak garatzen hasi ziren. Protokoloa zorrotz betetzeko lan handia egin zutela adierazi du Agirrek: "Ikasleak mailaka eta burbuilak errespetatuz sailkatu genituen, eta, taldeak kopuru txikiagokoak izan behar zirenez, instalazioetan ordutegi berriak txertatzeko

eskaria egin behar izan genuen, ekainean finkatutako ordutegiarri moldakuntzak gehituta".

Kurtso hasieran lan-karga handia eduki dutela adierazi du LEKeko koordinatzaileak: "Kirol eta hezkuntza esparruetako araudia astez aste aldatzen joan da; ondorioz, protokoloa astero gainbegiratu eta egokitu behar izan dugu". Hori horrela, "harriduraz" jaso zuten azaroaren 6an Lehendakariak argitaratutako 38/2020 Dekretua, zeinetan hezkuntza arloko kirol-jarduera guztiak debekatzen ziren.

Presio soziala euskarri

Bi aste pasa dira lege hori indarrean jarri zenetik, eta ordutik eskola-kirola itzultzeko ahalgin ugari egin dituzte Gipuzkoako eragileek. "Donostiako eta Oarsoaldeko eskola-kiroleko zenbait arduradunek gutunak banatu dizkiete guraso-elkarteei eta probintziako gainontzeko eskola-kiroleko ordezkariari, norberak sinatu eta Dekretu berriaren gaineko kexak Jaurlaritzara bidaltzeko", adierazi du Agirrek.

Bestalde, *Change.org* plataforman sinadura-bilketa jarri zuen martxan Yeni Garcia izeneko hernaniar batek, eta Leintz Eskola Kirolak egitasmo horri atxikimendua erakutsi dio. "Sinadura-bilketa horren helburua Jaurlaritzari presio soziala egitea da, agintariei ikus dezaten eskola-kirolaren gaineko debekua atzera bota beharrekoa dela", dio LEKeko koordinatzaileak.

Segurtasuna "ez da hobetu"

Ikastetxeetatik sustatutako ekintzak berriz aktibatzea "ezinbestekotzat" jotzen du Oinatz Agirrek, neska-mutilak eskolan kalean baino seguruago daude-

la iritzita: "Guztiok ikusi ditugu azaroaren 6tik hona haur eta gaztetxoak kalean euren kabuz jolastan; askotan, segurtasun-neurriak errespetatu gabe".

Guraso gehienek kontzientziaz jokatzeko dutela uste du Agirrek, nahiz eta deskuiduak saihestea oso zaila izan. "Eskoletan protokoloa zorrotz betetzeaz arduratzen ginen, baina kalean ez dago protokolorik; horren ondorioz, kaleko elkarrekintzek arrisku handiagoa dute; segurtasunaren aldetik galtzen irten garela argi dago", gehitu du koordinatzaileak.

Aktibazioa, "urrun"

Eskola-kirolaren itzulera posibleaz galdetuta, "Gabonak arte" mugimendurik egongo ez dela uste du Agirrek: "Badakigu Gipuzkoako Foru Aldundiak eutsi egin nahi ziola urriko planteamenduari, baina Eusko Jaurlaritzak kontrakoa erabaki zuen azaroan, eta seguruena da urte amaierara arte itxaron beharko dugula; hala adierazi zigun Aldundiak". Bere ustez, Lehendakariak eskola-kirola ez baimentzearen arrazoien artean dago "gainontzeko sektoreek, ostalaritzak eta afizionatuen kirolak, esaterako, eskaera bera egingo luketela; norberaren esparruaren irekieraren aldekoa, alegia".

Momentuz, familiei seme-alabekin kirola egiteko irizpideak emateaz konformatu beharko du Leintz Eskola Kirolak.

"GUZTIOK IKUSI DITUGU NESKA-MUTILAK KALEAN JOLASTEN, PROTOKOLORIK GABE"

Saskibaloia eta boleibol neurketak, asteburuko nobedade

Lehiaketa ofizialak martxa hartzen dabiltza, poliki-poliki bada ere. Asteburu honetan, adibidez, EBA mailako neurketa jokatu du Mondragon Unibertsitateak, Iturripen. Arrasateko saskibaloia taldeak Megacalzados Ardoiren aurka neurtuko ditu indarrak, igandean, 18:30ean hasita. Izan ere, Ointxe!-ren talde nagusiak ligako bi partida baino ez ditu

jokatu, momentuz, baita biak irabazi ere.

Arizmendiko gizonezkoen boleibol taldeak ere etxean jokatuko du domeka goizean. Gasteizko Udapa Jatorikide Senior taldea jasoko du, Aretxabaletako Ibarra kiroldegian, 11:00etan hasita. Euskal Ligako lehen mailan lehiatzen diren jokalariek joan den asteburuan itzuli ziren kantzara, lau asteko geldiuenearen ostean. Orduko hartan, galdu egin zuten Sestaoren aurka. Bitik bat irabazi dute mutilek.

Leintz Arizmendik errekurritu egin du jasotako zigorra

Euskal Futbol Federazioak araudiko 47. artikulua ezartzen duen zigorra aplikatu zion azaroaren 11n Leintz Arizmendiko futbol talde nagusiari, Euskal Ligako lehen bi neurketetara ez agertzeagatik. Zigorren arabera, kluba ezin izango da denboraldi osoan lehiatu, eta datorren urtean mailaz igotzeko eskubidea galduko du.

Hori dela eta, Leintz Arizmendik helegitea aurkeztu du aste honetan Euskal Futbol Federazioaren txapelketa organoan, partida horiek ez jokatzeko erabakia alarma-egoera baten testuinguruan hartu zela argudiatuta. Era berean, Federazioari eskatu dio martxoan alarma egoerarik ez balego ligako jaitsiera-fasean lehiatzen uzteko, eta alarma-egoerak jarraituko balu, berriz, 2021-2022 denboraldian mailaz igotzeko eskubidea baimentzeko.

Reala eta Federazioko bi hautagaiak batzartuko dira gaur

Jokin Aperribay Realeko presidentea Manu Diaz eta Adrian Merino presidentegaiekin batzartuko da gaur arratsaldean, atzeratuak izan diren Gipuzkoako Futbol Federazioko hauteskunde inguruko akordioa egiteko asmoz. Liskarrak saihesteko hirugarren pertsona baten hautaketa adostea izango da landuko duten gaietako bat.

Krosaren etorkizunaz hausnartzen dabilta

ATLETISMOA 2003an egin zuten Oñatiko Nazioarteko Kros entzutetsuaren lehenengo edizioa. Hamazazpi urte geroago, probaren etorkizuna zalantzan dago, Antxintxiketaneke taldekideak hausnarketa prozesuan murgilduta daude eta

Xabier Urzelai ARRASATE

Aurten, Antxintxiketaneke lagunak ezin izan dute Oñatiko Corpus jaien bueltan antolatzen duten Nazioarteko Krosa antolatu. Koronabirusak hankaz gora utzi ditu 2020ko kirol hitzordu guztiak, baina Asier Osinagak aitortu dio GOIENARI taldeak hausnarketarako tarte bat hartu duela, etorkizunean lasterketarekin zer egin erabakitzeko. "Egia da koronabirusa tarteko ez gairela arduratu behar izan aurten lasterketa antolatzeaz, ezta ere azalpenak emateaz, baina pandemiaren aurretik ere gure zalantzak genituen", dio taldeko kide Asier Osinagak.



Zerzenay Tadese (2006), Oñatin egindako munduko errekoraren saiakeran. GOIENA

"Momentu batean, Antxintxiketaneke herriko proba asko antolatzeko ardura hartu genuen, Torreauzo krosa, San Silvestre, Arrasate-Oñati lasterketa eta Nazioarteko Krosa, eta horrek nekatu egiten du. Poliki-poliki beste batzuek erreleboa hartu dute, eta garbi dugu San Silvestrerekin aurrera egingo dugula, nahiz eta aurten ez den probarik egongo. Baina Nazioarteko Krosaren gainean hausnartu egin beharko dugu taldekideok, ez nuke nahi jendeak konpromisoagatik bakarrik jarraitzea".

Puntako atletismoa herrian

2002an, Jesus Arregik jada bu-ruan zeukan halako lasterketa

**"EZ NUKE NAHI
TALDEKIDEEK
KONPROMISOAGATIK
SOILIK JARRAITZEA
KROSA ANTOLATZEN"**



**ASIER
OSINAGA**
ANTXINTXIKETAN

bat egitea, eta hurrengo urtean lortu zuen lehenengo edizioa antolatzea. "Bera izan zen sustatzaile nagusia; lehenengo edizioetan korrikalari moduan bizi ahal izan nuen lasterketa hori, eta ondorengo urteetan jendea batzen joan ginen proiektura, azken urteotan Antxintxiketaneke antolatzeko ardura hartu duen arte. Baina Jesus Arregi izan zen sustatzailea, eta sekulako lana egin zuen, gainera. Lasterketa horrek helburu garbia zeukan, puntako atletak herrira gonbidatuta lehen mailako kirol ikuskizuna antolatzea: "Atletismoa Oñatiko kaleetara ekartzea zen Jesusek gura zuena, baina puntako atletismoaren aldeko apustua egin zuen, eta uste dut lehenengo ediziotik lortu zuela hori". Lasterketaren hamazazpi urte hauetako anekdota batzuk *Protagonista* izan ziren tartean eman zituen Osinagak, Goiena telebistako *Harmailatik* saioan.



Elkarrizketa
ikusteko, eskaneatu
QR kode hau
poltsikoko
telefonoarekin.

GOIENA TELEBISTA
UDAZKENEKO
PROGRAMAZIOA



ORAIN ERE,
%100 EMATEN



HONDAKINAK EZTABAIDAGAI

GOIENA: 20 URTE 20 ALBISTE,
ERREPORTAJE SORTA
AZAROAREN 20AN, EGUBAKOITZEAN,
21:30EAN ETA 23:30EAN



goiena
20 URTE ZUEKIN.

"Gazteak antzokietara joateko lan aproposa da"

XANTI KORKOSTEGI AKTOREA

Euskara maila hobetzeko asmoarekin baserri batera uda igarotzera joango den Juan Martin donostiarraren bizipenak kontatzen ditu 'Kutsidazu bidea, Ixabel' musikalak

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Joxean Sagastizabalek 1994an argitaratu zuen liburuak askorako eman du; izen bereko antzezlan, filma eta telesaila egin zituzten, eta orain, Demode Quartet Produzioak-ek antzokietara eraman du istorio berean oinarritutako musikala. Amaia antzokian domekan, 19:00etan, eskainiko dute. *Arrasate.eus* atarian eskura daitezke sarrerak, 15 eurotan.

Gustura ari zara musikalean?

Oso pozik! Sekulako aukera da! *Goa!zen*-en nire pertsonaiak abestu baino dantzatu egiten du gehiago, eta lan honekin Demode Quartet-ekoekin batera abesteko bidea izatea itzela da!

Zelan izan zen proposamena?

Udan aurkeztu zidaten proiektua. Aktoreen taldea aukeratuta zegoen, baina, protagonista izan behar zenak ezin zuela parte hartu esan zuenean, elkarrizketa egiteko deitu zidaten, eta egun pare batera taldean nengoela adierazi zidaten. Oso pozik!

Joxean Sagastizabalek 1994an argitaratu zuen liburua du oinarri, baina osagai berriei. Zelakoa da?

Liburuko kontakizuna da, baina hainbat eszena eta gag sortu ditugu, sinisten ditugun balioak azpimarratzeko asmoz. Adibidez: emakume helduen xarma eta



Xanti Korkostegi da musikaleko protagonista nagusi Juan Martin. DEMODE QUARTET

"BIZI IZAN DITUT HALAKO ISTORIOAK OÑATIKO FAMILIA BISITATZERA JOAN IZAN NAIZENEAN"

interesa aldarrikatzen du *Amets txarra* abestiak; integrazioari buruz hitz egiten dugu Kaktus eta Zezena pertsonaiekin, eta *bullying*-a jorratzen dugu golden-sagarrek errege-sagar batekin duten harremana erakustean.

Aurrez ezagutzen zenuen istorioa?

Aitortu behar dut liburua ez dudala irakurrita, baina gogoan dut orain dela urte batzuk filma ikusi genuela eskolan, eta harrituta geratu nintzela. Oso komedia ona eta euskaldunen umorearekin oso ondo lotua dagoela iruditu zitzaidan. Edonork bizi izan dituen gertaerak jasotzen ditu. Adibidez, ni donostiarrar naiz, nire aitak esaten duen moduan kalekumea, eta Oñatira familiarengana baserri-joaten naizenean halako istorioak sarritan bizi izan ditut.

Aita oñatiarra duzu; baduzu Oñatira joateko ohiturarik?

Azkenaldian, askorik ez, lana eta pandemia dela eta, baina oso gustuko dut baserrira joatea. **Zelan sentitzen zara Juan Martin euskaldun berria antzeztzen?**

Oso ondo; egia esan, laguntza handia izan dut. *Goa!zen*-en ezagutu nituen Ainhoa Aierbe, Karlos Nquema eta Maria Redondo taldean izateak babes handia eman dit, eta Patxi Barco zuzendariak duen lan egiteko modua asko gustatzen zait.

Zeini gomendatuko zenioke?

Publiko guztiarentzako da, baina, bereziki, gazteei gomendatuko nieke; obra aproposa dela uste dut antzokietara joateko ohitura hartzeko. Dinamikoa da, oso samur ikusten dena.

***Goa!zen 7.0* estreinatuko du gaur ETBk, eta, berriz ere, Igor zara. Zer izan da zuretake telesail hori?**

Sekulako masterra! Denetik eta asko ikasi dugu: telebistan dagoen lan erritmo frenetiko, jendaurrean nola portatu... Telebistaz gain, antzerki bira egin genuen, bi hilabeteen 40 *bolo*. *Goa!zen* euskal aktore gazteen-tzako eskola on bat dela uste dut, garai batean *Goenkale* izan zen moduan.

Kapitulu berriei buruz ezer aurreratzetik baduzu?

Trama polita dauka denboraldi berriak. Ezin dut askorik kontatu, baina aurreratuko dut beste Igor bat dela, eta aurtengo udalekura beste pertsona baten bitartez helduko dela... Askok poztu nintzen telesailan jarraituko nuela esan zidatenean.

Kazetaritzarekin lotutako ikasketak egiten ari zara. Zer moduz?

Nire ametsa aktorea izatea da, baina aitak badaezpada B plan bat izateko esaten dit, eta hala ari naiz, gustura, Deustun.

Antzezlan Seminarixoa, oroimena galtzeari buruz

'Aquí va a pasar algo' helduendako lana eskainiko du Zanguango Teatrok bihar Bergaran

A.A. BERGARA

Bi lagunek oroimena galdu dute: oroitzapenak, historia, nortasuna; nor ziren ziurtatzen zieten egia guztiak amildu zaizkie. Ondorioz, euren burua asmatu beharrean dira, nortasun bat eraiki beharrean, nor diren erakutsiko dieten aztarnen bila, irudimena erabiliz eta jolasa aldarrikatuz euren bizitzaren ardatz. Hori da 1993an jaiotako Arabako antzerki taldeak 2012an sortu zuen antzezlanak kontatzen duen istorioaren muina. Euskal Herrian zein nazioartean 180 emanalditik gora eskaini dituzte, eta zuzendaritza eta interpretazioa goraipatzen dituzten sariak jaso ere bai. Umore absurdo eta konprometitua da Zanguango Teatroren marka.

Migel Muñozen zuzendaritza-pean, Txubio Fernandez de Jaurgui eta Miguel Garces dira taularen gainean protagonista. "Ikuskizun komiko-poetikoa da, ikus-entzuleak hunkitzen dituen. Egoera barregarriak biziarazten ditugu; ikusleak, orokorrean, identifikatuta sentitzen diren gertaerak", azaldu dute konpainiakoek.

Bihar, zapatua, eskainiko dute, Seminarixoa, 19:00etan hasita; sarrera zortzi euro da.

GOIENA TELEBISTA
UDAZKENKO
PROGRAMAZIOA



ORAIN ERE,
%100 EMATEN

ARIZMENDIARRIETA: ARRASATEKO MIRARIA

MAHAI-INGURUA ETA DOKUMENTALA
AZAROAREN 26AN, EGUENEAN,
21.00ETAN ETA 23.00ETAN
GONBIDATUAK:
JON SARASUA, RAFAEL CRISTOBAL
ETA PAKO ETXEBESTE



goiena
20 URTE ZUEKIN.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 654 88 42 60

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Etxebizitza behar dugu errentan, hiru logelakoa. Telefonoa: 638 85 43 36

Arrasate. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dut errentan. Telefonoa: 643 47 40 94 (Alba)

Bergara. Errentan hartuko genuke etxebizitza, bi edo hiru logelarekin. Telefonoa: 631 13 16 57

Bergara. Errentan hartzeko etxebizitza bila ari dira neska arduratsu bat eta bere 11 urteko semea. Etxebizitza txiki bat eta erdigunean bada, hobeto. Telefonoa: 666 07 42 98

105. ETXEAQ OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan egongela, sukalde eta bainugela partekatua izateko eskubidearekin, unibertsitate-lik oso gertu. Harremanetarako: 650 92 52 99

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Oñati. 18 metro koadroko garaje itxia ematen da errentan, Kanpantxo kalea 1ean. Ate automatikoarekin. Telefonoak: 627 09 27 01 edo 660 61 44 30

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Haur zaintza. Bergarako pertsona baten bila gabil-tza, haurrak goizetan eskolara eramane eta eguerdietan jaso eta bazkaltzen emateko. Interesatuta egonez gero, jarri kontaktuan: 607 54 07 72

Haurrak zaindu. Eguerdietan umeak eskolatik jaso eta bazkaltzen emateko Bergarako pertsona baten bila gabil-tza. Telefonoa: 605 70 83 93

402. ESKAERAK

Aretxabaleta edo inguruak. Emakume arduratsua nagusiak zaindu edota etxeko lanetan laguntzeko gertu. Telefonoa: 697 33 33 71

Aretxabaleta edo inguruak. Emakume arduratsua nagusiak zaindu edota etxeko lanetan laguntzeko gertu. Telefonoa: 697 33 33 71

Arrasate edo inguruak. Goizetan atari, etxe eta

abarrak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko gertu nago. Autoa daukat. Telefonoa: 636 11 23 40

Arrasate edo Oñati. Neska euskalduna gertu orduka etxean garbitzeko. 663 04 53 99

Arrasate eta inguruak. Astean zehar arratsalde-tan edota asteburuetan zaintza eta garbiketa lanak egingo nituzke. 602 42 04 81 (Ismelda)

Arrasate eta inguruak. Astean zehar arratsalde-tan edota asteburuetan zaintza eta garbiketa lanak egingo nituzke. 602 42 04 81 (Ismelda)

Arrasate eta inguruak. Gauetan nagusiak zainduko nituzke. Legezko agiriak eta soziosanitario titulazioa dauzkat. Telefonoa: 642 41 72 62

Arrasate eta inguruak. Nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu nago. Esperientzia, titulazioa eta Jaur-laritzaren ziurtagiria dauzkat. Berehala hasteko moduan. 618 03 65 02

Arrasate eta inguruak. Nagusiak zaintzeko gertu nago orduka zein etxean bertan bizi izaten. Espe-rientzia handia, legezko agiriak eta formazioa dauzkat. 647 11 06 14

Arrasate. Garbiketa eta lisatze lanak egiten edota ume eta nagusiak zain-tzen lan egingo nuke. Telefonoa: 611 24 26 64

Arrasate. Zaintza eta atari, etxe eta abarren garbiketan jarduteko gertu nago. Bi arloetako titu-lazioak dauzkat. Telefo-noa: 632 83 32 44

Bergara eta inguruak. Bergarako neska euskalduna naiz. Haur hezkun-tzako goi mailako zikloa dut eta haur hezkuntzako gradua egiten ari naiz. Haurrak zaintzen espe-rientzia daukat. 14:00tik aurrera umeak zainduko nituzke. Asteartetan eta ostegunetan 14:00-17:00ak artean. Astebu-kaera eta jai egunetan ere prest. 634 42 85 11

Bergara eta inguruak. Orduka garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko gertu nago. 639 02 00 81

Bergara. Astelehenetik ostiralera bitartean, jai egunak kenduta, prest nagusiak zein umeak zaintzeko. Lanbide titulua dauka. 671 16 54 60

Bergara. Emakume eus-kalduna, soziosanitario titulua duena, arratsalde-

tan edo asteburuetan lan egiteko eskaintzen da. 656 74 78 43

Bergara. Pertsona nugu-sien zaintzan lan egiteko prest nago. Esperientzia handia daukat eta orduka egingo nuke lan. Telefo-noa: 666 07 42 98

Debagoiena. 25 urteko mutila gertu zerbitzari, banatzaile, supermerka-tuan, nekazaritzan, bizar-gin edota sukalde lagun-tzaile moduan lan egiteko. 631 07 64 83

Debagoiena. Emakumea gertu umeak edo perso-na nagusiak zaintzeko. 632 62 76 07

Debagoiena. Erizain laguntzaile gaztea gertu orduka nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketarako egiteko. Telefo-noa: 642 23 58 15

Debagoiena. Esperientzia eta erreferentzia onak dituen mutila orduka nagusiak zaintzeko gertu. Baita baserrietan ere. Legezko agiriak eta Al-dundiaren ziurtagiria dauzkat. Autoarekin. Telefo-noa: 662 43 08 54

Debagoiena. Etxeko lan-gile moduan jarduteko gertu: garbiketarako zein zaintza lanak. Gauak ospitalean egiteko ere gertu. 722 45 58 75

Debagoiena. Etxez etxe-ko laguntzan jardungo nuke arratsaldetan edo asteburu zein jai egune-tan. Autoa eta titulazioa dauzkat. 631 98 15 50

Debagoiena. Gaixok eta nagusiak zaintzen espe-rientzia daukan emaku-mea lan bila. Jaur-laritzako ziurtagiria daukat. Ospitalean edota etxean, bai botikekin eta baita mugikortasun arazoekin laguntzeko gaitasuna daukat. 612 20 35 71

Debagoiena. Garbiketan eta nagusi zein umeak zaintzen lan egingo nuke. Erreferentziak aurkez ditzaket. 603 21 91 32

Debagoiena. Gauetan edo egunean zehar orduka nagusiak zainduko nituzke. Legezko agiriak eta Jaur-laritzako ziurtagiriarekin. 659 57 93 89

Debagoiena. Mutil gaztea, orduka zein asteburuetan lan egiteko prest. Pertsona nagusiak zain-tzeko edota eta garbiketa lanak egiteko. Esperien-tzia dauka. 604 13 68 24

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila. Orduka, etxean bertan bizi izaten eta baita asteburuetan

ere. Berehala hasteko gertu. 631 64 56 46

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zain-tzeko prest. Orduka, etxean bertan bizi izaten eta baita asteburuetan ere. 632 37 65 40

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zain-tzeko prest. Orduka, etxean bertan bizi izaten eta baita asteburuetan ere. 658 92 43 73

Debagoiena. Neska eus-kalduna gertu jendaurre-ko lanak egiteko: harre-ran, supermerkatuan zein eskolako jangelan. Baita ere zaintzan, garbiketan edota tailerretan. Telefo-noa: 656 79 28 37

Debagoiena. Orduka garbiketarako egingo nituzke. 688 65 32 00

Debagoiena. Orduka nagusiak zaindu eta garbiketarako egingo nituzke. Legezko agiriak dauzkat. 677 00 90 26

Debagoiena. Zaintzan eta atari eta abarren garbike-tan lan egingo nuke. Or-

duka, etxean lo egiten edota ordezkapenak egiten. Soziosanitario titu-lazioarekin. Telefonoa: 643 73 62 36

Debagoiena. Zaintzan eta garbiketan lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honeta-ra: 634 94 30 78

Debagoiena. Zortzi urte baino gehiagoko eskar-mentua eta soziosanitario titulazioa dituen neska, nagusiak zaintzeko gertu. 696 84 19 51

Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta inguruak. Mutil gazte langilea naiz, edozein lanerako prest, etxeetan, baserrietan, negozioetan, garbiketan, nekazaritzan, ilea moztzen ere badakit. Orduka zein asteburuetan lan egiteko gertu. Prestutasun osoa. 632 07 32 72 edo 631 67 51 01

Oñati. Orduka garbiketarako egiten edo zaintza lanetan arituko nintzateke. Legezko agiriak dauzkat. Telefo-noa: 657 31 79 65

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Pianoa daukat etxean eta jotzen ikasteko eskolak jaso nahi ditut. 686 63 54 35

CNC Tornuko programa-zioa. CNC Tornuko pro-gramazioko eskola partiku-larrak hartuko nituzke lehenbailehen. 8070 Programazioa *Simulator*-ekin. 605 88 33 51

6. MOTORRA

602. EROSI

Land Rover bila nabil. Land Rover Defenderra behar dut baserrirako. Berdin dio zein egoeratan dagoen: IAT gabe, mabu-ratuta, kolpearekin. Telefo-noa: 623 17 95 37

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Hiru katakuma. Baserri-ko hiru katakuma ematen dira opari, bi hilabetere-kin. Deitu telefono zenba-ki honetara: 610 31 02 61

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



M.B.

BURDINOLA TALDEA EZAGUTZEN

'Harmailatik' Astelehena, 21:30 eta 23:30



GOIENA

'HONDAKINAK EZTABAIDAGAI' ERREPORTAJEA

'Goiena: 20 urte, 20 albiste' Egubakoitza, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTAKO
PROGRAMAZIO OSOA:
goiena.eus/telebista
Edo eskaneatu
aldameneko qr kodea.

URTEURRENA



**Bixente
Elkoroiribe Arriaran**
2019ko azaroaren 8an hil zen.



**Kontxita
Elkoroiribe Arriaran**
2019ko azaroaren 9an hil zen.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, azaroaren 21ean, 19:00etan, Oñatin, 2020ko azaroaren eliza nagusian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2020ko azaroaren 20an.

URTEURRENA



**Mariano
Urrutia Ochoa**



2019ko azaroaren 23an hil zen, 86 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan, azaroak 22, izango da, 12:30ean, Musakolako Santa Teresa elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2020ko azaroaren 20an.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ESKER ONA



Pilar
Urza Zuazola

Alberto Azurmendiren alarguna

2020ko azaroaren 16an hil zen, 87 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2020ko azaroaren 20an.

ESKER ONA

Jose
Arantzabal Leturia

'Etxebarri'

2020ko azaroaren 13an hil zen, 85 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Elgetan, 2020ko azaroaren 20an.

OROIGARRIA

Jose
Arantzabal Leturia

Iban Arantzabal lankidearen aita

2020ko azaroaren 13an hil zen, 85 urte zituela.



Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Elgetan, 2020ko azaroaren 20an.

ESKER ONA

Elena
Etxebarria Ibabe

Joxi Elorzaren alarguna

2020ko azaroaren 17an hil zen, 59 urte zituela.



Atzo gure aldamenean gaur gure oroimenean betirako gure bihotzetan.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2020ko azaroaren 20an.

ESKER ONA

Ana Mari
Medrano Ledesma

Leonardo Madinabeitiaren alarguna

2020ko azaroaren 14an hil zen, 80 urte zituela.



Agur, ama; agur, amama. Beti gurekin.

Familiak bihotzez eskertzen dizkizue egun hauetan jasotako babesa eta samin agurrak.

Aretxabaletan, 2020ko azaroaren 20an.

OROIGARRIA

Pablo
Ugarte Billar

Julen Iriando lankidearen aitagarreba

2020ko azaroaren 14an hil zen, 82 urte zituela.



Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Oñatin, 2020ko azaroaren 20an.

OROIGARRIA



M. Angeles
Altube Arkauz

2020ko azaroaren 15ean hil zen, 78 urte zituela.



Atzo gure aldamenean gaur gure oroimenean betirako gure bihotzetan.

Juana Mari (†), Itziar, Marisol, M. Carmen B., M. Carmen O., Pili, Maribel eta Arantxa.

Aretxabaletan, 2020ko azaroaren 20an.

OROIGARRIA

Iñaki
Irastorza Etxezarreta

2020ko azaroaren 17an hil zen.



Zure begi urdin eder horiek gure bizitzak argitu ditzatela.

Besarkada erraldoi bat zure familiaren partetik.

Arrasaten, 2020ko azaroaren 20an.

OROIGARRIA



Paco
Bedia Madinabeitia

2020ko azaroaren 17an hil zen, 72 urte zituela.



Ez adiorik, betira arte baizik. Maite zaitugu.

Zure anai-arrebak: Kontxi (†), Marisa, Angel (†), Antxon, Iosebe eta Mertxe.

Arrasaten (Musakola), 2020ko azaroaren 20an.

OROIGARRIA

Fernando
Ibañez Solsona

2020ko azaroaren 17an hil zen, 67 urte zituela.



Eskerrik asko zure alaitasunagatik.

Zuloa elkarteko kideak. Bergaran, 2020ko azaroaren 20an.

OROIGARRIA



Pili
Iglesias Asensio

2017ko azaroaren 19an hil zen.



Udazkenean, izarretan, gure txikien irrian...

Etxekoak. Bergaran, 2020ko azaroaren 20an.



Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Jakin ezazue nahiz eta heriotz asegurua izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.



Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

TXUTXU-MUTXUAK




1



2



3



4

1. Iluntasunean dantzan

Aguraingo Jeiki dantza taldeak Aramaioko kultura etxea lepo bete zuen aurreko zapatuan. Dantza ikusgarriekin ase zituzten ikusle helduak eta gazteak.

2. 'Eolo68'-rekin bidaiatzen

Elgetako umeak Zirika Zirkusen hegazkinean sartu ziren aurreko asteburuan. *Eolo68*-ko bidaiari izan ziren, eta, istripua izan zuenean, pilotuaren laguntzaile.



5

3. Goiko tabernako mamuak

Manex Agirre, Ane Zuazubiskar, Maialen Lujanbio eta Sustrai Colina izan ziren mamuak. Paper hori hartu zuten lau bertsolariek Aramaioko saioan.

4. Santa Zezilia ospatzen

Modu berezian ospatu dute Beheko Errota musika eskolako ikasle gaztetxoek zaindariaren eguna: gorputz perkusioa izeneko ariketarekin koreografia egin dute.

5. Irabazleak

Argazkiko hirukoteak irabazi du MÜren eta ONCEren lehiaketa, *Paloma* proiektuarekin. Autobusak antzemateko gailua landu dute, ikusmen urritasuna dutenendako.



6

6. 50 urte ezkontuta

Patxi Aramburuk eta Karmen Idigorasek urrezko ezteiak beteko dituzte bihar. "Behar den moduan ospatuko dugu, ahal dugunean. Patxo handi bat, familiaren partetik".

ZORION AGURRAK

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik argitaratuko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



BERGARA
Maialen Etxeberria Mujika
Azaroaren 24an, 5 urte. Zorionak! Ondo-ondo pasatu eta muxu erraldoi bat, familia osoaren partetik.



ESKORIATZA
Ana Orbezua Mimenza
Azaroaren 23an, 53 urte. Zorionak zure urtebetetzean. Egun ederra pasatu eta besarkada bero bat zure lagunen partetik.



OÑATI
Lucca Otxotorena Mendiola
Azaroaren 22an, 2 urte. Zorionak, txiki! Oso ondo pasatu zure bi urtetxoan egunian. Jarraitu hain geldigorra izaten. Ez dakigu energiak nundik ateratzen dituzun. Muxu handi bat etxeko danen, eta bereziki, Chloeren partetik. Asko maite zaitugu.



BERGARA
Julen Burgaña Ernabide
Azaroaren 22an, 3 urte. Zorionak, Julen! Etxeko txikixa handi eitten dabil! Muxu handi bat, batez be, Xabaten, Adeiren eta Uxueren partetik!



OÑATI
Ibai Buquete Diaz de Gereñu
Azaroaren 21ean, 12 urte. Zorionak, Ibai! Primerako eguna pasatu eta primeran ospatu. Muxuak, etxeko danon partetik!



ARRASATE
Zurine Lasa eta Irantzu Souto
Zorionak etxeko bi txikitxo! Zurinek azaroaren 21ean, 37 urte eta Irantzuk 22an, 10 urte. Egun berezi-bereziak izan ditzazuela, bikote! Beti bezain alai eta zoriontsu jarraitu! Muxu potolo bana, sorgintxoak!



BERGARA
Izar Akemi Etxeberria Ramirez
Azaroaren 21ean, 11 urte. Zorionak, bizkotxo. Pila-pila bat maite zaitugu. Amakoren, "papitoren" eta zure anai-arreben partetik. Gozatu zure egunaz!



OÑATI
Iker Isasti Arkauz
Azaroaren 21ean, 11 urte. Zorionak, txapeldun. Ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat, etxeko danon eta, batez be, Alaitzen partetik. Asko maite zaitugu.



ESKORIATZA
Malen Azkune Zubia
Azaroaren 21ean, 5 urte. Zorionak, Malen! Ondo-ondo pasatu eguna, poxpolin! Patxo pila bat, etxekuen partetik.




ESKORIATZA
Ekaitz Aramendi Kortazar
Azaroaren 21ean, 40 urte. Zorionak, Ekaitz. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta patxo handi bat, familia osoaren partetik.



BERGARA
Iker Gomez Gimbert
Azaroaren 21ean, 13 urte. Zorionak, Iker, etxeko guztion partetik! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu pila bat zuretak.



BERGARA
Julene Agirre Ganboa
Azaroaren 20an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Azkenean iritsi da zure eguna. Ondo pasatu eta patxo handi bat Oierren, Asierren, Lierren eta Maddiren partetik.



ARRASATE
Arane Torres Sanchez
Azaroaren 20an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu asko, familia osoaren partetik! Maite zaitugu!



OÑATI
Manex Axpe Intza
Azaroaren 20an, 11 urte. Zorionak, Manex! Urte askotarako, familia danaren partetik! Ondo pasatu zure eguna!



OÑATI
Miren Hernandez Juan
Azaroaren 19an, 4 urte. Zorionak, Miren! Lau urte! Muxu handi bat Oñatitik.



OÑATI
Irene Campagnoli Arkauz
Azaroaren 19an, 9 urte. Zorionak, Irene! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Muxu handi bat etxeko danon partetik.



ARETXABALETA
Iratxe Arbulo eta Gari Martinez Arbulo
Iratxek azaroaren 21ean, 36 urte eta Garik 19an, urtebete. Zorionak bioi! Muxu handi-handi bana, familia osoaren partetik!



OÑATI
Nora San Miguel Billar
Azaroaren 18an, 3 urte. Zorionak, politt hori! Primeran pasatu zure egunian eta patxo handi bat, familia danaren partetik!



ARRASATE
Ane Azkarate-askatsua Zeziaga
Azaroaren 18an, 2 urte. Zorionak, Anetxo! Ondo pasatu zure urtebetetzian! Patxo handi bat Xabiren eta Laiaren partetik!




ANTZUOLA
Ainhoa Biteri Sopolana
Azaroaren 17an, 5 urte. Zorionak, Ainhoa. Ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu bat danon partetik; batez ere, zure aizta Leirerena.



OÑATI
Garazi Altzelai Navarro
Azaroaren 16an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Azkenian iritsi da eguna. Mila muxu etxeko guztien partetik. Ondo pasatu zure urtebetetzean!



ELGETA
Unax Agirre Osa
Azaroaren 13an, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Patxo potolo mordo bat, familia danaren partetik.



ARETXABALETA
Beñat Akizu Zabala
Azaroaren 11n, 6 urte. Zorionak, Beñat! Primeran pasatu zure eguna. Segi hain jator eta alai, gure biziiza pozten. Asko maite zaitugu.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 20

ESKORIATZA Frontenis txapelketa

Gaztetxoendako. Gaztelekuan eman behar da izena, eta txanda bat aukeratu.

Gaztelekuan, 17:00etan.

BERGARA 'Kirol argazkiak' erakusketa

Izen bereko lehiaketara aurkeztutako erretratu onenak ikusteko aukera, gaurtik abenduaren 6ra arte.

Aroztegin, 18:00etan.

BERGARA 'Migrazioen kudeaketa Europa gotorlekuan' hitzaldia

Cecilia Themmek egingo du berba, Martxantere gonbidatuta, migrazioaren kudeaketa erdigunean jarrita, Emakumeen Mundu Martxaren V. edizioaren baitan.

Edukiera mugatua.
Kartzela zaharrean, 18:30ean.

BERGARA 'Bi' dantza ikuskizuna

Xabi Solano musikariak eta Kimua dantza konpainiak elkarrekin garatutako ikuskizuna. Sarrerak, zortzi euro. Edukiera mugatua.

Seminarixoa, 19:00etan.

ANTZUOLA Elkarretaratzea

Bidean gara, bidean gaude leloarekin elkartuko dira.

Zurrategin, 19:00etan.

BERGARA Elkarretaratzea

Bidean gara, bidean gaude leloa hartuta elkartuko dira.

San Martin plazan, 19:30ean.

OÑATI Oñatiko intsumisoen hitzaldia

Euren borroken eta esperientzien berri emango dute, Ernaik antolatutako jardunaldien baitan.

Gaztetxean, 20:00etan.

ZAPATUA 21

OÑATI Bisita gidatua, opariarekin

Oñatiko historia ezagutzeko eta Txokolateixia bisitatzeko bisita gidatua parte hartzen dutenek

Senderos de Oñati liburua jasoko dute opari. Izena emateko: 943-78 34 53.

Turismo Bulegoan, 11:30ean.

ARRASATE Babarrun dastatzea

Bi motatako babarrunak prestatuko dituzte Baserritarren Azokan.

Seber Altuben, 12:00etan.

OÑATI Izan Bidea martxa

Hiru kilometroko ibilaldia egingo dute lekuko izango den gezi bati jarraiki.

Foruen plaza, 12:00etan.

ANTZUOLA Elkarretaratzea

Sahara aske! Erreferenduma orain lelopean.

Herriko Plazan, 12:00etan.

ARRASATE Elkarretaratzea

Sahararen aldeko ekintza, Saharaldebak deitutako bilkura.

Jose Maria Arizmendiarieta plazan, 12:00etan.

ARRASATE Jostailu truke merkatua

Jostailuak entregatzeko eguna da gaur.

Arimazubi plazan, 12:00etatik 13:30era.

ESKORIATZA Frontenis txapelketa

Gaztetxoendako. Gaztelekuan eman behar da izena, eta txanda bat aukeratu.

Gaztelekuan, 17:00etan.

ARETXABALETA Giza katea

Portasolgo autobus geltokitik Herriko Plazarainoko bidea egingo dute, Izan Bidea ekimenaren baitan.

Portasolgo autobus geltokian, 18:30ean.

ANTZUOLA Argazki herrikoia eta bideoklip aurkezpena

Bidean gara, bidean gaude leloarekin, Izan Bidea ekimenaren baitan.

Zurrategin, 18:30ean.

BERGARA Liburu aurkezpena

Gure Amalur feminista bertso-liburua aurkeztuko du Ibon Muñoa egileak. Edukiera mugatua. Izena emateko: ibonliburua@gmail.com.

Kartzela zaharrean, 18:30ean.

ARRASATE Manifestazioa

Sare Herritarrak deituta *Bidea gara, bidean gaude!* leloarekin.

Seber Altube plazan, 19:00etan.

BERGARA 'Aqui va a pasar algo' antzezlan, helduendako

Zanguango Teatroa taldearen eskutik, gaztekeraz. Nor diren jakiteko pistaren baten bila dabilen bi pertsonaia oholatza gainean: Miguel Garces eta Txubio Fernandez de Jauregi. Sarrerak, zortzi euro.

Seminarixoa, 19:00etan.

DOMEKA 22

OÑATI Arrikutzen bisita eta liburua opari

Gaurko bisitari guztiek *Senderos de Oñati* liburua jasoko dute opari.

Izena emateko: 943-08 20 00.

Arrikutzen, 09:30ean.

ARRASATE 'Arrasateri bira' ibilaldia

Sare Herritarrak deituta, bidegorriz bidegorri, oinez, hamar kilometroko itzulua egingo dute.

Monterron parkean, 10:30ean.

OÑATI Bisita gidatua opariarekin

Oñatiko historia ezagutzeko eta Txokolateixia bisitatzeko bisita gidatua parte hartzen dutenek *Senderos de Oñati* liburua jasoko dute opari. Izena emateko: 943-78 34 53.

Turismo Bulegoan, 11:30ean.

ARRASATE Arizmendiarietaren omenezko meza

Pako Etxebestek gidatuko du elizkizuna.

Parrokian, 12:00etan.

OÑATI Sahararen aldeko elkarretaratzea

Sahara aske! lelopean.

Foruen plaza, 12:30ean.

ELGETA 'Adela eta Martirio Bernarda Albaren etxean' antzezlan

Naita Produksioak taldearen eskutik. Debalde, edukiera mugatuarekin.

Espaloian, 18:30ean.



ZANGUANGO

BERGARA 'Aqui va a pasar algo' antzezlan, helduendako

Zanguango Teatroa taldearen eskutik, gaztekeraz. Nor diren jakiteko pistaren baten bila dabilen bi pertsonaia oholatza gainean: Miguel Garces eta Txubio Fernandez de Jauregi. Sarrerak, zortzi euro.

Bihar, zapatua, Seminarixoa, 19:00etan.

ARRASATE 'Kutsidazu bidea, Ixabel' musikala

Demode Quartet, Maria Redondo, Xanti Korkostegi, Ainhoa Aierbe eta Inazio Tolosa oholatza, besteak beste. Joxean Sagastizabalen izen bereko liburuan oinarrituta.

Sarrerak, hamabost euro.

Amaia antzokian, 19:00etan.

OÑATI Musikegunak: 'Amerri'

Andoni Salamero olerkaria, Mixel Ducau musikaria, Caroline Phillips musikaria eta Andoni Egaña bertsolaria.

Santa Ana antzokian, 19:00etan.

ASTELEHENA 23

ARRASATE 'Mundua

Washingtonera begira: hauteskundearen biharamuna Estatu Batuetan' hitzaldia

Mikel Reparaz kazetariarekin, Goienagusiren ikasturtearen baitan.

Kulturaten, 10:00etan.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.

Foruen plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.

Herriko Plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.

Herriko Plazan, 12:00etan.

ARRASATE 'Kantatzen duen herri bat' mahai-ingurua

Arizmendiko DBHko lehenengo mailako ikasleekin. Nogen taldeko kideak eta sorpresak egongo dira.

Arizmendiren Youtubeko kanaletik jarraitu ahal izango da.

Youtubetik, 14:45ean.

BERGARA 'Eskalada jasagarria Gipuzkoan' dokumentala

Udazken Mendi Astearren baitan, Pol-Pol Mendizale Taldearen eskutik. Edukiera mugatua.

Pol-Polen egoitzan, 19:00etan.

MARTITZENA 24

ESKORIATZA Birziklatutako Gabonetako apaingarriak

6-12 urte artekoendako tailerra, *Zuk zeuk sortu!* leloarekin. Izena emateko, 688 60 13 74 telefonoan,

hilaren 23a baino lehen.

Tortolis ludotekan, 17:00etan.

ARAMAIO Bikoizketa lehiaketa

Gaur da lehiaketan parte hartzeko izena emateko azken eguna.

Udaletxean, 18:00etan.

OÑATI Iluntze morea

Azaroaren 25erako leloak prestatu eta pankartak egiteko deia.

Gaztetxean, 18:00etan.

ARETXABALETA Gaztaina-saltzailea

Aretxarte txartelak banatuko ditu bezeroen artean, debalde hartzeko.

Kaleetan, 18:30ean.



DEMODE QUARTET

ARRASATE 'Kutsidazu bidea, Ixabel' musikala
Demode Quartet, Maria Redondo, Xanti Korkostegi, Ainhoa Aierbe eta Inazio Tolosa oholtzan, besteak beste. Joxean Sagastizabalen izen bereko liburuan oinarrituta. Sarrerak, hamabost euro.
Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:00etan.

OÑATI Literatura solasaldia
Gabriel Aresti biografikoa liburuari buruz, Yune Ugarterekin.
Kultura etxean, 18:30ean.

ARRASATE Mendi Tour
Harria Herria, Nebola eta *Cholitas* emango dituzte. Sarrerak, bost euro.
Amaia antzokian, 19:00etan.

BERGARA 'Mendi biluzia' ikus-entzunezkoa
Alex Txikonek 2016ko otsailean Nanga Parbatera egindako igoera kontatzen duen filma, Pol-Pol taldearen eskutik.
Seminarixoan, 19:00etan.

EGUAZTENA 25

BERGARA 'Jazz: 1950eko hamarkada' hitzaldi musikatua
Jon Val gitarristaren eskutik, Goienagusiren ikasturtearen baitan.
Seminarixoan, 10:00etan.

ARETXABALETA Gurutze Mujikaren erakusketa
Aretxabaletako pintorearen lanak ikusgai egongo dira hilaren 30era arte.
Arkupen, 11:00etan.

ARRASATE 'Arrasate 20/20' erakusketa
Artgazki taldeko hogeitaz argazkilarik egindako lanekin osatutako bilduma ikusgai, hilaren 28ra arte. Herriko irudi zaharrak eta estudio fotografiko bat ere badaude ikusgai.
Kulturaten, 17:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

ARRASATE Imanol Ituño magoa
Magia parrastan ikuskizuna egingo du 6 urtetik gorako umeendako. Sarrerak aurrez jaso behar dira Bibliotekan.
Santa Marinako bibliotekan, 18:00etan.

BERGARA 'Heriotzako erromatar ohiturak Soriako Tierras Altas eskualdean' erakusketa
Burdin Aroan hilarrietan egiten ziren inskripzioak interpretatzen ikasteko bilduma, abenduaren 20ra arte.
Laboratoriumen, 18:30ean.

BERGARA 'Papicha. Sueños de libertad' pelikula
Mounia Meddourren pelikula jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 18:30ean.

ARRASATE Azaroaren 25a: kontzentrazioa
Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira. Beltzez jantzita joatea eskatu dute.
Herriko Plazan, 19:00etan.

BERGARA 'Segurtasuna mendian' ikastaroa
Iñaki Garaik dinamizatuko du Euskadiko Mendizale Federazioaren ikastaroa, Pol-Polek gonbidatuta.
Pol-Polen egoitzan, 19:00etan.

EGUENA 26

ARRASATE Sasoibide irteera
Meatzerreka auzora joango dira.
Biteri plazan, 10:00etan.

OÑATI 'Ostegun kontalariak'
Ameli: ipuinen jostune ipuin musikatua 6-9 urte artekoendako. Bi saio egingo dituzte: 18:00etan eta 18:45ean. Aurrez hartu behar dira gonbidapenak.
Haur liburutegian, 18:00etan.

ESKORIATZA Birziklatutako Gabonetako apaingarriak
6-12 urte artekoendako tailerra, *Zuk zeuk sortu!* leloarekin. Izena emateko, 688 60 13 74.
Tortolis ludotekan, 18:15ean.

ARRASATE Literatura solasaldia
Karmele Jaioren *Aitaren etxea* liburua hartuko dute hizpide, Alex Gurrutxagak gidatuko duen saioan. Euskaraz.
Bibliotekan, 18:30ean.

ARRASATE 'Florecica. Josefina Lamberto' dokumentala
Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira. Ostean, solasaldia egileekin.
Kulturetako areto nagusian, 18:30ean.

OÑATI 'Corpus Christi' filma, zineklubean
Jan Komasa-ren pelikula zineklubean. Sarrerak, bost euro.
Zinema aretoan, 19:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Greenland: el ultimo refugio
Zapatua: 19:00.
Astelehena: 20:00.

Shin Chan en Australia
Zapatua: 16:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

En busca de Summerland
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Scooby
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

El palacio ideal
Egubakoitzetik astelehenera: 19:00.

Las brujas
Zapatua eta domeka: 16:30.

EIBAR

COLISEO

Hil kanpaia
Zapatua eta domeka: 16:00.

El palacio ideal
Zapatua, domeka eta astelehena: 19:00.

Corpus Christi
Zapatua: 16:00, 18:30.
Domeka: 16:00, 18:30.
Astelehena: 18:30.

ANTZOKIA

La brujas
Zapatua eta domeka: 16:00.

Hil kanpaia
Zapatua, domeka eta astelehena: 19:00.

GASTEIZ

GORBEIA

Como perros y gatos
Egubakoitza eta zapatua: 17:15.
Domeka: 12:00, 17:15.

El arco magico
Zapatua: 16:40.
Domeka: 12:00, 16:40.

Ane
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:15.
Domeka: 12:00, 17:15, 19:15.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:15.

No mataras
Egubakoitza: 17:10.
Zapatua eta domeka: 15:30.

Astelehenetik eguenera: 17:05.

Trolls 2
Zapatua: 16:00.
Domeka: 12:00, 16:00.

Las brujas de Roal Dahl
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:05.

Domeka: 12:00, 17:00, 19:05.
Astelehenetik eguenera: 19:05.

Sentimental
Egubakoitzetik domekara: 17:5, 19:30.
Astelehenetik eguenera: 17:15.

Corpus Christi
Egunero: 18:55.

Erlauntza
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 19:20.
Zapatua: 15:40, 19:20.
Domeka: 12:00, 15:40, 19:20.

La trinchera infinita
Egunero: 18:20.

Los Fixies contra los Crabots
Zapatua: 15:35.
Domeka: 12:00, 15:35.

Ni de coña
Egubakoitza: 19:15.
Zapatua: 17:20, 19:15.
Domeka: 12:00, 17:20, 19:15.
Astelehenetik eguenera: 17:20.

La Ilorona
Egubakoitzetik domekara: 17:20, 19:15.
Astelehenetik eguenera: 17:10.

¿Conoces a Tomás?
Egunero: 17:30.

Pequeño gran lobo
Zapatua: 15:30.
Domeka: 12:00, 15:30.

Desafío total
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:05.

Domeka: 12:00, 17:00, 19:05.
Astelehenetik eguenera: 19:05.

Hil kanpaia
Egubakoitza: 17:20, 19:15.
Zapatua eta domeka: 15:25, 17:20, 19:15.
Astelehenetik eguenera: 19:15.

FLORIDA

El bosque del lince ibérico
Zapatua eta domeka: 12:00.

Trolls
Zapatua eta domeka: 12:00.

Los Fixies contra los Crabots
Zapatua eta domeka: 12:00.

El arco magico
Zapatua eta domeka: 12:00.

Stardog y turbocat (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 12:00.

El pequeño gran lobo
Zapatua eta domeka: 12:00.

Ane
Egubakoitza: 19:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 19:00.

Regreso a Hope Gap
Egubakoitzetik domekara: 17:00.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

Sentimental
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 19:35.
Astelehenetik eguenera: 19:30.

La brujas de Roald Dahl
Egubakoitzetik domekara: 15:55.
Astelehenetik eguenera: 17:25.

Adam
Egubakoitzetik domekara: 15:20, 17:20, 19:20.

Astelehena: 17:20, 19:15.
Martitzena: 16:40.
Eguaztena: 17:10.
Eguena: 17:15.

Erlauntza
Egubakoitza: 15:30, 19:20.
Zapatua eta domeka: 12:00, 15:30, 19:20.
Astelehena eta eguaztena: 19:15.
Eguena: 19:20.

Ni de coña
Egubakoitzetik domekara: 15:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

La Ilorona
Egubakoitzetik domekara: 15:20, 17:10.
Astelehenetik eguenera: 17:05.

Palabras para un fin del mundo
Egubakoitzetik domekara: 17:20.
Astelehena eta eguaztena: 17:15.
Martitzena: 17:10.

El drogas
Egubakoitzetik domekara: 17:25.
Astelehenetik eguenera: 19:30.

El palacio ideal
Egubakoitzetik domekara: 19:05.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

Hil kanpaia
Egubakoitzetik domekara: 15:25, 17:20, 19:20.
Astelehenetik eguaztena: 17:15, 19:15.
Eguena: 17:15.

Matar a Pinochet
Egubakoitzetik domekara: 17:55, 19:35.
Astelehenetik eguaztena: 19:30.
Eguena: 16:35, 19:30.

De Gaulle
Egubakoitzetik domekara: 15:50, 19:05.
Astelehena eta martitzena: 17:20.
Eguaztena: 17:20, 19:05.



Hil kanpaia pelikulako aktoreak eta zuzendaria.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Agur, Martin

Koronabirusaz inguratuta gauden honetan, 2020. urtea badoa; urte txarra, ez ahazteko modukoa, eta, hori gutxi balitz, zu ere galdu zaitugu, Martin. Zure urtebetetze egunean joan zara, joateko data aukeratu bazenu bezala, isilik, zaratarik egin gabe. Ez zara, ordea, alferrik pasa mundu honetatik; zure barre gozoa, zure grazia, bromak, gure artean geratu dira.

Gazte joateak ez du sekula justiziarik egiten, inoiz inorentzat justiziazkoa bada bizitza galtzea, baina duela bi urte zure zati bat joan zen, gaixotasun ikaragarri batek lapurtu zizun zure izana, zure benetako sena. Ba al dago gauza ikaragarriagorik?

Zure familian sartu nintzenetik beti izan zaitut lagun, beti izan duzu nireganako maitasuna eta izugarrizko errespetua. Lezio asko utzi dizkidazu, baina bat inork baino hobeto ikustarazi didazuna: hain politizatutako gure Euskal Herri honetan, zure ideiak beti garbi defendatu dituzu, baina zure lagunekin harremanetan inolako kolorerik ez zegoen. Eztabaidak, iritzi desberdinak, baina lagunak beti lagun, gauza guztien gainetik lagunak eta familia. Bejondeizula, ez da erraza horrelako adibidea izatea.

Maite zaitut, Martin, egun handira arte!

EUSKARALDIA, GERTU!

HASTEKO EGUNA!



Ane Sologaitoak, izena eman gabe ere, aldatu zituen zenbait ohitura. A.S.



Naiara Lara parte hartzeko gogoz gelditu zen duela bi urte. N.L.

Aurtengoan badute parte hartzeko aukera

Euskaraldian parte hartzeko bete beharreko baldintzetako bat da 16 urte baino gehiago izatea. Adin muga hori duela bi urte 18 urtekoa zen. Hainbat gaztek, edizio hartan ez, baina oraingoan izango dute ariketan parte hartzeko aukera

Karmele Uribesalgo ARRASATE

Gaur hasi da Euskaraldia. Pare bat baldintza besterik ez da bete behar parte hartzeko: euskaraz ulertzea eta 16 urte baino gehiago izatea. Adinaren langa hori jaitsi egin dute aurten: duela bi urte, 18 urtetik gorakoek bakarrik eman zezaketen izena. Hori horrela, bada gazterik aurreko edizioan parte hartzeko auke-

rarik izan ez baina oraingoan ariketara batuko direnak.

Lehendabiziko aldiz eman du izena Ane Sologaitoa eskoriatzarrak. Aurreko edizioan, 14 urte zituen, eta "inbidia puntu bat" ere izan zuen, ikusten baitzuen inguruko jende askok egin zuela bat Euskaraldiarekin. Ariketan parte hartzeko aukera izan ez bazuen ere, aldatu zituen

zenbait ohitura: "Bizilagun batekin gaztelaniaz egiten nuen, baina txapa soinean zuela ikusi nuenetik euskaraz egiten dugu".

Normalean, euskaraz egin ohi du Sologaitoak. Hala ere, aitortu du ikaskideen artean bada-goela gaztelaniara jotzeko joera. "Gaztelaniaz egiten dutenez, hizkuntza horretan erantzuten diet; automatikoki ateratzen

zait, baina badakit ohitura txarra dela", azaldu du. Hori da Sologaitoak Euskaraldiarekin aldatu nahi duena: "Oso aukera polita iruditzen zait nire inguruan euskara indartzen joateko".

Interesgarria eta lagungarria

Naiara Lara arrasatearrak 16 urte ditu. Duela bi urte, ariketan parte hartzeko gogoz gelditu zen. "Gustura hartuko nukeen parte", aitortu du.

Garrantzitsua iruditzen zaio Euskaraldia eta halako ekimenak martxan jartzea: "Ekintza interesgarria eta lagungarria da euskararendako". Ariketarekin, ziurtatu nahi du lehen hitza euskaraz egingo duela. Azaldu du lagun askok hartuko dutela parte, aukera dutela aprobetxatuta. "Kontziente gara ekimen hau dagoela, eta nire inguruan badago interesa", adierazi du.

BLACK FRIDAY

%20

ko **DESKONTUA**
produktu guztietan

+ MONTURA DOAN

zure betaurreko graduatuetan

2020ko azaroaren 30era arte baliagarria. Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com